Musika

HIZTEGIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

Argitaraldia: 1.a, 2011ko azaroa

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net/euskara21

Azala: Antton Olariaga

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

HITZAURREA

HIZKUNTZA EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, "EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa" sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 4a

Lourdes Auzmendi Ayerbe
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau Elhuyar Fundazioak egina da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren, Hezkuntza Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz. Izan ere, Musika alorreko oinarrizko terminologia finkatzeko eta normalizatzeko premia zegoen euskarari dagozkionetan eta, hain zuzen, hiztegi hau hutsune hori betetzera dator. Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia hau EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan integratu da www.euskara.euskadi.net/euskalterm eta bertan kontsulta daiteke.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Gainera, esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak[1] euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua
(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

eu euskara
es español
fr français
en English

➥ Ikus (definizioa eta bestelako edukiak dauden termino sinonimora bidaltzeko)

☞ Ikus (erlazionaturiko terminoetara bidaltzeko)

! Oharra

sin. sinonimoa

ELHUYARREKO LANTALDEA

Antton Gurrutxaga (koordinazioa eta erredakzioa)
Pili Lizaso (Informatika)

ADITU-TALDEA:

Jon Bagues (Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa)
Loreto Imaz (Musikene – Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia)
Alicia Pinilla (Francisco Escudero Kontserbatorioa)

Normalizazioa

Batzorde teknikoa

Estibalitz Arrizabalaga (Musika Eskolen Elkartea)
Jose Ignazio Ansorena (Donostiko Txistulari-bandaren zuzendaria)
Antton Gurrutxaga (Elhuyar Fundazioa)
Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde** (HPS)

Terminologia Batzordea

Lourdes Auzmendi Ayerbe, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Mª Encarnacion Echazarra Huguet, IVAPeko zuzendari nagusia
Ivan Igartua Ugarte, EABko idazkaria
Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
Maite Imaz Leunda, IVAPeko ordezkaria
Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria
Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria
Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
Mertxe Olaizola Maiz, aditua
Alberto Atxabal Rada, aditua
Joseba Erkizia Itoitz, aditua
Miel Loinaz Beristain, aditua
Asier Larrinaga Larrazabal, aditua
Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

EREMU - ZUHAITZA

1. Instrumentuak
- 1.1. Instrumentuak
- 1.2. Ahotsa
- 1.3. Musikari-taldeak

2. Musika-formak
- 2.1. Formak
- 2.2. Generoak
- 2.3. Estiloak

3. Musikaren teoria
- 3.1. Soinua
- 3.2. Notazioa
- 3.3. Interpretazioa
- 3.4. Melodia
- 3.5. Erritmoa
- 3.6. Harmonia

en	ingelesa
es	gaztelania
eu	euskara
fr	frantsesa
➥	Ikus (definizioa eta bestelako edukiak dauden termino sinonimora bidaltzeko)
☞	Ikus (erlazionaturiko terminoetara bidaltzeko)
!	Oharra
sin.	sinonimoa

Hiztegian erabilitako ponderazio-markak

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

AURKIBIDEA

HIZTEGIA ARLOKA 13
Instrumentuak. 14
Musika-formak 74
Musikaren teoria 109

AURKIBIDE ALFABETIKOAK 183
Euskarazko aurkibidea. 183
Ingelesezko aurkibidea. 201
Gaztelaniazko aurkibidea. 219
Frantsesezko aurkibidea. 237

Musika-notazioan erabiltzen diren argibide batzuen azalpena 255

Bibliografia. 261

Hiztegia arloka

INSTRUMENTUAK

abesbatza
➥ **koru**

1

adar *(4)*
Animalia-adar hustu eta zulatua, zenbait herri-musikatan musika-tresnatzat erabiltzen dena.
en horn
es cuerno
fr corne

2

adar ingeles *(4)*
Oboearen familiako zurezko haize-instrumentua, tutu konikokoa eta mihi bikoitzekoa, eta oboeak baino bostun bat beheragoko soinua duena (fa instrumentua da). Ahokoa *bokal* izeneko metalezko hoditxo mehe eta kurbatua da. Instrumentuaren tutuaren amaierak arrautza-formako zabalgunea du.
en English horn
es corno inglés
fr cor anglais
☞ **fagot; oboe**

3

aerofono *(4)*
sin. instrumentu aerofono *(4)*
Soinua airearen bibrazioz sortzen duen instrumentua. Aireari bibrarazteko erabiltzen den eraren arabera sailkatu ohi dira. Putz eginez jotzen direnak: a) zulo edo estugune batera putz egitekoak (flautaren familia); b) mihidunak (klarinetea, saxofoia, oboea...); c) ezpainen bibrazioan oinarrituak (metal-instrumentuak, edo tronpetaren familia). Bestetik, aerofonoen artean sailkatzen dira organoa, akordeoia eta kidekoak (horrelakoetan, aireari mihi librez edo askez bibrarazten zaio).
en aerophone; aerophone instrument
es aerófono; instrumento aerófono
fr aérophone; instrument aérophone
☞ **haize-instrumentu**

4

afinagailu *(4)*
sin. gozagailu *(3)*
Musika-instrumentua tonu doian jartzen laguntzen duen tresna. Tonu zehatzeko soinu bat edo batzuk sortzen ditu, eta instrumentuaren soinuak horiekin erkatzen dira, behar bezala doitu eta bat etorrarazteko. Gaur egun, gehienak elektronikoak izaten dira.
en tuner
es afinador
fr accordeur
☞ **intonazio; tonuan jartze**

afinatu
➥ **tonuan jarri**

5

afinatzaile *(4)*
sin. gozatzaile *(3)*
Musika-instrumentuak tonu egokian jartzeko lanbidea duena.
en tuner
es afinador
fr accordeur

afinazio
1 ➥ **tonuan jartze**
2 ➥ **intonazio**

6

ahokadura *(4)*
Haize-instrumentuetan, ezpainak eta ahoaren inguruko muskuluak jartzeko eta erabiltzeko modua.
en embouchure

es embocadura
fr embouchure
☞ **ahoko pieza**

7

ahoko *(4)*
sin. ahoko pieza *(4)*
Putz eginez jotzen diren haize-instrumentuetan, ezpainen kontra jartzen den edo ahoan sartzen den instrumentuaren pieza. Ahokoaren forma eta erabiltzeko modua instrumentuaren arabera aldatzen dira (metalezkoa, mihi bakunekoa edo mihi bikoitzekoa den).
en mouthpiece
es boquilla; embocadura
fr embouchure
☞ **mihi**

ahoko pieza
➥ **ahoko**

ahoko soinu
➥ **aho-soinu**

8

aho-soinu *(4)*
sin. ahoko soinu *(4)*; harmonika *(4)*
Mihi libreko haize-instrumentua, mihiak dituzten irekigune zenbaitez osatua. Irekigune horietatik putz eginez edo airea hartuz jotzen da, eta nota desberdinak sortzen dira putz egitean eta airea xurgatzean. Harmonika diatonikoak eta kromatikoak daude. Harmonika kromatikoak alboko pieza mugikor bat du, eta hura sakatzean, airea soinu kromatikoak sortzen dituzten mihietara bideratzen da.
en French harp; mouth organ
es armónica
fr harmonica

9

ahots *(4)*
1 Gizakiak soinuak sortzeko duen mekanismoa, laringeko korden *(ahots-korden)* bibrazioaren bidezkoa; haren emaitza den soinua. Ahotsaren bidezko musika-jarduera kantua da. Musika-instrumentu edo -baliabide gisa, ahotsaren erabilera unibertsala da, baina kultura batetik besterako ezaugarriak eta estiloak asko aldatzen dira.
en voice
es voz
fr voix
2 sin. boz *(3)*
Kantuan hedaduraren arabera bereizi ohi diren motetako bakoitza. Emakumezkoenak *sopranoa*, *mezzosopranoa* eta *kontraltoa* dira; gizonezkoenak, *tenorra*, *baritonoa* eta *baxua*.
en voice
es voz
fr voix

10

ahots baxu
Koruetan, gizonezkoen ahotsa izendatzeko erabili ohi den terminoa, *ahots zuri*ri kontrajarria.

! Eskuarki, pluralean erabiltzen da (*ahots baxuak*).
es voz grave
fr voix grave
☞ **ahots zuri**

11

ahots berdinak *(4)*
Emakumezko ahotsez edo gizonezko ahotsez osatutako kantari-taldea.
en equal voices
es voces iguales
fr voix égales
☞ **ahots mistoak**



Ahotsen hedadurak

12

ahots mistoak *(4)*
Emakumezko ahotsez eta gizonezko ahotsez osatutako kantari-taldea.
en mixed voices
es voces mixtas
fr voix mixtes
☞ **ahots berdinak**

13

ahots zuri *(4)*
Emakumezkoen edo haurren ahotsa izendatzeko erabili ohi den terminoa, *ahots baxu*ri kontrajarria.
! Eskuarki, pluralean erabiltzen da (*ahots zuriak*).
es voz blanca
fr voix blanche
☞ **ahots baxu**

14

ahots-korda *(4)*
Laringe-barrunbean dauden mintzezko bi tolesturetako bakoitza. Biriketatik datorren aireak bibrarazi egiten die, eta bibrazio horrek soinu-uhinak sortzen ditu, hau da, ahotsa.
en vocal cord
es cuerda vocal
fr corde vocale

15

ahots-talde *(4)*
Kantariz osatutako musikari-taldea; batez ere, bakarlari-lana egin dezaketen kantariez osatutakoa.
en vocal ensemble
es conjunto vocal
fr ensemble vocal
☞ **instrumentu-talde**

16

akordeoi *(4)*
sin. eskusoinu *(4)*
Mihi libreko haize-instrumentua, besoz eragiten zaion hauspoa duena eta teklatua edota botoiak dituena. Hauspoaz eragindako haizeak metalezko mihiei bibraraztean sortzen da soinua. Hauspoari, eskuarki, ezkerreko besoaz eragiten zaio, eta ezkerreko eskuaz baxuak edo akordeak jotzeko botoiak sakatzen dira; eskuinaz, berriz, nota bana sortzen duten teklak edo botoiak. Mihi-motak (eta, beraz, soinu-motak) hautatzeko mekanismoa ere eskuinaldean dago.
en accordion
es acordeón
fr accordéon
☞ **bandoneon; kontzertina**

17

akordeoi diatoniko *(4)*
sin. eskusoinu diatoniko *(4)*
Eskala diatoniko batzuetako notak jotzen dituen akordeoi-mota. Eskuinaldean botoiak izaten ditu, errenkadatan antolatuta, eta errenkada bakoitzeko botoiez eskala diatoniko bateko notak jotzen dira. Gainera, hauspoa itxi edo irekitzen den, nota desberdinak jotzen ditu (*soinu biko*

sistema). Hainbat herrialdetako herri-musikan erabiltzen da. Euskal Herriko trikiti-musikan ere erabiltzen da (euskal herri-musikan erabiltzen den instrumentuari *eskusoinu txiki*, *soinu txiki* eta *trikiti* ere esaten zaio).

en diatonic accordion
es acordeón diatónico
fr accordéon diatonique
☞ **trikiti**

18

akordeoi kromatiko *(4)*
sin. eskusoinu kromatiko *(4)*; soinu handi *(4)*
Eskala kromatikoko notak jotzen dituen akordeoi-mota. Hauspoa itxi nahiz ireki, nota bera jotzen du.

en chromatic accordion
es acordeón cromático
fr accordéon chromatique

akordeoilari
➥ **soinu-jotzaile**

19

alboka *(4)*
Mihi bana duten bi tutuz osatutako haize-instrumentua. Tutuak kanaberazkoak dira, eta haien mutur banatan bi behi-adar zati ditu, bata txikia, putz egitekoa, eta bestea handia, soinua kanporatzekoa. Arnasa aldi berean hartuz eta botaz jotzen da, eta, beraz, soinua etengabea da. Euskal Herrian erabiltzen da.

en alboka
es albogue; alboka
fr alboka

20

albokari
Alboka jotzen duen musikaria.

en alboka player
es alboguero, -a; albokari
fr joueur d'alboka

21

Alpeetako tronpa *(4)*
Tronpa-mota, zurezko tutu koniko zuzena duena, pabiloia gorantz bihurtua, eta burua lurrean dagoela jotzen dena. Tronpa naturala da (serie harmonikoko soinuak sortzen ditu, eta pistoi-mekanismorik gabea da). Jatorriz Suitzakoa da.

en alpenhorn; alphorn; alpine horn
es trompa alpina
fr cor des Alpes
☞ **natural**

22

altu *(4)*
1 Zenbait instrumentu-familiatan (flauta, klarinetea, saxofoia...), soprano eta tenorraren artekoa den instrumentua, gutxi gorabehera kontraltoaren ahotsari dagokiona.

en alto
es alto
fr alto
2 ➥ **kontralto**

23

anplifikadore (4)
Seinale elektriko baten anplitudea handitzen duen gailua. Musikaren arloan, instrumentu elektriko, elektroniko edo grabazio baten seinalea bozgorailuetara bidali aurretik behar adina anplifikatzeko erabiltzen da.

en amplifier
es amplificador
fr amplificateur

24

arima *(4)*
Biolinean eta kideko hari-instrumentuetan, taula harmonikoa eta beheko azala elkartzen dituen zurezko pieza. Zubiaren behealdeko oinetik gertu ezartzen da (soinu altuena sortzen duen haria bermatzen den aldean). Harien

tentsioari eusten dio, eta bibrazioak instrumentuaren gorputz osora transmititzen ditu.

en sound post; soundpost
es alma
fr âme
☞ **taula harmoniko; zubi**

25

arku *(4)*
Zenbait hari-instrumentutan (biolinaren familian, esaterako), hariei igurtziz bibrarazteko erabiltzen den tresna. Haga baten muturren artean tenkatutako zaldi-zurdez osatua dago. Luzera era heltzeko modua instrumentuaren eta garaiaren arabera aldatzen da.

en bow
es arco
fr archet

26

arku-instrumentu *(4)*
Hari igurtziko instrumentua; hariari bibrarazteko, *arku* izeneko tresna erabiltzen da. Nagusiak dira, batetik, antzinako *viola*ren familiakoak (viola da gamba, viola da braccio, viola d'amore...), eta, bestetik, biolin modernoaren familiakoak (biolina, biola, biolontxeloa eta kontrabaxua).

en bowed instrument
es instrumento de arco
fr instrument à archet
☞ **arku; hari-instrumentu**

arkukada
➥ **arku-kolpe**

27

arku-kolpe *(4)*
sin. arkukada *(4)*
Hari igurtziko instrumentuetan, arkua erabiltzeko modua eta teknika. Batez ere, noten artikulazioaren arabera egiten den arku-mugimendu eta -ibiltarte mota bakoitza.

en bow stroke; bowing
es arcada; golpe de arco
fr coup d'archet

28

arrada *(4)*
sin. tarrapata *(3)*
Danborra elkarren segidako makila-kolpe azkarrez jotzean sortzen den soinua.

en drumming; rolling
es redoble
fr roulement; tambourinage; tambourinement
☞ **danbor; makila**

29

artxilaute *(4)*
Behe-erregistro hedatua zuten lauteen familiako instrumentua, *tiorba* edo *chitarrone*a baino laburragoa. Gider koskadunari beste gider luzeago bat eransten zitzaion, airean jotzeko hari luzeei eusten ziena. Hari luzeak eskalan afinatzen dira. Baxu jarraituko instrumentua da.

! Zenbait iturritan, *artxilaute* eta *tiorba* terminoak antzeko instrumentuak izendatzeko erabiltzen dira.

en archlute
es archilaúd
fr archiluth
☞ **chitarrone; laute; tiorba**

30

atabal *(4)*
Bi makilaz jotzen den danbor zapala, hainbat herri-musikatan erabiltzen dena (txistulari-bandetan, Zuberoan txirularekin batera, eta abarretan).

en atabal
es atabal
fr atabal
☞ **danbor; kaxa**

31

baketa *(4)*
Zenbait perkusio-instrumentu jotzeko erabiltzen den tresna, makila edo zotz batez eta haren muturrean finkatutako buru nabari batez osatua. Instrumentuaren arabera, edo lortu nahi den soinuaren tinbrearen arabera, burua material bigunez estalia izan daiteke (feltroa, larrua, material sintetikoak...), edo material gogorrekoa izan daiteke. Esaterako, tinbalak, xilofonoa, marinba eta abar baketa-pareaz jo ohi dira.
en mallet; stick
es baqueta; maza
fr baguette; mailloche
☞ **mailu; makila; mazo**

balbula
➥ **pistoi**

balbula-tronboi
➥ **pistoi-tronboi**

32

banda *(4)*
Haize- eta perkusio-instrumentuz osatutako musika-taldea. Bandaren osaera aldatu egin daiteke, eta, zenbaitetan (banda sinfonikoetan), behe-erregistroko arku-instrumentuak ere badaude.
en concert band
es banda
fr harmonie; orchestre d'harmonie
☞ **fanfarre**

33

bandoneon *(4)*
Akordeoiaren familiako haize-instrumentua. Hauspoaren heldulekuak karratuak dira, botoidunak, eta diatonikoa zein kromatikoa izan daiteke. Argentinako tango-musikan erabiltzen delako da bereziki ezaguna.
en bandoneon
es bandoneón
fr bandonéon
☞ **akordeoi; kontzertina**

34

bandurria *(4)*
Zistroaren ahaidea den hari pultsatuko instrumentua, madari-formako kaxaduna, 6 hari bikoitz dituena eta plektroz jotzen dena. Batez ere, errondailetan erabiltzen da.
en bandurria
es bandurria; mandolina española
fr mandole; mandoline espagnole; mandore
☞ **mandolina; zistro**

35

banjo *(4)*
Hari pultsatuko instrumentua, gider koskadun luzea duena eta mintz batez estalia dagoen erresonantzia-kaxa biribil zapala duena. Jatorriz afrikarra da, eta batez ere Amerikako Estatu Batuetako herri-musikan erabiltzen da (jazz tradizionalean eta country musikan).
en banjo
es banjo
fr banjo

36

baritono *(4)*
1 Tenorraren eta baxuaren arteko gizonezko-ahotsa; ahots hori duen kantaria.
en baritone
es barítono
fr baryton
☞ **baxu; tenor**



Baritono-ahotsaren hedadura

2 Zenbait instrumentu-familiatan, tenorraren eta baxuaren artekoa, gutxi gorabehera baritono-ahotsari dagokion erregistroa erabiltzen duena (esaterako, saxofoi baritono).
en baritone
es barítono
fr baryton

basoi
➥ **fagot**

basoi-jotzaile
➥ **fagot-jotzaile**

basonista
➥ **fagot-jotzaile**

37

bat-egite *(4)*
Instrumentu- edo ahots-talde batean, soinuek behar adinako batasuna agertzea, batez ere tinbreari dagokiola.
en blending
es empaste

38

bateria *(4)*
1 Danbor- eta txindata-motako zenbait perkusio-instrumentuz osatutako multzoa, musikari bakar batek jotzen duena. Konbinazio ugari daude, baina hauek dira oinarrizko osagaiak: pedalez jotzen den dunbala, kaxa, dunbalaren gaineko danbor bat edo bi, lurrean jartzen den danbor handia, oinaz eragiten zaien zutikako txindatak (*charleston* edo *hi-hat*a) eta zutoin banatan jartzen diren txindata eseki bakunak.
Danborrak eta txindatak jotzeko, makilak (zotzak), eskuilak edo baketak erabiltzen dira. Jotzaileak eserita dagoela jotzen du.
en drum kit; drum set; drums
es batería
fr batterie
☞ **danbor; dunbal; txindata**

2 Orkestra edo banda bateko perkusio-instrumentuen multzoa.
en drum kit; drum set; drums
es batería
fr batterie

39

batuta *(4)*
Musika-talde bateko (bereziki, orkestra edo banda bateko) zuzendariak erabiltzen duen makilatxoa.
en baton
es batuta
fr baguette

40

baxu *(4)*
1 Gizonezkoen ahotsen artean beherenekoa; ahots hori duen kantaria.
en bass
es bajo
fr basse


Baxu-ahotsaren hedadura

2 Zenbait instrumentu-familiatan (klarinetea, flauta, tronboia...), gutxi gorabehera baxu-ahotsari dagokion erregistroa erabiltzen duen instrumentua.
en bass
es bajo
fr basse

41

baxu elektriko *(4)*
sin. gitarra baxu *(4)*
Kontrabaxuaren hedadura eta afinazioa duen lau hariko gitarra elektrikoa (modelo batzuek hari gehiago izaten dituzte). Herri-musika modernoan erabiltzen da batez ere, eta bereziki rockean.

en bass guitar; electric bass
es bajo eléctrico; guitarra bajo
fr basse électrique; guitare basse
☞ **gitarra elektriko**

42

baxu-jotzaile *(4)*
Baxua jotzen duen musikaria; bereziki, kontrabaxua edo baxu elektrikoa jotzen duena.
en bass player; bassist
es bajista; bajo
fr bassiste

beso-biola
➥ **viola da braccio**

43

bibrafono *(4)*
Intonazio zehatzeko perkusio-instrumentua, altzairuzko xafla laukizuzenez osatua eta xafla bakoitzaren azpian erresonantzia-tutuak dituena. Baketapareaz jotzen da.
en vibes; vibraharp; vibraphone
es vibráfono
fr vibraphone
☞ **marinba; xilofono**

44

bihuela *(4)*
1 Espainiako XIII-XVII. mendeen bitarteko zenbait hari-instrumenturen izen generikoa. Hiru mota nagusi zeuden, arkuz jotzekoa (*vihuela de arco*), plektroz jotzekoa (*vihuela de peñola*) eta hatzez jotzekoa (*vihuela de mano* edo *vihuela*), historikoki garrantzitsuena izan dena.
en vihuela
es vihuela
fr vihuela

2 Hari pultsatuko bihuela-mota, gitarraren antzeko forma duena eta haren aitzindarietako bat izan daitekeena (*vihuela de mano* izendapena ere hartu zuen XVI. mendera arte). Hatzez jotzen da, eta sei hari bikoitz izaten ditu. Giderra koskaduna da. Erresonantzia-kaxaren bi aldeak zapalak dira, eta soinu-zuloa *erroseta* dekoratua izaten da. Europan lauteak izan zuen adinako garrantzia hartu zuen Espainian.
en vihuela; vihuela de mano
es vihuela; vihuela de mano
fr vihuela; vihuela de mano

45

bikote *(4)*
Bi musikariz osatutako taldea.
en duo
es dúo
fr duo
☞ **duo**

46

biola *(4)*
1 Hari igurtziko arku-instrumentua, biolinen familiako bigarrena (altua). Biolinaren antzekoa da, baina handixeagoa eta soinu ilunagokoa. Biolinak baino bostun bat beheragoko afinazioa du: do_2-sol_2-re_3-la_3. Hirugarren lerroko do klabean idazten da. Jotzeko biolinari bezalatsu heltzen zaio.
en viola
es viola
fr alto
☞ **biolin**

2 XVI.-XVIII. mende bitarteko arku-instrumentu familia bateko kideen izen generikoa. Bi multzo nagusi daude: *viola da braccio* (besoan bermatuta jotzen direnak) eta *viola da gamba* (zango artean bermatuta jotzen direnak).
en viol
es viola
fr viole

47

biola-jotzaile *(4)*
Biola jotzen duen musikaria.
en viola player; violist
es viola; violista
fr altiste

48

biolin *(4)*
Hari igurtziko arku-instrumentua, lau harikoa eta koska edo trasterik gabea, familiako ("biolinen familiako") erregistro altuena duena. Besaburuan bermatuta jotzen da. Harien bibrazioa zubiaren bidez transmititzen dira taula harmonikora, eta arimaren bidez erresonantzia-kaxara. Taula harmonikoan, *f*-formako bi soinu-zulo daude. Ohiko biolinean, harien afinazioa sol_2-re_3-la_3-mi_4 da. Biolina eta dagokion familia XVI. mendean sortu ziren, Italian, eta XVIII. mendean finkatu ziren gaur egun dituzten ezaugarriak. Musika klasikoan zein herri-musikan erabiltzen da. Badira bestelako tamaina duten biolin-motak (ezagunena, hiru laurdeneko biolina, txikiagoa, haurrek ikasteko erabiltzen dutena).

! Ingelesez, *fiddle* terminoa erabili ohi da herri-musikan erabiltzen den biolina izendatzeko (bien arteko alde bakarra da, izatekotan, *fiddle*-aren zubiak kurbatura txikiagoa izatea).
en violin
es violín
fr violon
☞ **arima; arku-instrumentu; erresonantzia-kaxa; hari-instrumentu; soinu-zulo; taula harmoniko; zubi**

biolinista
➥ **biolin-jotzaile**

49

biolin-jotzaile *(4)*
sin. biolinista *(4)*
Biolina jotzen duen musikaria.
en violin player; violinist
es violinista
fr violonist

biolontxelista
➥ **biolontxelo-jotzaile**

50

biolontxelo *(4)*
sin. txelo *(4)*
Hari igurtziko arku-instrumentua, biolinen familiako hirugarrena (baxua). Biola baino zortzidun bat beherago afinatzen da: do_1-sol_1-re_2-la_2. Laugarren lerroko fa klabean eta laugarren lerroko do klabean idazten da. Biolinaren antzeko forma du, baina handiagoa da, eta behealdea hagatxo batez lurrean bermatuz jotzen da, musikaria eserita dagoela.
en cello; violoncello
es violoncelo; violonchelo
fr violoncelle
☞ **biola; biolin**

51

biolontxelo-jotzaile *(4)*
sin. biolontxelista *(4)*
Biolontxeloa jotzen duen musikaria.
en cellist; violoncellist
es violonchelista
fr violoncelliste

52

birjinal *(4)*
Hari pultsatuko tekla-instrumentua. Kaxa angeluzuzena izaten da, eta, askotan, eramangarria. Nota bakoitzari hari bakarra dagokio, eta hariek teklekiko angelu zuzena osatzen dute. Klabezinaren formarik sinple eta zaharrena da. XVI-XVII. mendeetan erabili

zen, batez ere Ingalaterran (birjinalerako musika-liburu batzuk argitaratu ziren; ezagunena, *Fitzwilliam Virginal Book*). XVII. mendearen amaieran, espinetak ordezkatu zuen (Italian izan ezik).

en virginal
es virginal
fr virginal
☞ **espineta; klabezin**

53

bokal *(4)*
sin. tudel *(3)*
Mihi bikoitzeko haize-instrumentuetan, mihi bikoitzaren eta instrumentuaren gorputzaren arteko tutu mehea. Fagotaren eta adar ingelesaren kasuan, tutu kurbatuak dira; dultzainarena, berriz, zuzena.

en bocal; crook
es bocal; tudel
fr bocal

54

bokalizazio *(4)*
Kantatzen ikasteko edo ahotsa berotzeko ariketa melodikoa, bokal bakarra ahoskatuz egiten dena.

en vocalise
es vocalización
fr vocalise

55

bonbarda *(4)*
Mihi bikoitzeko haize-instrumentua, xaramelen familiako tenorra edo baxua izan daitekeena. XIV-XVII. mende bitartean erabili zen, fagotak ordezkatu zuen arte. Gaur egun, Bretainiako herri-musikan erabiltzen da.

en bombard
es bombarda
fr bombarde
☞ **fagot; xaramela**

56

bonbardino *(4)*
sin. saxhorno baritono (4)
Saxhornoen familiako baritonoa, eufonioa baino zertxobait txikiagoa. Tutuaren ezaugarrien aldetik, eufonioak baino tutu zilindrikoagoa du. Si♭ instrumentua da, eta oso erabilia bandetan.

en baritone horn
es bombardino
fr saxhorn baryton
☞ **eufonio; saxhorno**

57

bongo *(4)*
Elkarri loturiko bi danbor txikiz osatutako perkusio-instrumentua, belaun artean eutsi eta bi eskuetako hatzez eta ahurrez jotzen dena. Danborrak zilindrikoak edo konikoak izan daitezke, azal bakarrekoak dira eta bata bestea baino handixeagoa da (handia txikia baino bostun bat beherago afinatu ohi da). Musika afrokubatarrean erabiltzen da batez ere.

! Eskuarki, terminoa pluralez erabiltzen da (*bongoak*).

en bongo drums; bongos
es bongó
fr bongo

58

boskote *(4)*
Bost musikariz osatutako taldea.

en quintet
es quinteto
fr quintet
☞ **kinteto**

boz
➥ **ahots**

59

bozgorailu *(4)*
Seinale elektrikoa soinu-uhin bihurtzen duen tresna. Soinu-uhina bozgorailuaren mintzak sortzen du, seinale elektrikoak bibrarazten dionean.
en loudspeaker; speaker
es altavoz
fr haut-parleur

60

bugle *(4)*
sin. fliskorno *(4)*
Saxhornoen familiako sopranoa. Si♭ instrumentua da. Itxuraz, tronpetaren antza du, baina tutu konikoa du, eta soinu gozoagoa. Jazzean eta bandetan erabiltzen da batez ere.
en flugelhorn
es bugle; fiscorno; fliscorno
fr bugle
☞ **saxhorno; tronpeta**

charleston
➥ **charleston txindatak**

61

charleston txindatak *(4)*
sin. charleston *(4)*
Oinez eragindako pedal batez elkar joarazten diren bi txindataz osatutako perkusio-instrumentua, bereziki bateriaren osagaia dena.
en hi-hat
es platillos charlestón
fr charleston; cymbales charleston
☞ **txindata; txindata eseki; txindatak**

62

chitarrone *(4)*
Behe-erregistro hedatua duten lauteen familiako instrumentua, tiorbaren kidekoa, eta hura baino luzeagoa eta behe-hedadura handiagokoa. *Tiorba erromatar* izendapena ere eman zitzaion.
! Zenbait iturriren arabera, *tiorba* eta *chitarrone* instrumentu beraren izendapenak baino ez ziren (batez ere 1660tik aurrera).
en chitarrone
es chitarrone
fr chitarrone
☞ **artxilaute; laute; tiorba**

63

colascione *(4)*
Hari pultsatuko antzinako instrumentua, oso gider luzea, madari-formako kaxa eta 3-6 hari izaten dituena. XVI-XVII. mendeetan erabili zen, baxu jarraitua jotzeko instrumentutzat, batez ere Italian, Frantzian eta Alemanian.
en colascione
es colascione
fr colachon
☞ **laute**

64

combo *(4)*
Zenbait musika-estilotako musikari-talde txikiei ematen zaien izena (jazzean eta Kuba zein Puerto Ricoko herri-musikan). Taldearen osaera estiloaren araberakoa izaten da.
en combo
es combo
fr combo

65

concertino *(4)*
*Concerto grosso*an, instrumentu solisten multzoa (*tutti* edo *ripieno*ri kontrajarria).
en concertino
es concertino
fr concertino
☞ **concerto grosso; tutti**

66

conga *(4)*
sin. tumbadora *(4)*
Upel-formako danbor estu eta luzea, azal bakarrekoa eta esku hutsez jotzen dena. Jatorriz afrikarra da, eta musika afrokubatarrean erabiltzen da batez ere, baina baita beste hainbat herri-musikatan ere. Eskuarki, perkusionistak conga-multzoa jotzen du (2, 3 edo 4), edo, Kubako zenbait dantzatan, perkusionistek conga bana.
en conga; tumba
es conga; tumbadora
fr conga; tumba; tumbadora

67

danbolin *(4)*
sin. ttunttun *(3)*; tuntun *(3)*
Besotik zintzilik dagoela makila bakar batez jotzen den danborra, ohikoa baino luzeagoa eta meharragoa, eta azpialdean pordoia duena. Euskal Herrian, txistuarekin batera jotzen da (txistulariak berak jotzen du).
en small drum; tabor
es tamboril
fr tambourin

68

danbolin-jotzaile *(4)*
sin. danbolintero *(3)*; tuntunlari *(4)*
Danbolina jotzen duen musikaria.
en tabor player
es tamborilero, -a
fr tambourineur, -euse

danbolintero
➥ **danbolin-jotzaile**

69

danbor *(4)*
Xasis edo bastidore baten gainean tenkatzen den azal batez edo biz osatutako perkusio-instrumentuen izen generikoa. Era askotakoak daude, eta eskuz zein objektu batez jo daitezke. Eskuarki, azala ontzi-formako objektu baten ertz zirkularrean tenkatzen da. Adiera hertsian, zilindro baten gaineko eta azpiko aldeetan bi larru edo mintz sintetiko dituena eta bi makilaz (edo, batzuetan, bakarraz) jotzen dena.
en drum
es tambor
fr tambour

desafinatu
➥ **tonua galdu**

70

diapasoi *(4)*
1 Ahotsak eta musika-instrumentuak tonuan jartzeko erreferentzia-nota ematen duen tresna.
en tuning fork
es diapasón
fr diapason

2 Hari-instrumentuetan, giderraren gainaldeari itsatsita dagoen zurezko xafla. Ebanozkoa izaten da. Hariak haren kontra zapaltzen dira, bibratzen duen hari-zatiaren luzera laburtzeko, eta soinu-altuera aldatzeko. Laua (lautea, gitarra) edo kurbatua izan daiteke (biolinaren familia, *viola da gamba*...). Koskaduna (lautea, *viola da gamba*, gitarra...) edo koskarik gabea izan daiteke (biolinaren familia).
en fingerboard
es diapasón
fr touche
☞ **gider; traste**

71

dultzaina *(4)*
sin. gaita *(3)*
Mihi bikoitzeko haize-instrumentua, oboearen aurrekari diren xaramelen familiakoa. Tutua konikoa da, eta zortzi zulo ditu, zazpi gainaldean eta bat goiko azpialdean. Hatz txikiarekin ixten den zuloa (azkena) alboratua da, helmenean

egoteko (dultzaina zahar batzuek ez dute zulo hori). Tutuaren behealdean, bi zulo daude albo banatan, eta soinu-tutuaren luzera mugatzen dute. Mihi bikoitza edo pita bokal edo tudel izeneko pieza baten bidez sartzen da tutuan. Gehienetan, ezpelezkoak izaten dira, baina badira metalezkoak ere (batez ere, Bizkaian). Nafarroan erabiltzen den dultzainak berezitasun batzuk ditu, eta nagusia da tutuaren amaiera eta pita lotzen dituen txapadun katea (eskuarki, Nafarroakoari *gaita* izena eman ohi zaio). Gehienetan, danborrak lagunduta jotzen da.

en dulzaina
es dulzaina
fr dulzaine
☞ **oboe; txanbela; xaramela**

72

dultzainero *(4)*
sin. gaitero *(3)*
Dultzaina edo gaita jotzen duen musikaria.
es dulzainero; gaitero
☞ **gaita-jotzaile**

dultzimer
➥ **tinpano**

73

dunbal *(4)*
Intonazio zehaztugabeko perkusio-instrumentua, berez danbor handia dena, eta mintzak bertikal daudela jo ohi dena. Alde batetik edo bietatik jo daiteke, eta eskuarki mazoa erabiltzen dira mintza kolpekatzeko. Orkestran, inklinazioa aldatzeko aukera ematen duen euskarri batean erabili ohi da. Baterian, lurrean jartzen da, eta oinaz eragiten zaion pedal-mekanismo batez jotzen da; fanfarreetan, soinetik hede batez zintzilik eramaten du jotzaileak.

en bass drum
es bombo
fr grosse caisse

74

dunbal-jotzaile *(4)*
Dunbala jotzen duen musikaria.
en bass drum player
es bombo

75

elektrofono *(4)*
sin. instrumentu elektroniko *(4)*
Soinua baliabide elektronikoz sortzen edota aldatzen duen instrumentua. Bi mota daude: a) soinua baliabide mekanikoz ('akustikoki') sortzen dutenak eta uhinak baliabide elektronikoz jaso eta anplifikatzen dutenak (gitarra elektrikoa, piano elektrikoa); eta b) soinua baliabide elektronikoz sortzen dutenak. Azken horiek analogikoak (mellotrona, theremin, Martenot uhinak, organo elektronikoak, sintetizadore analogikoak...) edo digitalak izan daitezke (sintetizadore digitalak, lagingailu edo *sampler*ak).
en electronic instrument; electrophone
es electrófono; instrumento electrófono; instrumento electrónico
fr électrophone; instrument électronique
☞ **instrumentu akustiko**

76

erregistrazio *(4)*
Organo-obra bat jotzean, erregistroak hautatzea eta konbinatzea.
en registration
es registración
fr registration
☞ **erregistro; organo**

77

erregistro *(4)*
Organoan, tinbre edo soinu-mota bereko tutuen multzoa.
en stop
es registro
fr jeu d'orgue; registre
☞ **organo**

errekinto
➥ **klarinete sopranino**

78

erresonantzia *(4)*
Objektu batek kanpo-bibrazio baten eraginez bibratzea, delako kanpo-bibrazioaren maiztasuna gorputzaren berezko bibrazio-maiztasunetako batekin bat datorrenean gertatzen dena. Musika-instrumentuen funtsezko gertakaria da, eskuarki erresonantzia bidez handitzen, hedatzen eta aberastean baita instrumentuan eragiten den hasiera-bibrazioa.
en resonance
es resonancia
fr résonance
☞ **erresonantzia-kaxa; hari sinpatiko**

79

erresonantzia-kaxa *(4)*
sin. kaxa *(4)*
Hari-instrumentuetan, harien bibrazioak anplifikatzen dituen kaxa-formako objektu hutsa. Biolin, laute eta gitarraren familietan, giderrari lotua dago, eta gainaldeari *taula harmoniko* deitzen zaio; hondoa lau samarra edo kurbatura gutxikoa izan daiteke (biolina, gitarra) edo kurbatura handikoa (lautea). Harpan, hariekiko zuta da (behealdean izaten da).
en resonator box; sound box; soundbox
es caja; caja de resonancia
fr caisse; caisse de résonance; caisse harmonique

80

erresonantzia-pedal *(4)*
sin. forte pedal *(4)*
Pianoaren eskuineko pedala, sakatzen denean isilgailu guztiak altxarazten dituena, eta erresonantzia luzarazten duena. Erresonantzia-pedala sakatu behar dela adierazteko, 𝄋 ikurra erabiltzen da; altxatzeko behar dela adierazteko, 𝄎 ikurra.
en damper pedal; loud pedal; sustain pedal; sustaining pedal
es pedal de resonancia
fr pédale forte
☞ **pedal tonal; piano; sordina-pedal**

81

eskolania *(4)*
1 Monasterio edo katedral bateko eskola, haurrei musika- eta kantu-heziketaz gain heziketa orokorra ere ematen diena.
en choir school
es escolanía
fr manécanterie

2 Haur-koru batzuei ematen zaien izena.
en choir school
es escolanía
fr manécanterie

82

eskuila *(4)*
Zenbait perkusio-instrumentu jotzeko erabiltzen den tresna, kirten batean muturrean metalezko hari batzuk sartuta dauzkana. Eskuarki, binaka erabiltzen dira. Kaxa eta bateriako gainerako instrumentuak jotzeko erabiltzen dira.
en brush
es escobilla
fr balai
☞ **mailu; makila; mazo**

eskusoinu
➥ **akordeoi**

eskusoinu diatoniko
➥ **akordeoi diatoniko**

eskusoinu kromatiko
➥ **akordeoi kromatiko**

eskusoinu txiki
➥ **trikiti**

83

espineta *(4)*
Hari pultsatuko tekla-instrumentua. Hari bakarra du nota bakoitzeko, eta hariek teklatuarekiko 45°-ko angelua osatzen dute. XVI-XVIII. mendeen bitartean erabili zen batez ere. Kaxa trapezoide-formakoa izaten zen hasieran, eta gero, XVII. mendearen erdialdean, hegats-formakoak egiten hasi ziren, behe-erregistroa hedatzeko. Klabezinaren ahaide txikia da.
en spinet
es espineta
fr épinette
☞ **birjinal; klabezin**

estudiantina
➥ **tuna**

84

eufonio *(4)*
Saxhornoen familiako baritonoa, bonbardinoa edo saxhorno baritonoa baino zertxobait handiagoa. Tutuaren ezaugarrien aldetik, bonbardinoak baino tutu konikoagoa du (tubaren antzekoagoa da). Si♭ instrumentua da.
en euphonium
es bombardino; eufonio
fr euphonium
☞ **bonbardino; saxhorno**

85

fagot *(4)*
sin. basoi *(4)*
Mihi bikoitzeko zurezko haize-instrumentua, baxuaren erregistrokoa. Zurezko tutu koniko luzea du, erdialdean tolestuta dagoena (ukondoa behean sortzen da). Ahokoa mihi bikoitza duen metalezko hoditxo mehe eta kurbatua da (*bokal* edo *tudel* izenekoa). Beheko erregistroa laugarren lerroko fa klabean idazten da, eta goikoa laugarren lerroko do klabean.
en bassoon
es fagot
fr basson
☞ **adar ingeles; kontrafagot; oboe**

fagotista
➥ **fagot-jotzaile**

86

fagot-jotzaile *(4)*
sin. basoi-jotzaile *(4)*; basonista *(4)*; fagotista *(4)*
Fagota edo basoia jotzen duen musikaria.
en bassoonist
es fagot; fagotista
fr bassoniste

87

falsetto *(4)*
Gizonezko-ahotsaren buru-ahotsarena baino goragoko erregistroa lortzeko teknika, ahots-korden ertzen bibrazio soilean oinarritua; horrela lortutako ahots-soinua, berezko hedadura gainditzen duena.
en falset voice; falsetto; falsetto voice
es falsete
fr fausset

88

fanfarre *(4)*
sin. klika *(4)*; txaranga *(4)*
Metalezko haize-instrumentuez osatutako musika-taldea, eskuarki perkusio-instrumentuak ere izaten dituena.

! Gaur egun, *txaranga* terminoak zurezko haize-instrumentuak ere badituen taldea adierazten du, batez ere herri-musikakoa (esaterako, herriko festetan kalez kale ibiltzen dena). *Klika* terminoa militarra da jatorriz.

en brass band
es charanga; fanfarria
fr clique; fanfare
☞ **banda**

89

fidula *(4)*
Erdi Aroko hari igurtziko instrumentu batzuen izen generikoa.

en fiddle
es fídula; vihuela de arco
fr fidula; vièle; vielle

90

flauta *(4)*
sin. txirula (4)
Zurezko haize-instrumentu mota, non airearen bibrazioa alaka edo ertz baterantz putz eginez sortzen baita. Ertz horren kontra jotzean, airearen parte bat tututik atera egiten da, eta beste parteak tutu barnetik jarraitzen du aurrera. Batzuetan, airea tutuaren barnetik iristen da ertz edo alaka moduko batera, hala nola flauta eztietan edo hiru zuloko flautetan (txistuan eta txirulan, esaterako). Beste batzuetan, instrumentuaren gainazalean dagoen zulo baten ertzerantz putz egiten da (adibidez, zeharkako flautetan). Soinualtuera desberdinak lortzeko, gehienetan zuloak erabiltzen dira, batzuetan hatzez zuzenean estaltzen direnak, bestetan giltzen laguntzaz; zenbaitetan, soinu hainbat tutu antolatzen dira (pan flauta).

en flute
es flauta
fr flûte
☞ **flauta ezti; zeharkako flauta**

91

flauta ezti *(4)*
sin. moko-txirula *(4)*; txirula ezti *(4)*
Ahokotzat *moko* izeneko pieza duten haize-instrumentuen familiako bakoitza. Mokoaren barneko hoditik airea alaka-moduko ertz baten kontra bideratzen da. Zuzenak dira, zurezkoak eta hainbat zulo izaten dituzte (eskuarki, zortzi, horietako bat azpialdean). Errenazimentukoek tutu zilindrikoa zuten, eta Barrokokoek, tutu konikoa (estutuz doana). Zenbait tamaina eta afinaziotakoak daude.

en recorder
es flauta de pico; flauta dulce
fr flûte à bec; flûte douce; flûte droite
☞ **flauta; zeharkako flauta**

92

flauta-jotzaile *(4)*
sin. flautista (4); txirulari (4)
Flauta jotzen duen musikaria.

en flautist; flutist
es flauta; flautista
fr flûtiste

flautista
➥ **flauta-jotzaile**

fliskorno
➥ **bugle**

folk gitarra
➥ **gitarra akustiko**

forte pedal
➥ **erresonantzia-pedal**

gaita
1 ➥ **xirolarru**
2 ➥ **dultzaina**

93

gaita-jotzaile *(4)*
Gaita edo xirolarrua jotzen duen musikaria.
en bagpiper
es gaitero
fr cormeuseur
☞ **dultzainero**

gaitero
➥ **dultzainero**

94

ganbera-orkestra *(4)*
Orkestra txikia, eskuarki 20-40 bitarteko musikari-kopurua izaten duena. XVII-XVIII. mendeetako musika da ganbera-orkestraren errepertorio-iturri nagusia, baina ez bakarra (XX. mendeko musikan ere erabili da). Hari-instrumentuak izaten dira oinarrizko osagaiak, eta zurezko haize-instrumentuak ere maiz agertzen dira; musika barrokoa jotzen denean, baxu jarraitua egiten duten instrumentuak ere gehitzen zaizkio (eskuarki, klabezina).
en chamber orchestra
es orquesta de cámara
fr orchestre de chambre

95

gezur *(4)*
sin. poto *(4)*
Jotzaileak nota jotzean huts egitea eta okerreko soinua sortzea.
es fallo; pifia

96

gider *(4)*
Zenbait hari-instrumentutan, erresonantzia-kaxari atxikia den pieza estu eta luzea. Giderraren buruan, larako-etxea dago, instrumentuaren harien mutu-rrak lotzeko. Gainaldean, diapasoi izeneko xafla-moduko pieza dauka itsatsita, eta haren gainetik tenkatzen dira hariak.
en neck
es mástil
fr manche
☞ **diapasoi; larako-etxe**

97

giltza *(4)*
1 Zenbait haize-instrumentutan (saxofoi, klarinete, oboe eta abarretan), zuloak ixteko edo irekitzeko mekanismoa. Hatzez eragiten zaion metalezko palanka-modukoa izaten da, eta helburu nagusia du instrumentistaren hatzen helmenean ez dauden zuloak edota zulo batzuk batera irekitzea eta ixtea.
en key
es llave
fr clé; clef

2 ➥ **tekla**

98

gitarra *(4)*
Hari pultsatuko instrumentua, gehienetan sei harikoa, gider koskaduna duena eta hatzez edo plektroz jo daitekeena. Ohiko afinazioa: mi_2-la_2-re_3-sol_3-si_3-mi_4. Oso erabilia da musika akademikoan zein herri-musikan, eta era askotakoa izan daiteke.
en guitar
es guitarra
fr guitare

99

gitarra akustiko *(4)*
1 Baliabide elektrikorik erabiltzen ez duten gitarren izendapen generikoa, *gitarra elektriko*tik bereizteko erabili ohi dena.
en acoustic guitar
es guitarra acústica
fr guitar acoustique

☞ **gitarra elektriko**

2 sin. folk gitarra *(4)*
Altzairuzko hariak dituen gitarra-mota. Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen XIX. mendearen amaieran, eta herri-musikan erabiltzen da.
en country guitar; folk guitar; steel-string guitar
es guitarra acústica
fr guitare folk

100

gitarra barroko *(4)*
Gitarra klasikoaren aitzindari den gitarra-mota, XVII. mendeaz gero bihuela eta lautea ordezkatzen hasi zena. Gitarra klasikoa baino txikixeagoa da, eta hasieran 5 hari bikoitz zituen (gerora, XVIII. mendearen amaieran, 6. haria jarri zen, eta hari bakunak erabiltzen hasi ziren). Baxu jarraitua jotzeko instrumentua da.
en baroque guitar
es guitarra barroca
fr guitare baroque
☞ **gitarra klasiko**

gitarra baxu
➥ **baxu elektriko**

101

gitarra elektriko *(4)*
Harien bibrazioak jasotzeko eta entzunarazteko baliabide elektronikoak darabiltzan gitarra-mota. Harien bibrazioa hargailuek jasotzen dute eta kable bidez kanpo-anplifikadorera bideratzen dira, hortik seinalea bozgorailura bidaltzeko. Hariak altzairuzkoak izaten dira. Erresonantzia-kaxa edo gorputz trinkoa izan dezake. Eskuarki, plektroz jotzen da.
en electric guitar
es guitarra eléctrica
fr guitare électrique

gitarra espainol
➥ **gitarra klasiko**

102

gitarra klasiko *(4)*
sin. gitarra espainol *(4)*
Sei hariko gitarra-mota, hatzez jotzen dena, zurezkoa eta soinu-zulo biribil bakarra duena. Taula harmonikoa laua da, eta hondoa ere bai, edo zertxobait sabeldua. Diapasoian metalezko 19 koska edo traste ditu, eta larako-etxea mekanikoa da. Gaur egun, lehen hiru hariak nylonezkoak dira, eta beste hirurak bihurrikatuak. Afinazioa: mi_2-la_2-re_3-sol_3-si_3-mi_4. Sol klabean idazten da, soinu erreala baino zortzidun bat gorago. Gitarra-mota zabalduenetakoa da. Musika akademikoan eta herri-musikan erabiltzen da. Flamenkoa jotzeko erabiltzen den gitarra-mota oso antzekoa da, baina ezaugarri batzuk bereziak ditu (txikixeagoa eta arinagoa, soinu zoliagoa, kaxa eskuineko eskuaren hatz-puntez jotzeko babesa, zubitoaren erabilera...).
en classical guitar; Spanish guitar
es guitarra clásica; guitarra española
fr guitar acoustique; guitare classique; guitare espagnole

103

gitarra-jotzaile *(4)*
sin. gitarrista *(4)*
Gitarra jotzen duen musikaria.
en guitar player
es guitarrista
fr guitariste

gitarrista
➥ **gitarra-jotzaile**

104

gong *(4)*
Metalezko disko gutxi-asko ganbil batez osatutako perkusio-instrumentua, zintzilik dagoela mazo batez jotzen dena. Diskoaren ertza barnerantz tolestua izaten da (batzuetan, ontzi-itxura hartzeraino), eta erdian irtengune biribila du, intonazio jakineko soinua sortzeko.
en gong
es gong
fr gong
☞ **tam-tam**

gozagailu
➥ **afinagailu**

gozakaiztu
➥ **tonua galdu**

gozatu
➥ **tonuan jarri**

gozatzaile
➥ **afinatzaile**

gozatze
➥ **tonuan jartze**

105

güiro *(4)*
Azalean ildaskak egin zaizkion kui huts batez osatutako perkusio-instrumentua, ildasken gainetik makila batez marruskatuz jotzen dena. Musika latinoamerikarrean erabiltzen da.
en güiro
es güiro
fr güiro

106

haize-instrumentu *(4)*
Soinua tutu baten barneko airearen bibrazioaren bidez sortzen duen instrumentua. Aireari putz eginez edo mekanismo berezi batez bibrarazten zaio (organoan edo akordeoian, adibidez).
Putz eginez jotzen diren haize-instrumentuetan, bi talde bereizi ohi dira: metalezkoak (tronpeta, tronboia...) eta zurezkoak (klarinetea, saxofoia, flauta...).
! Metalezko eta zurezko haize-instrumentuen izendapena, jatorriz, instrumentuen gaiari edo materialari zegokion, baina bereizketa, berez, aireari bibrarazteko erari dagokio gaur egun: metalezkoetan, instrumentistaren ezpainek sortzen dute bibrazioa; zurezkoetan, berriz, instrumentuaren mihiak (klarinetea, saxofoia, oboea...) edo alaka edo ertz batek (flauta). Horregatik, saxofoia eta gaur egungo zeharkako flauta, metalez eginak izanagatik ere, zurezkoen taldeko haize-instrumentuak dira.
en wind instrument
es instrumento de viento
fr instrument à vent
☞ **aerofono**

haize-kaxa
➥ **sekretu**

107

hari *(4)*
Luzeraren aldean oso mehea den objektu elastikoa, bi euskarriren artean tenkatzen dena, eta pultsatuz, igurtziz edo kolpekatuz bibrarazten zaiona soinua sortzeko. Hariaren gaia naturala (hestea, zeta, metala...) edo sintetikoa izan daiteke (nylona). Hariak sortzen duen soinuaren maiztasuna luzeraren funtzioa da (luzeago, baxuago), eta lodiera ere luzeraren arabera handitu behar da. Soinu baxuak sortu behar dituzten hari batzuk bihurrikatuak dira (metalezko hari bat kiribilduta dago haien inguruan).
en string
es cuerda
fr corde
☞ **hari-instrumentu**

108

hari sinpatiko *(4)*
Instrumentuaren beste hari baten edo batzuen bibrazioen eraginez (erresonantziaz) bibratzen duen haria, instrumentistak pultsatzea, igurztea edo kolpekatzea behar ez duena. Esaterako, *viola d'amore*arenak.

en sympathetic string
es cuerda simpática
fr corde sympathique
☞ **viola d'amore**

109

hari-instrumentu *(4)*
Soinua bi puntu finkoren artean tenkatutako hari baten bibrazioaren bidez sortzen duen instrumentua. Hariari bibrarazteko erabiltzen den eraren arabera sailkatu ohi dira: a) haria hatzez, plektroz edo mekanismo batez pultsatzea (gitarra, harpa, klabezina...); b) haria arkuz igurztea (biolinaren familia); c) haria mailuz edo zotzez jotzea (pianoa, zitara...).

en string instrument; stringed instrument
es instrumento de cuerda
fr instrument à cordes
☞ **kordofono**

110

hari-laukote *(4)*
Lau hari-instrumentuz osatutako taldea, eskuarki bi biolinez, biolaz eta biolontxeloz osatua.

en string quartet
es cuarteto de cuerda
fr quatuor à cordes

111

hari-orkestra *(4)*
Biolinaren familiako instrumentuez osatutako orkestra. Hainbat tamainatakoa izan daiteke.

en string band; string orchestra
es orquesta de cuerda
fr orchestre à cordes
☞ **ganbera-orkestra; orkestra; orkestra sinfoniko**

harmonika
➥ **aho-soinu**

112

harmoniko *(4)*
Hari-instrumentuetan, hariaren oinarrizko bibrazioa puntu jakin batzuetan eragotziz sortzen den soinua. Puntu horiek harmonikoen bibrazioei dagozkien nodoak dira. Eskuarki, lehen eta bigarren harmonikoak erabiltzen dira (hariaren erdigunekoa eta herenekoa). Bibratzen ari den hariaren gainean hatza horietako puntu batean leun jarriz egin daiteke, edo hatza bertan dagoela hariari bibraraziz.

en harmonic; overtone
es armónico
fr harmonique
☞ **serie harmoniko**

113

harmonium *(4)*
Mihi libreko haize-instrumentu tekladuna. Pedalez eragiten zaion hauspoa du, eta teklak sakatzean, bultzatzen duen airea mihietarantz bideratzen da. Batik bat, areto txikietan erabiltzen da, organoaren ordezkotzat.

en harmonium
es armonio; armónium
fr harmonium

114

harpa *(4)*
Zenbait hari-instrumenturen izendapen generikoa, ezaugarritzat hariak eta erresonantzia-kaxa elkarzut izatea dutenak. Bi eskuetako hatzez joten dira, harien alde banatatik. Harpa guztietan, luzera desberdineko hariak euskarri baten alde batetik bestera tenkatzen dira. Euskarria triangelu-formakoa izan daiteke (*bastidore-harpak*), angelu-formakoa (*harpa angeluarrak*) edo kurbatua (*arku-harpak*). Beheko aldean erresonantzia-kaxa egoten da. Harpak mundu zabaleko zenbait herri-musikatan erabiltzen dira. Musika barrokoan, harpa baxu jarraituko instrumentua da.
en harp
es arpa
fr harpe

115

harpa klasiko *(4)*
sin. kontzertu-harpa *(4)*
47 hari dituen bastidore-harpa diatonikoa. Pedal-sistema baten bidez, nota bakoitza (bi baxuenak izan ezik) bi tonuerdi igo daiteke.
en concert harp; double-action harp; orchestral harp
es arpa clásica; arpa de concierto; arpa de orquesta
fr harpe classique; harpe de concert

116

harpa-jotzaile *(4)*
sin. harpista *(4)*
Harpa jotzen duen musikaria.
en harp player; harpist
es arpista
fr harpiste

harpista
➥ **harpa-jotzaile**

117

hatz-joko *(4)*
Instrumentu bat jotzean, hatzak erabiltzeko modua.
en fingering
es digitación
fr doigté

118

helikoi *(4)*
Forma zirkularreko tuba baxua, gorputzaren inguruan eta ezkerreko sorbaldan bermatua dagoela jotzen dena. Ibilian edo zaldiz jotzeko diseinatua da. Banda militarretan eta fanfarreetan erabiltzen da batez ere.
en helicon
es *helicón*
fr hélicon
☞ **sousafoi; tuba**

119

hirukote *(4)*
Hiru musikariz osatutako taldea.
en trio
es trío
fr trio
☞ **trio**

hodi ezpaindun
➥ **tutu ezpaindun**

hodi itxi
➥ **tutu itxi**

hodi koniko
➥ **tutu koniko**

hodi mihidun
➥ **tutu mihidun**

hodi zilindriko
➥ **tutu zilindriko**

hodi-kanpaiak
➥ **tutu-kanpaiak**

120
idiofono *(4)*
sin. instrumentu idiofono *(4)*
Soinua bere materialaren beraren bibrazioz sortzen duen instrumentua, hari, mintz eta aire-zutaberik gabea. Instrumentuak bibrarazteko eraren arabera sailkatu ohi dira (perkusio-idiofonoak, pultsatze-idiofonoak, eta igurzte- edo frikzio-idiofonoak).
en idiophone; idiophonic instrument
es idiófono; instrumento idiófono
fr idiophone; instrument idiophone
☞ **perkusio-instrumentu**

121
ihes *(4)*
Pianoaren mekanismoaren partea, mailua, haria jo ondoren, jatorrizko posiziora arin itzularazten duena. *Ihes bikoitz* izeneko sistemaren bidez, nota bera azkar errepika daiteke, tekla guztiz altxatu gabe ere.
en escapement
es escape
fr échappement

122
instrumentista *(4)*
sin. jotzaile *(4)*
Instrumentu bat jotzen duen musikaria.

! *jotzaile* hitza instrumentu-hitzari loturik erabiltzen da (*piano-jotzaile, tronboi-jotzaile...*).
en instrumentalist
es instrumentista
fr instrumentiste

123
instrumentu *(4)*
sin. musika-instrumentu (4); musika-tresna (4)
Musika-soinuak sortzen dituen tresna. Instrumentuak aztertzen eta sailkatzen dituen jakintza organologia da; haren araberako sailkapen erabilienean (Hornbostel-Sachs), bibratzen duen materia da sailkatze-irizpidea: idiofonoak, menbrabofonoak, aerofonoak eta kordofonoak (gerora, elektrofonoak gehitu zaizkio sailkapen horri). Dena den, tradiziozko sailkapena ere erabiltzen da gaur egun: hari-instrumentuak, haize-instrumentuak, perkusio-instrumentuak eta instrumentu elektronikoak.

! Zenbaitetan, ahotsa ere instrumentutzat hartzen da, baina, dena den, *ahots/instrumentu* bereizketa indarrean dago hainbat alorretan (ahots-musika/instrumentu-musika).
en instrument; musical instrument
es instrumento; instrumento musical
fr instrument; instrument musical
☞ **aerofono; elektrofono; haize-instrumentu; hari-instrumentu; idiofono; kordofono; menbranofono; perkusio-instrumentu**

instrumentu aerofono
➥ **aerofono**

124
instrumentu akustiko *(4)*
Soinua baliabide mekaniko edo fisiko hutsez sortzen duen instrumentua, *elektrofono*ri kontrajarria. Terminoa musika modernoaren testuinguruan erabiltzen da batez ere, instrumentu elektriko eta elektronikoetatik bereizteko.
en acoustic instrument; acoustical instrument
es instrumento acústico
fr instrument acoustique
☞ **elektrofono**

125

instrumentu diatoniko *(4)*
Tonalitate bateko edo batzuetako eskala diatonikoko notak soilik jotzen dituen instrumentua. Esaterako, akordeoi diatonikoa edo harmonika diatonikoa.
en diatonic instrument
es instrumento diatónico
fr instrument diatonique
☞ **instrumentu kromatiko**

instrumentu elektroniko
➥ **elektrofono**

instrumentu idiofono
➥ **idiofono**

instrumentu kordofono
➥ **kordofono**

126

instrumentu kromatiko *(4)*
Eskala kromatikoko hamabi notak jo ditzakeen instrumentua.
en chromatic instrument
es instrumento cromático
fr instrument chromatique
☞ **instrumentu diatoniko**

instrumentu menbranofono
➥ **menbranofono**

127

instrumentu-talde *(4)*
Instrumentistaz osatutako musikari-taldea.
en instrumental ensemble
es conjunto instrumental
fr ensemble instrumental
☞ **ahots-talde**

128

interpretatzaile *(4)*
Musika-obra bat, eskuarki aurrez finkatua edo idatzia dena, kantuaren edo instrumentuaren bidez gauzatzen duen musikaria, idatzitakoari dagozkion musika-soinuen bidez gauzatzen duena. Egilearen eta entzulearen arteko bitartekaria da.
en performer
es intérprete
fr interprète
☞ **interpretazio**

129

intonazio *(4)*
sin. afinazio *(3)*
Soinu edo nota baten altuera behar den doitasunez jotzea edo kantatzea.
en intonation
es afinación; entonación
fr intonation; justesse

130

intonazio zehatzeko perkusio-instrumentu *(4)*
Maiztasun edo altuera jakineko soinua sortzen duen perkusio-instrumentua. Funtzio melodikoa edo harmonikoa izan dezakete. Esaterako, tinbalak, marinba, xilofonoa eta zelesta.
en definite pitch percussion instrument; tuned percussion instrument
es instrumento de percusión afinado; instrumento de percusión de afinación determinada; instrumento de percusión de altura determinada
fr instrument à percussion accordé
☞ **perkusio-instrumentu**

131

intonazio zehaztugabeko perkusio-instrumentu *(4)*

Maiztasun edo altuera jakineko soinua sortzen ez duen perkusio-instrumentua. Esaterako, danborrak, txindatak, klabea, marakak, eta kaskainetak.

en untuned percussion instrument
es instrumento de percusión de afinación indeterminada; instrumento de percusión de altura indeterminada; instrumento de percusión no afinado
fr instrument de percussion non accordé
☞ **perkusio-instrumentu**

132

irristailu *(4)*

Metalen taldeko zenbait haize-instrumentutan, tutu nagusiaren luzera aldatzeko aukera ematen duen U-formako tutu mugikorra. Irristailuaren adar paraleloak instrumentuaren bi tutuadar paraleloetan ahokatzen dira. Tronboian, instrumentua kromatikoa izatea da helburua, eta irristailua aurrera eta atzera mugituz jotzen dira notak. Beste batzuk afinazio-irristailuak dira (tronpetan, esaterako).

en slide
es vara
fr coulisse
☞ **irristailu-tronboi**

133

irristailu-tronboi *(4)*

sin. tronboi irristailudun *(4)*

Soinuaren altuera aldatzeko irristailu-sistema darabilen tronboi-mota. Irristailua aurrera eta atzera mugituz, instrumentuaren tutu osoaren luzera aldatzen da, eta eskala kromatikoko notak jo daitezke (berez, soinu guztiak jo daitezke). Irristailuak zazpi posizio ditu.

en slide trombone
es trombón de varas
fr trombone à coulisse
☞ **irristailu; pistoi-tronboi; posizio**

isats handiko piano
➥ **kontzertu-piano**

isats-erdiko piano
➥ **kaxa-erdiko piano**

isats-piano
➥ **piano horizontal**

134

isilgailu *(4)*

Zenbait teklatu-instrumenturen mekanismoan, hariari bibratzea eragozten dion pieza. Pianoan, tekla sakatu gabe dagoenean hariaren kontra dagoen feltroz estalitako pieza txikia da. Tekla sakatzean edo erresonantzia-pedalari sakatzen zaionean, isilgailua goratuta dago, haria ukitzeari utzi eta bibratzen uzten dio. Klabezinean, plektroaren zurezko pieza berean, plektroaren gainean hain zuzen, dagoen feltrozko puska da.

en damper
es apagador
fr étouffoir

jack
➥ **jack konektore**

135

jack konektore *(4)*

sin. jack *(4)*

Audio-aplikazioetan ohikoa den konektore-mota, itxura zilindriko eta luzexka duena. Hainbat era eta tamainatakoak daude, aplikazioaren arabera.

en audio jack; jack; TRS connector
es conector jack; jack
fr connecteur jack; jack

136

jo *(4)*

1 Instrumentua erabiliz, soinua sortu, instrumentuari soinua atera.

en play
es tocar
fr jouer

2 Musika-elementu bati buruz (nota, akordea, arpegioa, frasea, pasartea...), instrumentua(k) erabiliz gauzatu, hura osatzen duten soinuak sortu.

en perform; play
es ejecutar; tocar
fr exécuter; jouer

☞ **interpretazio**

jotzaile

➥ **instrumentista**

137

kanpai *(4)*

Metalezko perkusio-instrumentua, iraulitako kopa baten forma duena. Mailuz jotzen da.

en bell
es campana
fr cloche

☞ **tutu-kanpaiak**

138

kaskabilo *(4)*

sin. txintxarri *(3)*; txirrin *(3)*

Barnetik hutsa eta zuloduna den metalezko bola, barruan metal-zatitxo bat izaten duena eta astintzean hotsa egiten duena. Herri-dantzetan erabiltzen dira (besoan edo orkatilan lotzen den larruzko zerrenda batean), edo, orkestrako instrumentu gisa, euskarri kirtendun batean antolatuta.

en crotal; pellet bell
es cascabel
fr grelot

139

kaskainetak *(4)*

sin. kriskitinak *(4)*

Perkusio-instrumentua, lokarri batez loturiko zurezko edo bolizko bi pieza ahurrez eratua. Esku-ahurrean hartu eta bata bestearen kontra kolpekatuz jotzen dira.

en castanet
es castañuelas
fr castagnettes

140

kaxa *(4)*

1 Danbor zapala, azpialdeko azalean pordoiak dituena. Instrumentu modernoan, pordoiak azalaren kontra jartzeko eta altxatzeko mekanismoa izaten da. Banda, orkestra eta bateriako instrumentua da, besteak beste.

en side drum; snare drum
es caja; caja clara
fr caisse claire

2 ➥ **erresonantzia-kaxa**

kaxa handiko piano

➥ **kontzertu-piano**

141

kaxa txinatar *(4)*

Perkusio-instrumentua, barnean hutsunea duen zurezko kaxa laukizuzen batez osatua. Makilaz kolpekatuta jotzen da.

en Chinese block; wood block
es caja china
fr bloc de bois; caisse chinoise

142

kaxa-erdiko piano *(4)*

sin. isats-erdiko piano (3)

Gutxi gorabehera 1,5 metro inguru luze den piano horizontala.

en baby grand piano
es piano de media cola
fr piano demi-queue

☞ **kontzertu-piano; piano horizontal**

143

kena *(4)*
Hego Amerikako flauta-mota, gainaldean 5-6 zulo eta azpialdean zulo bat dituena. Soinua sortzeko, hodiaren goialdean dagoen U-formako koska baten kontra egiten da putz. Andeetako herri-musikan erabiltzen da (Peru, Bolivia...).
en quena
es quena
fr kena; quena

klabe
➥ **klabezin**

144

klabeak *(4)*
Zurezko bi zilindro txikiz osatutako perkusio-instrumentua. Bata eskuan hartzen da, hutsune bat utziz haren eta ahurraren artean hutsuneak erresonatzaile-lana egin dezan), eta besteaz jotzen da. Musika afrokubatarrean erabiltzen dira batik bat.
en claves
es claves
fr claves

145

klabezin *(4)*
sin. klabe *(4)*; klabizenbalo *(4)*
Hari pultsatuko tekla-instrumentua, XVII-XVIII. mendeetako musika europarrean oso erabilia. Bi hari edo gehiago ditu notako. Teklatu bat baino gehiago izan dezake (eskuarki bi), eta kaxa hegats-formakoa du. Tekla sakatzen denean, hortza duen zutikako pieza bat gorantz mugitzen da, eta hortzak haria pultsatzen du. Hortza lumazko plektroa da. Tekla askatzean, pieza jaitsi egiten da, eta hortzaren gainean dagoen isilgailua hariaren gainean kokatzen da, hasieran zegoen eran, eta soinua isildu egiten du. Instrumentu solistatzat zein baxu jarraitutzat erabili zen. XIX. mendean desagertu zen, eta XX. mendean berreskuratu egin zen.
en harpsichord
es clave; clavecín; clavicémbalo
fr clavecin
☞ **birjinal; espineta; klabikordio; piano**

klabezinista
➥ **klabezin-jotzaile**

146

klabezin-jotzaile *(4)*
sin. klabezinista *(4)*
Klabezina jotzen duen musikaria.
en claveciniste; harpsichord-player
es *clavecinista*
fr claveciniste

klabier
➥ **teklatu**

147

klabikordio *(4)*
Hari kolpekatuko tekla-instrumentua. Tekla sakatzean, *ukitzaile* edo *tangente* izeneko metalezko pieza igoarazten da. Pieza horrek haria jo, eta jotze-puntuaren eta zubiaren arteko hari-zatiari bibrarazten dio; isilgailu batek eragozten dio bibratzea jotze-puntutik beste alderako hari-zatiari, eta, tekla askatzen denean, hari osoari. Soinuaren altuera, beraz, haria zubitik jotzen den distantziaren araberakoa da, eta hari bera erabil daiteke nota desberdinak jotzeko. Bestetik, tekla jotzeko indarraren arabera, soinuaren intentsitatea aldatu egiten da (klabezinean ez bezala). XVI-XIX. mendeetan erabili zen batez ere, eta gerora pianoa gailendu zitzaion.

en clavichord
es clavicordio
fr clavicorde
☞ **klabezin; piano**

klabizenbalo
➥ **klabezin**

148
klarinete *(4)*
Mihi bakuneko zurezko haize-instrumentua, tutu zilindrikoa eta giltzak dituena. Hainbat tamaina eta afinaziotakoak daude; horietatik arruntenak dira sopraninoa edo errekintoa (eskuarki, mi♭-ekoa), sopranoa (si♭) eta baxua (si♭). Transposizio-instrumentuak dira. Orkestra-instrumentua da, eta oso erabilia bandan eta jazz-musikan.
en clarinet
es clarinete
fr clarinette

149
klarinete sopranino *(4)*
sin. errekinto *(4)*
Klarinetearen familiako goren erregistroko instrumentua.
en sopranino clarinet
es requinto
fr clarinette sopranino; petite clarinette
☞ **klarinete**

150
klarinete-jotzaile *(4)*
sin. klarinetista *(4)*
Klarinetea jotzen duen musikaria.
en clarinetist
es clarinetista
fr clarinettiste

klarinetista
➥ **klarinete-jotzaile**

klika
➥ **fanfarre**

kobre
➥ **metalezko haize-instrumentu**

151
koloratura *(4)*
Ahots-musikan, oinarrizko melodia apaindura-notaz, eskalaz edo arpegioz apaintzea.
en coloratura
es coloratura
fr colorature

152
koloratura-soprano *(4)*
Arintasun handiko soprano-ahotsa, koloraturaren ezaugarri diren apaindura eta arpegioetan trebetasun handikoa dena.
en coloratura soprano
es soprano de coloratura
fr colorature
☞ **soprano**

kontrabaxista
➥ **kontrabaxu-jotzaile**

153
kontrabaxu *(4)*
1 Zenbait instrumentu-familiatan, erregistro beherenekoa.
en contrabass
es contrabajo
fr contrebasse

2 Hari igurtziko arku-instrumentua, biolinen familiako laugarrena eta erregistro beherenekoa. Familiako gainerako kideak ez bezala, harien artean laudunak daudela afinatzen da (mi_0-la_0-re_1-sol_1). Instrumentu batzuek bosgarren haria izaten dute, do_0 tonuan. Laugarren lerroko fa klabean idazten da, soinu erreala baino zortzidun bat gorago. Musikaria zutik edo aulki hankaluze batean eserita dagoela jotzen da, behealdea hagatxo batez

lurrean bermatuz. Jazzean eta hainbat herri-musikatan, arruntagoa da hatzez (*pizzicato*) jotzea arkuz baino.

en acoustic bass; double bass; string bass; upright bass
es contrabajo
fr contrebasse
☞ **biolin**

154

kontrabaxu-jotzaile *(4)*
sin. kontrabaxista *(4)*
Kontrabaxua jotzen duen musikaria.

en double bass player
es contrabajista; contrabajo
fr contrebassiste

155

kontrafagot *(4)*
Mihi bikoitzeko zurezko haize-instrumentua, kontrabaxuaren erregistrokoa. Tutu koniko luzea du, bi aldiz tolestua, eta, jotzeko, lurrean bermatzen da hagatxo batez. Fagotak baino zortzidun bat beheragoko erregistroa du, eta soinu erreala baino zortzidun bat gorago idazten da. Orkestrako soinu beherenak sortzen dituen instrumentuetako bat da.

en contrabassoon
es contrafagot
fr contrebasson
☞ **fagot; oboe**

156

kontralto *(4)*
sin. altu *(4)*
Emakumezkoen ahotsetan baxuena; ahots hori duen kantaria.

en alto; contralto
es alto; contralto
fr alto; contralto

157

kontratenor *(4)*
Tenorrarena baino goragoko erregistroa duen gizonezko-ahotsa, kontraltoari edo mezzosopranoari dagokiona, eta eskuarki *falsetto* teknikaren bidez lortzen dena, eta batzuetan buru-ahotsaren bidez ere bai; ahots hori duen kantaria.

en countertenor
es contratenor
fr haut-contre
☞ **tenor**

158

kontsola *(4)*
1 Harpan, harien tentsioa doitzeko larakoak dauden atala.

en neck
es consola
fr console
☞ **larako**

2 Organoan, instrumentistak darabiltzan aginte guztiak biltzen dituen altzaria (teklatuak, pedalierra eta erregistroen kontrolak).

en console
es consola
fr console

159

kontzertina *(4)*
Akordeoiaren familiako instrumentua, hauspoaren heldulekuak botoidunak eta eskuarki hexagono-formakoak dituena. Kontzertina diatonikoak eta kromatikoak daude. Herri-musikan erabiltzen da.

en concertina
es concertina
fr concertina
☞ **akordeoi; bandoneon**

160

kontzertista *(4)*
sin. kontzertu-emaile *(4)*
Kontzertu batean bakarlaritzat jotzen duen musikaria.
en concert artist; concert performer
es concertista
fr concertiste

161

kontzertu-areto *(4)*
Kontzertuak eta bestelako musika-emanaldiak egiteko berariaz prestatutako aretoa.
en concert hall
es sala de conciertos
fr salle de concerts

kontzertu-emaile
➥ **kontzertista**

kontzertu-harpa
➥ **harpa klasiko**

162

kontzertu-piano *(4)*
sin. isats handiko piano *(3)*; kaxa handiko piano *(3)*
Piano horizontal luzea, 2,80 metro inguru luze izaten dena. Kontzertu eta errezitaletan erabili ohi den piano-mota da.
en concert grand; concert grand piano
es piano de concierto; piano de gran cola
fr piano de concert; piano grande queue
☞ **kaxa-erdiko piano; piano horizontal**

163

kordofono *(4)*
sin. instrumentu kordofono *(4)*
Soinua harien bibrazioz sortzen duen instrumentua. Ohiko hari-instrumentuez gain (biolina, gitarra, lautea, harpa, zitara...), zenbait tekla-instrumentu ere sail honetakoak dira (pianoa).
en chordophone; chordophone instrument
es cordófono; instrumento cordófono
fr cordophone; instrument cordophone
☞ **hari-instrumentu**

164

korneta *(4)*
1 Zurezko, bolizko edo metalezko antzinako instrumentu-familiaren izen generikoa, katilu-formako ahoko pieza eta sei zulo zituena (zortziduneko soinuak lortzeko, hatzak banan-banan altxatu behar dira, eta ondorengo zortziduna posizio berak erabiliz, baina indar handiagoz putz eginez lortzen da); delako familiako instrumentu sopranoa.
en cornett
es corneta; corneto
fr cornet à bouquin

2 ➥ **pistoi-korneta**

165

korneta-jotzaile *(4)*
Korneta jotzen duen musikaria.
en cornet player
es corneta; cornetista
fr cornettiste

166

koru *(4)*
1 sin. abesbatza *(4)*
Kantari-taldea, ahotsetarako konposizioak zein konposizioen ahotsetarako parteak kantatzen dituena.
en choir; choral group; chorus
es coro; masa coral
fr choeur

2 ➥ **ordena**

167

koska *(4)*
sin. traste *(3)*
Zenbait hari-instrumenturen diapasoian zeharka kokatuta dauden irtenune meheetako bakoitza. Halako nota jotzeko haria non zapaldu behar den mugatzen dute (bi koska jakinen artean), eta intonazioa errazten dute. Mendebaldeko instrumentu klasikoetan, finkoak izaten dira, eta koska-tartea tonuerdiari dagokio. Koskadunak dira, esaterako, lautea, gitarra eta *viola da gamba*ren familiakoak.
en fret
es traste
fr frette; touchette
☞ **diapasoi; gider**

kriskitinak
➥ **kaskainetak**

168

krotaloak *(4)*
Metalezko bi disko txikiz osatutako perkusio-instrumentua, bata bestearen kontra kolpekatuz eta bibratzen utziz jotzen dena. Intonazio jakineko instrumentua da, eta armazoi batean antola daitezke, instrumentu kromatikoa osatzeko.
en antique cymbals; crotales
es crótalos
fr crotales
☞ **txindata**

169

lagingailu *(4)*
sin. sampler *(4)*
Soinua sortzeko lehengaitzat soinuen lagin digitalak erabiltzen dituen instrumentu elektronikoa. Soinuak hutsetik sintesi bidez sortu beharrean, aukera ematen du soinu errealen uhin digitalizatuak biltegiratzeko eta hainbat parametroren arabera prozesatzeko. Instrumentu errealak berdintzeko erabil daiteke, edo soinu elektroniko berriak sortzeko. Hardware- edo software-instrumentua izan daiteke. Gaur egun, instrumentu polifonikoa eta multitinbrikoa da. Normalean, teklatu bat edo sekuentziadore bat erabiltzen da lagingailuaren soinuak entzunarazteko.
en sampler
es muestreador; sampler
fr échantillonneur
☞ **sintetizadore**

170

larako *(4)*
Hari-instrumentuetan, hariaren tentsioa eta, beraz, soinuaren altuera doitzeko erabiltzen den pieza birakaria.
en peg
es clavija
fr cheville

171

larako-etxe *(4)*
1 Hari-instrumentu giderdunetan (biolin, gitarra eta abarretan), harien tentsioa doitzeko larakoak dauden atala. Giderraren buruari atxikia izaten da.
en machine head; pegbox
es clavijero
fr chevillier

2 Pianoan, klabezinean eta kideko instrumentuetan, harien tentsioa doitzeko larakoak dituen zurezko pieza.
en pin block
es clavijero
fr sommier

172

laukote *(4)*
Lau musikariz osatutako taldea.
en quartet
es cuarteto
fr quatuor
☞ **kuarteto**

173

laute *(4)*
1 Hari pultsatuko instrumentu batzuen izen generikoa; ezaugarri nagusiak dira madari-formako erresonantzia-kaxa eta hondo sabeldua izatea. Laute-mota nagusiak: a) laute arabiarra edo *uda* (gainerako lauteen jatorria dena); eta b) laute europarra (errenazentista eta barrokoa).
en lute
es laúd
fr luth

2 sin. laute europar *(4)*
Errenazimentu eta barrokoaren garaiko hari pultsatuko instrumentua. Erresonantzia-kaxak madari-erdiaren itxura du eta atzetik sabelduna da. Larako-etxeak atzeranzko angelu nabaria osatzen du giderrarekin. Laute arabiarra edo *uda* ez bezala, hatzez jotzen da eta koskak ditu, eta, horren ondorioz, funtzio harmonikoa bete dezake. Oso erabilia izan zen Europan XVI-XVII. mendeetan (Errenazimentuan, musika europarraren instrumentu nagusia izan zen). Era eta tamaina askotakoak daude, hari-kopurua aldatu egiten da, eta harien tonuak ere bai. Dena den, laute errenazentistak 6 hari zituen, beheko bostak bikoitzak, eta harien tonuak ereduaren araberakoak izaten ziren: sol_0sol_1-do_1do_2-fa_2fa_2-la_2la_2-re_3re_3-sol_3 (*viel ton*). XVII. mendetik aurrera, tonuereduak ugaritu egin ziren.
en lute; western lute
es laúd; laúd europeo
fr luth; luth européen; luth occidental

laute europar
➥ **laute**

174

laute-jotzaile *(4)*
Lautea jotzen duen musikaria.
en lute-player; lutenist
es lautista
fr luthiste

175

lira *(4)*
Hari pultsatuko instrumentua, euskarri batean tenkatutako zenbait hariz osatua. Euskarriaren oinarrian erresonantzia-kaxa dago, eta kaxa horren muturretatik bi beso paralelo irteten dira. Besoen muturrak lotzen dituen zeharkako piezaren eta kaxaren artean tenkatzen dira hariak. Antzinako Grezian eta Erroman, plektroz jotzen zen.
en lyre
es lira
fr lyre

176

luthier *(4)*
Hari-instrumentu giderdunak egiten edo konpontzen dituen pertsona.

! *luthier* hitzak, jatorriz, laute-egilea adierazten zuen (frantsesezko *luth*-etik dator), baina bestelako hari-instrumentu giderdunak, batik bat biolinaren familiakoak, egiten dituena ere bada.
en luthier
es luthier; lutier
fr luthier

177

mailu *(4)*

1 Hainbat perkusio-instrumentu kolpekatuz jotzeko erabiltzen den buru gogorreko tresna. Esaterako, kanpaiak jotzeko erabiltzen direnak.

en hammer
es martillo
fr marteau

☞ **makila; mazo**

2 Pianoaren mekanismoan, tekla sakatzean hariak jotzen dituen pieza, feltrozko burua duena.

en hammer
es macillo; martillo
fr marteau

☞ **pieza**

3 Hari kolpekatuko zenbait instrumentu jotzeko erabiltzen den metalezko haga. Binaka erabiltzen dira; esaterako, tinpanoa edo zinbaloa jotzeko erabiltzen direnak.

en hammer
es macillo
fr marteau

☞ **tinpano; zinbalo**

178

makila *(4)*

sin. ziri *(3)*; zotz *(3)*

Zenbait perkusio-instrumentu jotzeko erabiltzen den tresna, zurezko pieza mehe, luze, zilindriko eta buruduna dena. Burua makilaren gorputzarena baino diametro txikiagokoa eta bertan landua izaten da, baina batzuetan material plastikoz estalia izan daiteke. Eskuarki, binaka erabiltzen dira. Esaterako, danborrak jotzeko erabiltzen direnak.

en drumstick; stick
es baqueta; palillo
fr baguette

☞ **baketa; mailu; mazo**

179

mandolina *(4)*

Hari pultsatuko instrumentua, madariformako erresonantzia-kaxa sabelduna eta gider laburra dituena. Hasieran, 4-6 bitarteko hari bikoitz izaten zituen; gaur egun, arruntena 4 hari bikoitzekoa da, koskak edo trasteak ditu eta plektroz jotzen da. Musika akademikoan eta herri-musikan erabiltzen da.

en mandolin
es mandolina
fr mandoline

180

manual *(4)*

Zenbait teklatu-instrumentutan, eskuz erabiltzen den teklatua. Batez ere, organoan erabiltzen da terminoa, oinez eragiten zaion pedalierretik bereizteko.

en manual
es manual
fr manuel

☞ **teklatu**

181

maraka *(4)*

Astinduz jotzen den perkusio-instrumentua, barnean aleak edo harritxoak dituen gorputz huts batez (eskuarki, kuia-azalez) eta euskarri batez osatua. Binaka erabili ohi dira.

en maraca
es maraca
fr maraca

182

marinba *(4)*

Intonazio jakineko perkusio-instrumentua, neurri desberdineko zurezko oholtxo laukizuzenez osatua, eta haien azpian erresonantzia-tutu bana duena (kuiak, banbuak edo metalezko tutuak). Xilofonoaren kidea da, eta jatorriz afrikarra da (*balafon*).

en marimba
es marimba
fr marimba
☞ **bibrafono; xilofono**

183

mazo *(4)*
Zenbait perkusio-instrumentu kolpekatuz jotzeko erabiltzen den tresna, mutur batean material bigunezko buru handia duen makila dena. Esaterako, dunbala edo tam-tama jotzekoa.
en mallet
es maza; mazo
fr mailloche
☞ **baketa; mailu; makila**

184

mekanismo *(4)*
Teklatu-instrumentuetan (pianoan, organoan...), tekla sakatzean dagokion hariak edo hodiak soinua egitea eragiten duen pieza-multzoa.
en action
es mecanismo
fr mécanique

185

menbranofono *(4)*
sin. instrumentu menbranofono *(4)*
Soinua mintz baten bibrazioz sortzen duen instrumentua. Mintza animalia-larru tenkatua izaten da, baina instrumentu modernoetan material sintetikoz eginak ere izaten dira. Menbranofono gehienak danborren familiako perkusio-instrumentuak dira.
en membranophone; membranophone instrument
es instrumento membranófono; membranófono
fr instrument membranophone; membranophone
☞ **perkusio-instrumentu**

metal
➥ **metalezko haize-instrumentu**

186

metalezko haize-instrumentu *(4)*
sin. kobre *(4)*; metal *(4)*
Haize-instrumentu mota, non instrumentistaren ezpainek bibrarazten baitiote aireari; horretarako, ezpainetan bermatzen den ahoko pieza berezi bat erabiltzen da. Metalen taldekoak dira, adibidez, tronpeta, tronboia, tuba eta tronpa. Aire-zutabearen presioaren arabera, serie harmonikoaren soinuak jotzen dira. Eskala kromatikoko notak jo ahal izateko, tutuaren luzera aldatzea lortu behar da; horretarako, pistoi-sistema erabiltzen da batzuetan (airea hodi nagusitik aterarazi eta aireari luzera handiagoko bidea eginarazteko), edo irristailu-sistema beste batzuetan (hodi nagusiaren beraren luzera aldatzeko; irristailu-tronboian, adibidez).
en brass; brass instrument
es cobre; instrumento de metal; instrumento de viento metal; metal
fr cuivre; instrument à vent famille métal; instrument en métal
☞ **haize-instrumentu; zurezko haize-instrumentu**

187

mezzosoprano *(4)*
Emakumezkoaren ahotsa, soprano eta kontraltoaren artekoa; ahots hori duen emakumezkoa.
en mezzo soprano; mezzo-soprano
es mezzo-soprano; mezzosoprano
fr mezzo-soprano; mezzosoprano
☞ **kontralto; soprano**



Mezzosoprano-ahotsaren hedadura

MIDI
➥ **MIDI protokolo**

MIDI arau
➥ **MIDI protokolo**

MIDI estandar
➥ **MIDI protokolo**

188
MIDI interfaze *(4)*
MIDI instrumentuak edo bestelako gailuak konputagailuarekin komunikatu ahal izateko erabiltzen duen gailua. MIDI mezuak jasotzen ditu (esaterako, instrumentuetan jotako notak software-sekuentziadorean grabatzeko), eta bidaltzen ditu (sekuentziadorean grabatutako MIDI datuak instrumentuak jo ditzan).
en MIDI interface
es interfaz MIDI
fr interface MIDI

189
MIDI protokolo *(4)*
sin. MIDI *(4)*; MIDI arau *(4)*; MIDI estandar *(4)*
Musika-instrumentu elektronikoen, konputagailuen edo beste zenbait gailu elektronikoren arteko komunikazioa bideratzeko estandarra. MIDI bidez, sintetizadoreak, lagingailuak, erritmo-kutxak, soinu-txartelak, sekuentziadoreak, efektu-unitateak, ordenagailuak, eta abar konekta daitezke. MIDI bidez ez da soinu-uhinik transmititzen, soinuak jotzeko zenbakizko informazioa baizik.
en MIDI; MIDI protocol; MIDI standard; musical instrument digital interface
es estándar MIDI; MIDI; norma MIDI; protocolo MIDI
fr MIDI; norme MIDI; protocole MIDI; standard MIDI

☞ **MIDI interfaze**

190
mihi *(4)*
Zenbait haize-instrumentutan erabiltzen den xafla mehea, gutxi-asko elastikoa, bibratzean soinua sortzen duena. Mutur bat finkatua du, eta bestea airekorrontearen eraginez bibratzen da. Instrumentu batzuek mihi bakarra dute (klarinetea, saxofoia), beste batzuek bikoitza edo *pita* (oboea, dultzaina...). Lehenengoetan, mihiak ahoko piezaren kontra bibratzen du; besteetan, batak bestearen kontra. Horrelakoak kanaberazkoak izaten dira. Badira *mihi libreak* dituzten instrumentuak ere (harmoniuma, akordeoia, harmonika...); mihia metalezkoa izaten da horrelakoetan.
en reed
es caña; lengüeta
fr anche

mihi bikoitz
➥ **pita**

191
mihi-kolpe *(4)*
Haize-instrumentuetan, mihia erabiltzeko modua eta teknika. Batez ere, notei ekiteko eta artikulatzeko moduaren arabera, mihia erabiltzeko moduetako bakoitza.
en tonguing
es golpe de lengua
fr coup de langue

192
mikrofono *(4)*
Jasotzen dituen soinu-uhinak korronte elektriko bihurtzen dituen tresna. Sortzen duen seinale elektrikoa anplifikadore batera edo grabazio-sistema batera bideratu ohi da.
en microphone
es micrófono
fr microphone

moko-txirula

➥ **flauta ezti**

193

monokordio *(4)*

Antzinako zitara-moduko instrumentua, hari bakarra eta erresonantzia-kaxa laukizuzena dituena. Grekoek akustikaren oinarrizko legeak ikertzeko erabili zuten. Erdi Aroan ere erabili zen, batez ere musikaren teorian, kantariak trebatzeko eta instrumentuak tonuan jartzeko.

en monochord
es monocordio
fr *monocorde*

194

musette *(4)*

Xirolarru txikia, hauspoduna eta 4-6 pordoi-tutu dituena, Frantzian XVII-XVIII. mendeetan gorte-instrumentua izan zena. Apaindura handiz egina izaten da.

en musette
es mussette
fr musette

musika-instrumentu

➥ **instrumentu**

musika-tresna

➥ **instrumentu**

195

musu-gitarra *(4)*

Euskarri batez eta bertan mutur bat finkatua duen mihi batez osatutako instrumentua. Mihiari hatzez pultsatuz bibrarazten zaio, eta aho-barrunbean erresonantzia eginez sortzen da soinua. Herri-musikan erabiltzen da. Ia beti, euskarria eta mihia metalezkoak izaten dira.

en Jew's harp
es guimbarda
fr guimbarde

196

nahaste-mahai *(4)*

Soinu-iturri batzuetako seinaleak konbinatzeko eta moldatzeko tresna (bolumena, ekualizazioa...).

en mixer; mixing console
es mesa de mezclas
fr console de mixage

197

oboe *(4)*

Zurezko haize-instrumentua, tutu konikoa eta mihi bikoitza duena. Do instrumentua da. Orkestran, oboearen la nota erabili ohi da gainerako instrumentuak tonuan jartzeko.

en oboe
es oboe
fr hautbois

☞ **adar ingeles; fagot**

198

oboe-jotzaile *(4)*

Oboea jotzen duen musikaria.

en oboe player; oboist
es oboe
fr hautboïste

199

okarina *(4)*

Arrautza-formako gorputza duen haize-instrumentua, moko-erako ahokoa eta hatzez estaltzen diren zuloak dituena. Zulo-kopurua aldatu egiten da instrumentu batetik bestera (ohikoena da hamar izatea, zortzi gainaldean eta bi azpialdean). Eskuarki, buztinezkoak edo portzelanazkoak izaten dira, baina badira plastiko, metal eta zurezkoak ere.

en ocarina; sweet potato; sweet potato whistle
es ocarina
fr ocarina

200

opera-kantari *(4)*
sin. operista *(4)*
Opera-errepertorioan espezializatua den kantaria.
en opera singer
es cantante de ópera; operista
fr chanteur d'opéra; chanteur lyrique

operista
➥ **opera-kantari**

201

ordena *(4)*
sin. koru (4)
Hari-instrumentuetan, hatz batez batera jotzen diren bi hari edo gehiagoren multzoa, eskuarki tonu berean edo zortzidunean afinatzen direnak.
en course
es orden
fr choeur

202

orfeoi *(4)*
Jatorriz, gizonezko-ahotsez osatutako koru-mota, XIX. mendean Frantzian sortutakoa; gaur egun, zenbait koruk edo abesbatzak, batik bat aski handiak izaten direnek, hartzen duten izena.
en choral society
es orfeón
fr orphéon

organista
➥ **organo-jotzaile**

203

organo *(4)*
Teklatu-instrumentu tutuduna, non soinua hauspoetatik datorren airea tutuetatik igarotzean sortzen baita. Teklatu edo manual bat baino gehiago izan ditzake, eta, batzuetan, haien azpian oinez erabiltzen den pedalierra. Organoaren tutuak gai, tamaina eta era askotakoak izan daitezke. Soinua sortzen den eraren arabera, bi tutu-mota daude: ezpaindunak eta mihidunak. Tinbre bereko soinua sortzen duten tutuek *erregistroa* osatzen dute.
en organ
es órgano
fr orgue
☞ **erregistro; tutu ezpaindun; tutu mihidun**

204

organo elektroniko *(4)*
Jatorriz tutu-organo akustikoaren antzeko soinua sortzeko diseinatutako teklatu-instrumentu elektronikoa. Soinua prozedura elektronikoz sortzen da, eta zenbait sistema erabiltzen dira horretarako. Organo-erako kontsola izaten du.
en electronic organ
es órgano electrónico
fr orgue électronique
☞ **elektrofono; organo**

205

organo garraiagarri *(4)*
Batetik bestera garraia daitekeen organo txikia, eskuarki mahai baten gainean ezartzen dena eta tutu-errenkada bat edo bi izaten dituena. XV-XVI. mendeetan erabili ziren batez ere.
en portative organ
es órgano portátil; órgano portativo; órgano procesional
fr orgue portatif
☞ **organo positibo**

206

organo positibo *(4)*
Organo txikia, teklatu bakarrekoa eta pedalik gabea izaten dena. Zoruan bermatzen den altzaria du, eta batzuetan garraiagarria izan daiteke. Baxu jarraitua jotzeko instrumentua da, XVI-XVIII. mendeen bitarteko erlijio-musikan oso garrantzitsua.
en positive organ
es órgano de cámara; órgano positivo
fr positif
☞ **organo garraiagarri**

207

organo-jotzaile *(4)*
sin. organista *(4)*
Organoa jotzen duen musikaria.
en organ player; organist
es organista
fr organiste

208

organologia *(4)*
Musika-instrumentuak aztertzen dituen jakintza-alorra. Organologiaren egitekoak dira instrumentuak sailkatzea eta deskribatzea, baita haien historia, fabrikazioa, akustika eta jotzeko teknika aztertzea ere.
en organology
es organología
fr organologie
☞ **instrumentu**

209

orkestra *(4)*
Zenbait instrumentistaz osatutako musika-taldea, eskuarki aski handia eta sailetan antolatua izaten dena; instrumentu horien multzoa. Ohiko sailak hari-instrumentuak eta haize-instrumentuak dira (metalezkoak eta zurezkoak), eta perkusio-saila ere izaten du batzuetan. Orkestraren osaera zehatza konpositoreak partituran zehaztutakoa da. Barrokoaren garaiko orkestratik gaur egungo orkestra sinfonikora, orkestra handituz joan da (dena den, XX. mendean gutxi aldatu da orkestra sinfoniko modernoaren ohiko osaera).
en orchestra
es *orquesta*
fr *orchestre*
☞ **ganbera-orkestra; hari-orkestra; orkestra sinfoniko**

210

orkestra sinfoniko *(4)*
Orkestra handia, 100 musikari ingurukoa. Orkestra sinfonikoa sailetan dago antolatua: hari-instrumentuak, haize-instrumentuak (metalezkoak eta zurezkoak) eta perkusioa; oinarrizko sail horiez gain, beste zenbait instrumentu ere izan ditzake (harpa eta pianoa, adibidez).
en symphony orchestra
es orquesta sinfónica
fr orchestre symphonique
☞ **ganbera-orkestra; hari-orkestra; orkestra**

211

otso *(4)*
Arku-instrumentuetan, gainerako noten aldean soinu-kalitate eskasagoa duen nota, instrumentuak maiztasun jakin batean edo batzuetan dituen erresonantzia-propietateen ondorioz gertatzen dena.
en wolf; wolf note
es *lobo*
fr loup; roulement

212

otxote *(4)*
Zortzi gizonezkoz osatutako ahots-taldea.
en octet
es ochote
fr ochote
☞ **zortzikote**

213

pabiloi *(4)*
Haize-instrumentuetan, tutuaren muturreko zabalgunea.
en bell
es pabellón
fr pavillon

214

pan txirula *(4)*
Hainbat luzeratako tutuez osatutako flauta-mota. Soinua sortzeko, tutuaren buruan zeharka putz egiten da. Tutuek nota bana sortzen dute. Tutuak bertikalean daudela jotzen da, ezpainak tutu batetik bestera mugituz. Pan txirulak oso antzinako instrumentuak dira, eta munduko herri-musika askotan erabiltzen dira.
en panpipes
es flauta de Pan; flauta de pan
fr flûte de Pan
☞ **flauta**

215

pandero *(4)*
1 ➥ **zaldabai**
2 sin. zaldabai (4)
Uztai-formako euskarria duen azal bakarreko perkusio-instrumentua, euskarrian txindata txikien moduko metalezko pieza-pareak dituena. Esku batez heldu eta besteaz jotzen da. Euskal herri-musikan, panderoa trikitiarekin batera erabiltzen da. Orkestran ere erabiltzen da. Bada euskarri hutseko mota bat, esku batez astinduz jotzen dena (batzuetan, beste eskuaren ahurraren kontra joz).
en tambourine; timbrell
es pandereta
fr tambour de basque; tambourin

216

pandero-jotzaile
Panderoa jotzen duen musikaria.
en tambourine player
es panderetista
fr tambourinaire

217

pedal *(4)*
1 Pianoan, oinez eragiten zaien piezetako bakoitza. Pedal bakoitzak bere funtzioa du.
en pedal
es pedal
fr pédale
☞ **erresonantzia-pedal; pedal tonal; sordina-pedal**

2 Zenbait organotan, oinez sakatzen diren piezetako bakoitza. Behe-soinuak sortzen dituzten erregistroak jotzeko erabiltzen direnak pedalierra izeneko teklatu-modukoan antolatuta daude.
en pedal
es pedal
fr pédale
☞ **pedalier**

3 Harpa klasikoan, oinez eragiten zaien zazpi piezetako bakoitza. Pedalaren bidez, harien luzera aldatu egiten da, eta nota bat tonuerdi bat edo bi igotzeko aukera dago.
en pedal
es pedal
fr pédale
☞ **harpa klasiko**

pedal gozo
➥ **sordina-pedal**

218

pedal tonal *(4)*
sin. sostenuto pedal *(4)*
Piano horizontalean, beste bien erdian dagoen pedala, sakatuta dauden teklen isilgailuak soilik altxarazten dituena.
en sostenuto pedal
es pedal tonal
fr pédale de prolongation; pédale de sostenuto; pédale tonale
☞ **erresonantzia-pedal; piano; sordina-pedal**

219

pedalier *(4)*
sin. pedal-klabier *(3)*; pedal-teklatu *(3)*
Organoaren behealdeko pedal-multzoa, teklatu baten eran antolatua izaten dena. Pedalak oinez sakatzen dira, eta behe-erregistroa jotzeko erabili ohi dira.
en pedal keyboard; pedalboard
es pedal; pedalera; pedalero
fr pédalier
☞ **organo**

pedal-klabier
➥ **pedalier**

pedal-teklatu
➥ **pedalier**

220

perkusio *(4)*
1 Musika-talde edo orkestra bateko perkusio-instrumentuen multzoa edo atala.
en percussion
es percusión
fr percussion
2 Soinua sortzeko erabiltzen diren bi objektu edo gehiagoren arteko talka. Perkusio-instrumentuen oinarria da.

! Zenbait hari-instrumentutan, haria jo edo kolpekatu egiten da (pianoan, esaterako), baina gertakari hori ez da "perkusiotzat" hartzen, soinuaren eragilea hariaren bibrazioa baita.
en percussion
es percusión
fr percussion
☞ **perkusio-instrumentu**

221

perkusio-instrumentu *(4)*
Soinua kolpe, astintze edo marruskaduren bidez sortzen duen instrumentua. Oso familia zabala da, eta era askotakoak dira. Instrumentu batzuk makila, mailu, esku edo beste zenbait tresnaz kolpekatzen dira; horietako batzuk, minzdunak dira (danborrak, tinbalak, congak...), eta beste batzuk ez, instrumentua bera kolpekatzen da (kanpaia, xilofonoa, marinba, güiroa...). Beste batzuetan, instrumentuaren beraren atalak elkarren kontra jotzen dira (kaskainetak, txindatak, klabea, krotaloak...). Azkenik, soinua instrumentua bera astinduz sortzen da batzuetan (marakak).
en percussion instrument
es instrumento de percusión
fr instrument à percussion
☞ **idiofono; menbranofono**

222

perkusio-jotzaile *(4)*
sin. perkusionista (4)
Perkusio-instrumentuak jotzen dituen musikaria.
en pecussionist; percussion player
es percusionista
fr percussioniste

perkusionista
➥ **perkusio-jotzaile**

pianista
➥ **piano-jotzaile**

223

piano *(4)*
Hari kolpekatuko tekla-instrumentua. Tekla sakatzen denean, mekanismo konplexu batek haria ukitzen duen isilgailua igoarazten du eta mailuari gorantz eragiten dio. Horrek haria jotzen du, eta horrela sortzen da soinua, tekla askatu eta isilgailuak haria berriz ukitu arte (pedalen bidez, isilgailuen itzulera-mugimendua kontrola daiteke). Mailuaren abiadura tekla sakatzen den indarraren abiaduraren araberakoa da. Gaitasun hori bera da pianoaren oinarria eta haren izenaren arrazoia bera ere (*piano* eta *forte* jo dezakeen instrumentua). Pianoan, nota bakoitzeko hiru hari izaten dira (baxuetan izan ezik, horietarako hari bat edo bi izaten baitira). Gaur egun, piano gehienek 88 nota izaten dituzte (7 zortzidun eta hirudun minorra, la_1-do_7), eta 1,5 metro zabal inguru izaten dira. Pianoaren aurrekari zuzena *pianofortea* da, B. Cristoforik 1700 inguruan asmatutako instrumentua.

en piano; pianoforte
es piano
fr piano
☞ **erresonantzia-pedal; isats-piano; pedal tonal; piano bertikal; pianoforte; sordina-pedal**

224

piano bertikal *(4)*
sin. zutikako piano *(4)*
Hariak, taula harmonikoa eta mekanismoa bertikalean antolatuta dauzkan pianoa.

en upright piano
es piano vertical
fr piano droit
☞ **piano horizontal; taula harmoniko**

225

piano elektriko *(4)*
Pianoaren soinua berdintzeko sortutako teklatu-instrumentu elektromekanikoa, modu mekanikoan sortutako soinua baliabide elektronikoz jaso, transmititu eta anplifikatzen duena. Hasierako modeloetan (1920), hariak eta mailuak erabili ziren, eta gerora metalezko barrak (kolpekatzekoak) eta mihiak (pultsatzekoak).

en electric piano
es piano eléctrico
fr piano électrique

226

piano horizontal *(4)*
sin. isats-piano *(4)*
Hariak, taula harmonikoa eta mekanismoa horizontalean antolatuta dauzkan pianoa. Hainbat neurritakoak daude; ohikoenak kaxa-laurdeneko pianoa, kaxa-erdikoa, hiru laurdenekoa eta kaxa handiko kontzertu-pianoa dira.

en grand piano
es piano de cola
fr piano à queue
☞ **kaxa-erdiko piano; kontzertu-piano; taula harmoniko**

227

piano mekaniko *(4)*
Mekanismo automatiko baten bidez jotzen den pianoa. Zenbait mota daude; zaharrenek zilindro koskadun bati birarazten dion biradera dute, baina ezagunena piano pneumatikoa edo pianola da.

en player piano
es piano mecánico
fr piano mécanique
☞ **piano pneumatiko**

228

piano pneumatiko *(4)*
sin. pianola *(4)*
Piano mekaniko mota, paper-biribilki batean egindako zulotxoen bidez erregistratutako obra automatikoki jo dezakeena. Sistema pneumatikoa erabiltzen da mailuei eragiteko (pedalez eragiten zaiona edo elektrikoa).

! Jatorriz, *Pianola* marka erregistratua zen (Aeolian Company); gerora, sistema horretan oinarritutako piano automatikoak izendatzeko erabiltzen hasi zen, eta batzuetan *piano mekaniko* terminoaren baliokidetzat erabiltzen da.
en pianola; player piano
es pianola
fr piano pneumatique
☞ **piano mekaniko**

229

pianoforte *(4)*
Hari pultsatuko tekla-instrumentua, pianoaren aurrekari zuzena dena. 1700 inguruan asmatu zuen Bartolomeo Cristoforik.
en fortepiano
es pianoforte
fr pianoforte
☞ **piano**

230

piano-jotzaile *(4)*
sin. pianista *(4)*
Pianoa jotzen duen musikaria.
en pianist; piano player
es pianista
fr pianiste

pianola
➥ **piano pneumatiko**

231

piccolo *(4)*
Zeharkako flauten familiako instrumentua, familiako zein orkestrako goren erregistroa duena. Do flauta sopranoarena baino zortzidun bat goragoko erregistroa du, eta dagokion baino zortzidun bat beherago idazten da, sol klabean.
en piccolo
es flautín; piccolo
fr petite flûte; piccolo
☞ **zeharkako flauta**

232

pifano *(4)*
Zeharkako flauta-mota, ohi baino barne-sekzio txikiagokoa eta soinu zoliagokoa. Zurezkoa izaten da eta piccoloa baino luzexeagoa. Arruntenak sei zulo izaten ditu, eta giltzarik gabea izaten da. Eskuarki, musika militarrean erabili izan da.
en fife
es pífano
fr fifre
☞ **piccolo; zeharkako flauta**

233

pistoi *(4)*
sin. balbula *(4)*
Metalen taldeko haize-instrumentuetan, aireak ibili beharreko tutuaren luzera handitzeko aukera ematen duen mekanismoa. Behar adinako pistoi-kopurua eta tutu gehigarrien luzerak antolatuz, eskala kromatikoko nota guztiak jo daitezke. Pistoiari sakatzean, airea luzera handiagoko tutu-zati gehigarri batetik igaroarazten da, gerora tutu nagusira itzultzeko, eta jotzen den nota baxuagoa da. Bi eratakoak daude: a) pistoi arrunta: gora eta behera higitzen dena (tronpeta, buglea...); b) pistoi birakaria (tronpa...).
en piston; valve
es pistón; válvula
fr piston

234

pistoi-korneta *(4)*
sin. korneta *(4)*
Metalezko haize-instrumentu pistoiduna, tronpetaren antzeko forma eta hedadura duena; tutu konikoa du, eta tinbrea ez da harena bezain zolia.
en cornet
es corneta; corneta de pistones; corneta de válvulas
fr cornet; cornet à pistons
☞ **tronpeta**

235

pistoi-tronboi *(4)*
sin. balbula-tronboi *(4)*
Soinuen altuera aldatzeko, irristailu bidezko sistemaren ordez pistoi-sistema duen tronboia. Hiru pistoi izaten ditu. Irristailu-tronboia baino arintasun handiagoz jo daiteke, baina ez du haren soinu-kalitatea.
en valve trombone
es trombón de pistones; trombón de válvulas
fr trombone à pistons
☞ **irristailu-tronboi**

236

pita *(4)*
sin. mihi bikoitz *(4)*
Zenbait haize-instrumentutan, bi mihiz osatutako ahoko pieza (adibidez, dultzaina, oboe eta fagotarena).

! Txistuaren eta albokaren ahoko pieza-ri ere *pita* deitu ohi zaio (mihi bikotze-koa ez izan arren).
en double reed; double reed mouthpiece
es boquilla de lengüeta doble; lengüeta doble
fr anche double
☞ **ahoko pieza**

237

plektro *(4)*
sin. zi *(4)*
Zenbait instrumenturen hariak eskuz pultsatzeko erabiltzen den pieza txiki eta zapala. Zurezkoa, bolizkoa eta beste hainbat materialezkoa izan daiteke (gaur egun, eskuarki, plastikozkoa).
en pick; plectrum
es plectro; púa
fr médiator; plectre

238

pordoi *(4)*
1 Xirolarruan, zulorik gabeko tutueta-ko bakoitza, nota bakarra sortzen due-na *(pedal-nota edo pordoia).*
en drone
es bordón
fr bourdon
☞ **xirolarru**

2 Zenbait hari-instrumentutan, haririk lodiena (soinu beherena sortzen due-na).
en bourdon
es bordón
fr bourdon

3 Danborraren, batez ere kaxaren, beheko azalaren gainean dauden harien multzoa. Goiko azala jotzen denean, pordoiaren hariek beheko azalaren kontra bibratzen dute. Hariak tripaz-koak edo metalezkoak izan daitezke (maiz bihurrikatuak), eta mekanismo bat izaten da pordoia azalaren kontra jartzeko edo altxaturik edukitzeko.
en snare
es bordón
fr timbre
☞ **atabal**

239

posizio *(4)*

1 Hari-instrumentuetan, hariak zapaltzen dituen eskua diapasoian kokatzen den lekuetako bakoitza. Kokaleku batean dagoela, eskuaren hatzek halako notak dituzte helmenean hari bakoitzean; kokalekua aldatuz, instrumentistak beste nota batzuk jo ditzake hari bakoitzean.

en position
es posición
fr position

2 Irristailu-tronboian, irristailuaren ohiko zazpi kokalekuetako bakoitza. Lehen posizioa irristailua bilduen dagoena da. Lehen posiziotik hasita, posiziotik posiziora tonuerdi bat jaisten da soinua. Posizio berean, dagokion oinarrizko soinuaren serie harmonikoko notak sortzen dira (aire-zutabearen presioa handituz).

en position
es posición
fr position

☞ **irristailu-tronboi**

poto

➥ **gezur**

240

pultsatu *(4)*

Instrumentu baten hariari hatzez edo pieza txiki batez bibrarazi. Haria alde batera behartzen da, eta askatzen denean sortzen da bibrazioa. Haria ukitzeko, hatz-mamia, azazkala, plektroa edo (tekla-instrumentutan) beste zenbait sistema erabiltzen dira.

en pluck
es pulsar
fr jouer

241

rondalla *(4)*

Ohiko osagaitzat gitarrak, lauteak eta bandurriak dituen musika-taldea, garaiaren eta herrialdearen arabera beste zenbait instrumentu ere izan ditzakeena; estatu espainoleko zenbait herri-musikatan erabiltzen da.

en rondalla
es rondalla
fr rondalla

242

sakebut *(4)*

Antzinako metalezko haize-instrumentua, gaur egungo irristailu-tronboiaren aitzindaritzat jo ohi dena.

en sackbut
es sacabuche
fr saqueboute

☞ **tronboi**

243

salterio *(4)*

Hatzez edo plektroz jotzen den zitaren familiako antzinako hari-instrumentua, funtsean kaxa baten gainean tenkatutako zenbait hariz osatua dena. Erdi Aroan erabili zen batez ere.

en psaltery; psaltry
es salterio
fr psaltérion

☞ **dultzimer; zinbalo; zitara**

sampler

➥ **lagingailu**

244

saxhorno *(4)*

Tutu konikoko metalezko haize-instrumentu pistoidunen izen generikoa. Familia oso bat da, eta terminoa Adolphe Sax asmatzailearen izenetik dator. Ezagunenak si♭ sopranoa da (*bugle* edo *fliskornoa*), si♭ baritonoa (*bonbardinoa* eta *eufonioa*) eta tuben azpifamilia.

en saxhorn
es saxhorno
fr saxhorn
☞ **bonbardino; bugle; eufonio; tuba**

saxhorno baritono
➥ **bonbardino**

saxo
➥ **saxofoi**

245
saxofoi *(4)*
sin. saxo *(4)*
Mihi bakuneko haize-instrumentua, tutu konikoa eta giltzak dituena. Metalezkoa da, baina zurezkoen taldean sailkatzen da. Adolphe Sax-ek asmatutako instrumentu-familia da. Transposizio-instrumentua da. Hainbat tamaina eta afinaziotakoak daude; horietatik arruntenak dira sopranoa (si♭), altoa (mi♭), tenorra (si♭) eta baritonoa (mi♭). Tutu zuzena duen sopranoa izan ezik, gainerakoak tutu ukondotua dute: pabiloia gorantz eta aurrerantz bihurtua dago, eta ahoko piezaren aldea atzerantz. Bandetan, jazzean eta herri-musikan erabiltzen dira batez ere.
en saxophone
es saxo; saxofón; saxófono
fr saxophone

246
saxofoi-jotzaile *(4)*
sin. saxofonista *(4)*; saxo-jotzaile *(4)*
Saxofoia jotzen duen musikaria.
en saxophon player; saxophonist
es saxofonista
fr saxophoniste

saxofonista
➥ **saxofoi-jotzaile**

saxo-jotzaile
➥ **saxofoi-jotzaile**

247
seikote *(4)*
Sei musikariz osatutako taldea.
en sextet
es sexteto
fr sextet
☞ **sesteto**

248
sekretu *(4)*
sin. haize-kaxa *(4)*; somier *(4)*
Organoan, hauspoetatik datorren aire konprimitua jasotzen duen eta tutuetara bideratzen duen kutxa-modukoa. Erregistroaren kontrola irekitzen denean, airea sartu egiten da, eta tekla edo pedala sakatzen denean, balbula bat ireki eta barruan dauden tutuetara bideratzen da. Organoaren osagai giltzarria da.
en wind chest; windchest; windchest
es secreto
fr sommier
☞ **organo**

249
sekuentziadore *(4)*
MIDI edota audio-gertakariak grabatzeko, editatzeko, prozesatzeko eta erreproduzitzeko aukera ematen duen hardware- edo software-tresna. Hasieran, sekuentziadoreak MIDI datuak prozesatzen zituzten hardware-tresnak ziren, baina gaur egun badira audio-informazioa ere prozesa dezaketen software-programak. Instrumentu elektronikoak MIDI bidez komunikatzen dira sekuentziazio-softwarearekin. Ordenagailu bidez musika konposatzeko edo moldatzeko erabiltzen den software nagusi mota da.
en sequencer
es secuenciador
fr séquenceur
☞ **MIDI**

silbote
➥ **txistu handi**

sintesi
➥ **soinu-sintesi**

250
sintetizadore *(4)*
Soinuak sintesi bidez sortzeko eta prozesatzeko ahalmena duen instrumentu elektronikoa. Eskuarki teklatu bat edo sekuentziadore bat erabiltzen da sintetizadorearen soinuak entzunarazteko (instrumentu asko tekladunak dira; teklatu gabea denean, *soinu-modulu* esan ohi zaio). Lehen sintetizadore komertziala 1964an merkaturatu zen (Moog-a). Lehenak tresna analogikoak ziren, eta gerora sortu ziren digitalak (1976) eta software-sintetizadoreak. Musika elektroakustikoan eta elektronikoan ez ezik, beste hainbat estilotan ere zabalkunde handia izan dute.
en synthesizer
es sintetizador
fr synthétiseur
☞ **lagingailu; soinu-sintesi**

soinu handi
➥ **akordeoi kromatiko**

soinu txiki
➥ **trikiti**

251
soinu-jotzaile *(4)*
sin. akordeoilari *(4);* soinulari *(4)*
Akordeoia edo soinua jotzen duen musikaria.
en accordionist
es acordeonista
fr accordéoniste

soinulari
➥ **soinu-jotzaile**

252
soinu-sintesi *(4)*
sin. sintesi *(4)*
Soinua prozedura elektroniko analogikoz edo digitalez sortzea. Askotariko sintesi-metodoak sortu dira, uhinak sortzeko eta prozesatzeko eraren araberakoak. Soinu-sintesiaren bidez, instrumentu errealen soinua berdindu nahi da batzuetan, eta soinu erabat berriak sortu besteetan. Sintesi analogikoan, oinarrizko elementuak osziladoreak, iragazkiak eta bilkariak dira. Soinu-sintesian oinarritutako musika-instrumentuari *sintetizadore* deritzo, eta gaur egun analogikoa zein digitala izan daiteke, baita hardware- edo software-sintetizadorea ere.
en sound synthesis; synthesis
es síntesis; síntesis de sonido; síntesis sonora
fr synthèse; synthèse sonore
☞ **sintetizadore**

253
soinu-zulo *(4)*
sin. zulo akustiko *(4)*
Hari-instrumentuetan, taula harmonikoan egiten den zuloa edo irekigunea, soinua kanporatzen laguntzen duena. Hari igurtziko instrumentuek bi izaten dituzte (biolinaren familia), eta hari pultsatukoek bakarra (gitarra klasikoa) edo *erroseta* izeneko tailla dekoratua (lautea, bihuela, gitarra barrokoa, mandolina...).
en soundhole
es abertura acústica; oído
fr ouïe
☞ **taula harmoniko**

somier
➥ **sekretu**

254

sopranista *(4)*
Sopranoaren erregistroan kantatzeko gai den gizonezkoa.
en sopranist
es sopranista
fr sopraniste
☞ **kontratenor; soprano**

255

soprano *(4)*
1 Emakumezko- edo haur-ahotsik altuena; ahots hori duen kantaria.
en soprano; treble
es soprano; tiple
fr soprane; soprano



Soprano-ahotsaren hedadura

2 Zenbait instrumentu-familiatan, erregistro gorena duen instrumentua.

! Zenbait familiatan, bada sopranoak baino goragoko erregistroa duen *sopranino* izeneko instrumentua.
en soprano
es soprano
fr soprane; soprano

256

soprano arin *(4)*
Goi-erregistro argi eta arineko soprano-ahotsa.
es soprano ligera
fr soprane léger; soprano léger

257

soprano dramatiko *(4)*
Soprano-ahots sendoa, hedadura handikoa, eta arinak eta lirikoak baino tinbre ilunxeagoa izaten duena.
en dramatic soprano
es soprano dramática
fr soprane dramatique; soprano dramatique

258

soprano liriko *(4)*
Soprano arina baino bolumen handiagokoa eta sendoagoa den soprano-ahotsa, soprano-ahotsaren erdi-mailako erregistroa izaten duena.
en lyric soprano
es soprano lírica
fr soprane lyrique; soprano lyrique

259

sordina *(4)*
Instrumentu baten ozentasuna gutxitzeko edo tinbrea aldatzeko erabiltzen den tresna edo mekanismoa. Metalezko haize-instrumentuetan, pabiloian ahokatzen den pieza hutsa da; tronpan, jotzailearen eskua bera da. Biolinaren familian, zubiari atxikitzen zaion pieza da, taula harmonikora transmititzen diren bibrazioak ahultzen dituena. Zenbait pianotan, pedal berezi batek betetzen du funtzio hori (sordina-pedalak).
en mute
es sordina
fr sourdine
☞ **sordina-pedal**

260

sordina-pedal *(4)*
sin. pedal gozo *(4)*
Pianoaren ezkerreko pedala, soinuaren intentsitatea gutxitzeko erabiltzen dena. Piano horizontalean, mailua alde batera mugiarazten du, eta tekla sakatzen denean, mailuak hari bat edo bi besterik ez du jotzen. Piano bertikaletan, mailuak harietarantz gerturatzen ditu, tekla sakatzen denean mailuak egiten duen distantzia (eta, beraz, haria kolpekatzeko indarra) txikiagoa izan dadin. Sordina-pedala erabili behar dela adierazteko, *una corda* argibidea erabiltzen da partituran.
en soft pedal
es pedal celeste; pedal de sordina
fr pédale douce; pédale sourdine
☞ **erresonantzia-pedal; pedal tonal; piano**

sostenuto pedal
➥ **pedal tonal**

261

sousafoi *(4)*
Helikoiaren antzeko tuba-mota, pabiloia jotzailearen buruaren gainetik aurrealdera bihurtuta daukana. Banda militarretan eta fanfarreetan erabiltzen da batez ere.
en sousaphone
es sousafón
fr sousaphone
☞ **helikoi; tuba**

262

sunprinu *(4)*
Hurritz-azalez egindako instrumentua, mihi bikoitzekoa. Azala mutur batetik pita osatzen duela tolesten hasi eta kiribilean biltzen da, tutu konikoa osatuz. Soinuaren tonua aldatzeko, bi zulo ditu aurrealdean. Euskal Herriko herri-instrumentua da, jatorriz artzaingirokoa.

263

tam-tam *(4)*
Gong-aren antzeko perkusio-instrumentua, disko aski zapala duena, ertza oso gutxi tolestua duena eta erdiko irtengune biribilik gabea. Intonazio zehaztugabeko instrumentua da.
en tam-tam
es tam-tam
fr tam-tam
☞ **gong**

tarrapata
➥ **arrada**

264

taula harmoniko *(4)*
1 Pianoan eta kideko instrumentuetan, harien azpian dagoen zurezko xafla, harien bibrazioak transmititzen dituena. Haren gainean bermatzen da pianoaren xasis edo armazoia.
en soundboard
es tabla armónica
fr table d'harmonie; table de résonance

2 Hari igurtziko eta pultsatuko instrumentuetan (biolinean, gitarran...), erresonantzia-kaxaren gainaldea, laua (gitarran) edo sabeldua (biolinaren familian) izan daitekeena. Taula harmonikoan egiten dira instrumentuaren soinu-zuloak edo zulo akustikoak.
en belly; table
es tapa armónica
fr table d'harmonie
☞ **erresonantzia-kaxa; soinu-zulo**

265

tekla *(4)*
sin. giltza *(4)*
Zenbait musika-instrumentutan, soinua sortzen duen mekanismoari eragiten dion pieza. Instrumentistaren hatz

bakoitzaren mugimendua transmititzen duen palanka-moduko pieza da. Eskuarki, nota naturalen eta kromatikoen teklak desberdinak izaten dira (esaterako, pianoaren tekla zuriak eta beltzak). Zenbait instrumentu-motatan erabiltzen da: hari pultsatukoetan (klabezina), hari kolpekatukoetan (pianoa), organoan, mihi libreko haize-instrumentuetan (akordeoia), perkusio-instrumentuetan (zelesta) eta instrumentu elektronikoetan.

en digital; key
es tecla
fr touche
☞ **teklatu**

tekla-instrumentu
➥ **teklatu-instrumentu**

266
teklatu *(4)*
sin. klabier *(4)*
Musika-instrumentu baten tekla ordenatuen multzoa.
en keyboard
es teclado
fr clavier
☞ **tekla**

267
teklatu-instrumentu *(4)*
sin. tekla-instrumentu *(4)*
Soinua egiten duen osagaiari edo mekanismoari eragiteko tekla bidezko sistema *(teklatua) darabilen instrumentua*. Hari-instrumentuak dira horietako asko (pianoa, klabezina...), baina badira haize-instrumentuak (organoa, akordeoia), perkusio-instrumentuak (zelesta) eta instrumentu elektronikoak ere (piano eta organo elektrikoak).
en keyboard instrument
es instrumento de tecla; instrumento de teclado
fr instrument à clavier

268
tenor *(4)*
1 Gizonezko-ahotsen ohiko erregistroetan gorena den ahotsa, baritonoaren eta kontraltoaren artekoa; ahots hori duen gizonezkoa. Ohiko erregistrotik gora, kontratenorraren eta sopranistaren ahotsak daude.
en tenor
es tenor
fr ténor



Tenor-ahotsaren hedadura

2 Zenbait instrumentu-familiatan *(saxofoian, tronboian...)*, erregistro behereneko bigarren instrumentua (tronboian, baxuaren gainekoa; saxofoian, altuaren eta baritonoaren artekoa).
en tenor
es tenor
fr ténor

269
tinbal *(4)*
Intonazio zehatzeko perkusio-instrumentu minzduna. Esferaerdi-formako metalezko (maiz kobrezko) edo beirazuntzezko ontzi-modukoa da, larru edo antzeko mintz elastiko batez estalia. Mintzaren tentsioa doitzeko torlojuak ditu ertzean, eta batzuek soinuaren altuera aldatzeko pedal-mekanismoa dute. Eskuarki, baketaz jotzen dira. Hainbat tamaina eta intonaziotakoak daude. Orkestrako instrumentua da, eta eskuarki tinbal-multzoa erabiltzen da.
en kettledrum; timpani
es timbal
fr timbale
☞ **intonazio zehatzeko perkusio-instrumentu**

270

tinbalari *(4)*
Tinbala jotzen duen musikaria.
en timpanist
es timbalero, -a
fr timbalier, -ière

271

tinpano *(4)*
sin. dultzimer *(4)*
Hariak mailutxoz kolpekatuz jotzen den zitara kaxaduna. Kaxak trapezoide-forma izaten du, eta mahai batean edo hanken gainean dagoela jotzen da. Tinpanoa edo haren moduko instrumentuak hainbat kulturatan erabiltzen dira. Klabikordioaren eta pianoaren aitzindaritzat jo izan da.
en dulcimer; hammer dulcimer
es dulcemel; tímpano
fr dulcimer; tympanon; zymbalon
☞ **salterio; zinbalo; zitara**

272

tiorba *(4)*
Behe-erregistro hedatua duten lauteen familiako instrumentua, *chitarrone*aren antzekoa eta artxilautea baino luzeagoa. Koskadun giderrari beste gider luzeago bat eransten zitzaion, airean jotzeko hari luzeei eusten ziena. 6 harikoa izaten zen eskuarki, eta larako-etxe gehigarrian 7 hari osagarri izaten zituen. Hari osagarriak zanpatu gabe jotzen dira, airean, eta diatonikoki afinatzen dira. Paduan sortu zen XVI. mendean, eta XVIII. mendearen lehen erdialdera bitarte erabili zen.
en theorbo
es tiorba
fr théorbe
☞ **artxilaute; chitarrone; laute**

273

tiple *(4)*
Ahots- edo instrumentu-talde baten ahots altuena.
en treble
es tiple
fr dessus
☞ **soprano**

274

tobera (4)
Metalezko barra edo hodi batez osatutako perkusio-instrumentua, muturretatik zintzilik dagoela bi pertsonak jotzen dutena, metalezko bina hagatxoz edo ziriz kolpekatuz. Euskal Herriko herri-musikan erabiltzen da; tradizioan, eztei aurretik mutil-taldeak ezkongaiaren etxe aurrean koplak kantatuaz batera jotzen da.
☞ **txalaparta**

275

tonua galdu *(4)*
sin. desafinatu *(3)*; gozakaiztu *(3)*
Musika-instrumentu batek intonazio egokia galdu (esaterako, beroaren edo hezetasunaren eraginez).
en get out of tune
es desafinarse
fr se désaccorder

276

tonuan jarri *(4)*
sin. afinatu *(3)*; gozatu *(3)*
Musika-instrumentua diapasoi baten araberako tonu egokian jarri; musika-instrumentu batzuk tonu berean jarri.
en temper; tune
es afinar
fr accorder

277

tonuan jartze *(4)*
sin. afinazio *(3)*; gozatze *(3)*
Musika-instrumentua diapasoi baten araberako tonu egokian jartzea; musika-instrumentu batzuk tonu berean jartzea.
en tuning
es afinación
fr accord; accordage

278

transposizio-instrumentu *(4)*
Noten izendapena eta sortzen dituen noten altuera erreala bat ez datozen instrumentua. Transposizio-instrumentuak izendatzeko, instrumentuaren *do* nota jotzean sortzen den nota erreala lotzen zaio aurretik instrumentuaren izenari. Esaterako, *si bemol tronpeta* batean, instrumentistak *do* jotzen duenean, entzuten den nota erreala *si bemol* da.
en transposing instrument
es instrumento transpositor
fr instrument transpositeur

traste
➥ **koska**

279

triangelu *(4)*
Erpinetako bat itxi gabe duen triangelu aldekide formako perkusio-instrumentua, altzairuz egina eta, esekita dagoela, metalezko hagatxo batez kolpekatuz jotzen dena.
en triangle
es triángulo
fr triangle

280

trikiti *(4)*
sin. eskusoinu txiki *(4)*; soinu txiki *(4)*
Euskal Herriko herri-musikan erabiltzen den akordeoi diatonikoa.
en trikitixa
es trikitixa
fr trikitixa
☞ **akordeoi diatoniko**

281

trikitilari *(4)*
Trikitia edo esku-soinu txikia jotzen duen musikaria.

282

tronboi *(4)*
Metalezko haize-instrumentua, tutuaren luzeraren parte handienean zilindrikoa dena, eta tenor edo baxuaren erregistrokoa izan daitekeena. Arruntena si♭ tronboi tenorra da, batik bat irristailuduna (pistoiduna baino erabiliagoa da). Laugarren lerroko fa klabean idazten da (goi-notak, laugarren lerroko do klabean).
en trombone
es trombón
fr trombone
☞ **irristailu; irristailu-tronboi; pistoi-tronboi**

tronboi irristailudun
➥ **irristailu-tronboi**

283

tronboi-jotzaile *(4)*
sin. tronbonista *(4)*
Tronboia jotzen duen musikaria.
en trombone player; trombonist
es trombón; trombonista
fr tromboniste

tronbonista
➥ **tronboi-jotzaile**

284
tronpa *(4)*
Metalezko haize-instrumentua, pabiloi zabal batean amaitzen den tutu koniko kiribildu batez osatua. Kono-formako ahoko pieza du, eta 3-4 pistoi birakari. Tronpa arruntena fa/si♭ tronpa bikoitza da. Transposizio-instrumentua da, soinu erreala baino bostun bat gorago idazten dena. Ohiko hedadura: si♭$_0$-fa$_4$. Behe-erregistroa fa klabean idazten da, eta goikoa sol klabean.
en French horn; horn
es trompa
fr cor d'harmonie

285
tronpa-jotzaile *(4)*
Tronpa jotzen duen musikaria.
en hornist
es trompa
fr corniste

286
tronpeta *(4)*
Tutu zilindrikoa duen metalezko haize-instrumentua; horrelako instrumentuen familia. Kopa-formako ahoko pieza dute, eta pabiloi nabaria. Hainbat tamaina eta afinaziotakoak daude. Arruntena soprano-erregistroko si♭ tronpeta da; do tronpeta ere aski arrunta da orkestran. Pistoi-sistema du, eta hirugarren pistoia irristailu txikia du, zenbait behe-nota tonu egokian jotzeko. Sol klabean idazten da. Orkestrako instrumentua da, eta garrantzi handia du jazzean, musika afrokubatarrean eta hainbat herri-musikatan. Beste tronpeta-mota batzuk dira *piccolo* delakoa (Barrokoan erabilia), irristailu-tronpeta, tronpeta baxua eta tronpeta barrokoak.
en trumpet
es trompeta
fr trompette
☞ **pistoi**

287
tronpeta-jotzaile *(4)*
sin. tronpetari *(4)*; tronpetista *(4)*
Tronpeta jotzen duen musikaria.
en trumpet player; trumpeter
es trompetista
fr trompettiste

tronpetari
➥ **tronpeta-jotzaile**

tronpetista
➥ **tronpeta-jotzaile**

ttunttun
1 ➥ **danbolin**
2 ➥ **tuntun**

288
tuba *(4)*
Tutu konikoko metalezko haize-instrumentua, baxu edo kontrabaxuaren erregistrokoa; horrelako instrumentuen familia. Kopa-formako ahoko pieza du, eta pistoiduna da (3-5 pistoi izan ditzake eskuin-eskurako). Zenbait tamaina eta afinaziotakoak daude: tuba baxuak (fa eta mi♭) eta kontrabaxuak (do eta si♭). Fa klabean idazten dira, eta ez dira transposizio-instrumentuak. Orkestra- eta banda-instrumentua da.
en tuba
es tuba
fr tuba
☞ **bonbardino; helikoi; saxhorno; sousafoi**

289
tuba-jotzaile *(4)*
Tuba jotzen duen musikaria.
en tuba player
es tuba
fr tubiste

tudel
➥ **bokal**

tumbadora
➥ **conga**

290
tuna *(4)*
sin. estudiantina *(4)*
Unibertsitateko ikaslez osatutako rondalla.
en estudiantina; tuna
es estudiantina; tuna
fr estudiantina; tuna
☞ **rondalla**

291
tuntun *(4)*
1 ➥ **danbolin**
2 sin. ttunttun *(3)*
Hari kolpekatuko instrumentua, zitararen familiakoa, zurezko erresonantziakaxa luzea eta sei hari dituena. Hariak makilatxo batez kolpekatuz jotzen da, pordoi harmonikoa eta erritmikoa sortzeko. Zuberoan, txirularekin batera erabiltzen da.
es chicotén; salterio; tambor de cuerdas
fr tambourin à cordes; tambourin du Béarn

292
tuntunlari *(4)*
1 ➥ **danbolin-jotzaile**
2 Tuntuna (hari kolpekatuko instrumentua) jotzen duen musikaria.

293
turuta *(4)*
Metalezko haize-instrumentua, goi-erregistrokoa, pistoirik gabea eta tutu konikoa duena. Armadan erabiltzen da batez ere.
en bugle
es clarín; corneta; cornetín
fr clairon

turuta-jotzaile
➥ **turutari**

294
turutari *(4)*
sin. turuta-jotzaile *(4)*
Turuta jotzen duen musikaria.
en bugle player
es corneta
fr clairon

295
tutu ezpaindun *(4)*
sin. hodi ezpaindun *(4)*
Organo-tutu mota, soinua flauta eztiaren antzeko sistema batez sortzen duena. Tutuak aho-formako irekigune bat du, eta aireak goiko ezpainaren ertzaren kontra jotzean sortzen da soinua.
en flue pipe; labial pipe
es tubo de boca; tubo labial
fr tuyau à bouche
☞ **tutu mihidun**

296
tutu itxi *(4)*
sin. hodi itxi *(4)*
Goiko muturra itxia duen organo-tutu ezpainduna. Luzera bereko tutu irekiak baino zortzidun bat beheragoko soinua sortzen du.
en stopped pipe
es tubo tapado
fr tuyau bouché
☞ **tutu ezpaindun**

297
tutu koniko *(4)*
sin. hodi koniko *(4)*
Haize-instrumentuetan, diametroa uniformeki zabalduz doan tutua. Esaterako, korneta, tronpa, tuba, dultzaina edo oboearena.
en conical bore; tapered bore
es tubo cónico
fr perce conique
☞ **pabiloi; tutu zilindriko**

298

tutu mihidun *(4)*
sin. hodi mihidun *(4)*
Organo-tutu mota, soinua aireak mihi bati bibrarazten dionean sortzen duena.
en reed pipe
es tubo de lengüetería
fr tuyau à anche
☞ **tutu ezpaindun**

299

tutu zilindriko *(4)*
sin. hodi zilindriko *(4)*
Haize-instrumentuetan, luzeraren parte handienean diametro konstantea duen tutua. Esaterako, tronpeta edo flautarena (tronboiak tutu zilindrikoa du bere luzera gehienean, bi herenak gutxi gorabehera). Metalen taldeko instrumentuen tutua bat-batean zabaltzen da amaieran, eta pabiloi nabarmenak dituzte.
en cylindrical bore
es tubo cilíndrico
fr perce cylindrique
☞ **pabiloi; tutu koniko**

300

tutu-kanpaiak *(4)*
sin. hodi-kanpaiak *(4)*
Euskarri batetik zintzilik dauden metalezko tutuz osatutako perkusio-instrumentua. Tutuak intonazio jakina dute, teklatu baten antzera daude antolatuta, eta mailuz jotzen dira, goialdean. Elizako kanpaien antzeko soinua sortzen dute.
en chimes; tubular bells
es campanas tubulares
fr cloche tubulaires; cloche-tube
☞ **kanpai**

301

txalaparta *(4)*
Makilaz kolpekatzen diren oholez osatutako euskal musika-instrumentua. Oholak euskarri baten gainean ezartzen dira, tartean gai isolatzaile bat dagoela. Makilak kono-enbor formakoak dira, eta horien oinarriaz kolpekatzen da ohola, goitik behera, makila bertikalki hartuta. Bi musikariren artean jotzen da.
en txalaparta
es txalaparta
fr txalaparta
☞ **tobera**

302

txanbela *(4)*
Zuberoako dultzaina txikia.
en txanbela
es txanbela
fr txanbela
☞ **dultzaina; oboe; xaramela**

txaranga
➥ **fanfarre**

303

txarango *(4)*
Hego Amerikako hari pultsatuko instrumentua. Gitarra txiki baten forma du, 5 hari bikoitz, eta koskaduna da. Batez ere, Andeetako herri-musikan erabiltzen da (Peru, Bolivia, Txile eta Argentina), laguntza-instrumentutzat.
en charango
es charango
fr charango

txelo
➥ **biolontxelo**

304

txindata *(4)*
sin. zinbalo *(3)*
Disko-formako metalezko xafla ganbil batez edo biz osatutako perkusio-ins-

trumentua. Xaflak zuloa du erdian, dela uhal batez eskuz heltzeko dela zutoin batean eusteko. Binaka erabil daitezke, eta uhaletatik helduta elkarren kontra jo (*txindatak*), edo, zutoin batean erdiko zulotik esekita dagoela, objektu batez jo (*txindata esekia*). Zenbaitetan, pedal-sistema bat erabiltzen da txindatei elkar joarazteko (*charleston* txindata). Binaka erabiltzen direnean, ertzek soilik jotzen dute elkar, eta talkaren bibrazioa pieza osoari transmititzen zaio.

en cymbal
es címbalo; platillo; plato
fr cymbale

305

txindata eseki *(4)*
sin. zinbalo eseki *(4)*
Metalezko disko batez osatutako perkusio-instrumentua, bereziki bateriaren osagaia dena. Erdiko irekigunea hagatxo baten muturrean finkatzen da, diskoaren higidura eragotzi gabe, eta zotz batez kolpekatuz jotzen da.

en suspended cymbal
es plato
fr cymbale suspendue
☞ **charleston txindatak; txindata; txindatak**

306

txindatak *(4)*
Uhal banatatik helduta eskuz elkar joarazten diren bi txindataz osatutako perkusio-instrumentua.

en cymbals; hand cymbals
es platillos
fr cymbales; cymbales à main; cymbales frappées
☞ **charleston txindatak; txindata; txindata eseki**

txintxarri
➥ **kaskabilo**

307

txirimia *(4)*
sin. xaramela *(3)*
Oboearen familiako antzinako musikako eta herri-musikako instrumentuen izen generikoa. Mihi bikoitzekoak dira, giltzarik gabeak izaten dira, eta kanpaiformako pabiloia izaten dute. Europan, XIII-XVII. mende bitartean erabili ziren, eta herri-musikan iraun dute gaur arte. Munduko herri askotan erabiltzen dira. Familia honetakoak dira, funtsean, dultzaina, txanbela edo bonbarda.

en schalmey; shawm
es chirimía
fr chalemelle; chalemie
☞ **bonbarda; dultzaina; oboe; txanbela**

txirrin
➥ **kaskabilo**

308

txirula *(4)*
1 ➥ **flauta**
2 Euskal Herriko haize-instrumentua, hiru zuloko flauten familiakoa. Txistua bezala, zuzena da eta hiru zuloak beheko muturrean ditu, bi zulo gainaldean eta hirugarrena azpialdean. Zurezkoa da (gehienetan, ezpelezkoa) eta 25 cm luze izaten da. Txistuak baino bostun bat goragoko soinua du. Ipar Euskal Herrikoa da, eta oso erabilia da Zuberoako herri-musikan (maskaradan, batik bat).

en xirula
es xirula
fr txirula
☞ **flauta; txistu**

txirula ezti
➥ **flauta ezti**

txirula-jotzaile
➥ **txirulari**

309

txirulari *(4)*
1 ➥ **flauta-jotzaile**
2 sin. txirula-jotzaile *(4)*
Txirula jotzen duen musikaria.

310

txistu *(4)*
Euskal Herriko haize-instrumentua, hiru zuloko flauten familiakoa. Zuzena da, eta hiru zuloak beheko muturrean ditu, bi gainaldean eta hirugarrena azpialdean. Normalean, zurezkoa izan ohi da. Metalezko eraztun batzuk izan ohi ditu, eta beheko muturrean, hatz nagia sartu eta txistuari eusteko beste eraztun bat. Ezkerreko eskuaz jotzen da, eskuarki eskuineko eskuaz jotzen den danbolinak lagunduta. Oso erabilia da Euskal Herriko herri-musikan, batik bat dantzaren lagungarri. Transposizio-instrumentua da; gaur egungo txistu estandarra fa edo fa dieseko instrumentua da; txistuaren familiako behe-erregistroko instrumentuari *txistu handi* edo *silbote* deritzo; goi-erregistrokoari, *txirula*.
en txistu
es chistu; txistu
fr txistu
☞ **danbolin; flauta; txirula; txistu handi**

311

txistu handi *(4)*
sin. silbote *(3)*
Zurezko haize-instrumentua, txistuaren familiako behe-erregistrokoa. Txistua baino luzeagoa da, eta bi eskuz helduta jotzen da. Txistua baino bostun bat beheragoko tonua du. Berez, baritonoaren erregistroa du, eta gehienetan baxuaren egitekoa izaten du.
en silbote
es silbote
fr silbote
☞ **txirula; txistu**

312

txistulari *(4)*
Txistua jotzen duen musikaria.
en txistu player
es chistulari
fr txistulari

313

ukelele
Hari pultsatuko instrumentua, gitarra txiki baten antzekoa dena. Lau hari ditu, eta plektroz jotzen da. Portugalgo *cavaquinho* instrumentuaren egokitzapena da, eta Hawaiin erabiltzen da batez ere.
en ukelele; ukulele
es ukelele
fr ukelele; ukulele

314

viola da braccio *(4)*
sin. beso-biola *(4)*
XVI-XVII. mende bitarteko arku-instrumentua, besoan bermaturik jotzen dena. Zenbait tamainatakoak daude (sopranoa, tenorra eta baxua). Biolinaren aitzindariak dira.
en viola da braccio
es viola da braccio
fr viole de bras
☞ **viola da gamba**

315

viola da gamba *(4)*
sin. zango-biola *(4)*
XVI-XVIII. mende bitarteko arku-instrumentua, zango artean bermaturik jotzen dena. Zenbait tamainatakoak daude (sopranoa, altua, tenorra, baxua eta kontrabaxua), baina arruntena baxua da, XVIII. mendera arte erabili zena. 6-7 hari izaten ditu, giderrak

koskak ditu, atzealdea zapala da, soinuzuloak *C*-formakoak dira, eta zubia kurbatura txikikoa da (biolinaren familiaren aldean). Arkua esku-ahurra gorantz dagoela erabiltzen da.

en viol; viola da gamba
es viola da gamba
fr viole de gambe
☞ **biola; viola da braccio**

316

viola d'amore *(4)*
XVIII. mendeko *viola da braccio* moduko hari-instrumentua, 6-7 hari bitartekoa, koska edo trasterik gabea eta maiz hari sinpatikoak izaten dituena arkuz jotzen diren harien azpian.

en viola d'amore
es viola d'amore; viola de amor
fr viole d'amour
☞ **viola da braccio; viola da gamba**

xaramela
➥ **txirimia**

317

xilofono *(4)*
Intonazio zehatzeko perkusio-instrumentua, neurri desberdineko zurezko oholtxo laukizuzenez osatua. Oholen azpian, erresonantzia-tutu bana dago. Baketaz kolpekatuz jotzen da. Orkestrako instrumentua kromatikoa da, eta oholtxoak piano-teklatuaren antzera antolatuta daude. Soinu erreala baino zortzidun bat beherago idazten da. Hedadura do_3-do_7 bitartekoa da.

en xylophone
es xilófono
fr xylophone
☞ **bibrafono; marinba**

318

xirolarru *(4)*
sin. gaita *(4)*
Haize-instrumentu mihiduna, hauspoz edo putz eginez airez betetzen den zahagi-antzeko batez eta horri loturik dauden ezpelezko zenbait tutuz osatua (nota desberdinak sortzeko tutu zuloduna eta pordoia sortzeko beste bat edo batzuk).

en bagpipe
es gaita
fr biniou; cornemuse

319

zaldabai *(4)*
1 sin. pandero *(4)*
Euskarri batean tenkatutako azal batez edo biz osatutako perkusio-instrumentua, euskarriaren hondoa zabaleraren aldean txikia duena. Hainbat herri-musikatan erabiltzen dira, eta askotarikoak daude. Euskarria uztai-formakoa izaten da, baina badira lauki-formakoak ere, eta gehienak azal bakarrekoak dira. Batzuetan, euskarrian kaskabiloak edo bestelako osagarriak izaten dituzte (esaterako, trikitian erabiltzen den panderoak txindata txikien moduko metalezko pieza-pareak ditu).

en frame drum; hoop drum
es pandero
fr tambour à cadre; tambour sur cadre

2 ➥ **pandero**

zango-biola
➥ **viola da gamba**

320

zarrabete *(4)*
Hari igurtziko instrumentua, hariak igurzteko esku batez eragiten zaion biradera-sistema eta, melodia egiteko, beste eskuaz erabiltzen diren teklak dituena. Tekla sakatzean, hari batzuen luzaera laburtu egiten da; beste hari batzuek pordoia sortzen dute. Jatorriz, *organistrum* zuen izena, eta gaur egun zenbait herrialdetako herri-musikan erabiltzen da.
en hurdy-gurdy
es zanfona; zanfoña; zanfonía
fr chiffonie; chifonie; sinfonie; symphonie

321

zazpikote *(4)*
Zazpi musikariz osatutako taldea.
en septet
es septeto
fr septet
☞ **septeto**

322

zeharkako flauta *(4)*
sin. zeharkako txirula *(4)*
Tutuaren muturreko alde batean putz egiteko zuloa duen flauta-mota. Airea zeharka putz eginez bideratzen da zuloaren ertzen kontra. Flauta zeharka hartzen da, horizontalean dagoela. Gaur egun orkestran erabiltzen den instrumentua Boehm-ek diseinatu zuen, zenbait giltza ditu, eta metalezkoa da. Egun, putz egiteko zuloaren inguruan, beheko ezpaina bermatzeko pieza irtena du. Zenbait tamaina eta afinaziotakoak daude. Arruntena do flauta sopranoa da. Antzinako musikan, musika klasikoan eta herri-musikan, badira zurezkoak.
en cross flute; side-blown flute; transverse flute
es flauta travesera
fr flûte traversière
☞ **flauta; flauta ezti**

zeharkako txirula
➥ **zeharkako flauta**

323

zelesta *(4)*
Perkusio-instrumentua, piano bertikal txiki baten antzekoa. Teklek metalezko oholtxoak jotzen dituzten mailuei eragiten diete.
en celesta
es celesta
fr célesta
zi
➥ **plektro**

324

zinbalo *(4)*
1 ➥ **txindata**

2 Zitara kaxadunen familiako instrumentua, tinpanoaren antzekoa, bi mailutxoz jotzen dena eta Hungariako musikan erabilia. Irango *santur*rean du jatorria. Instrumentu modernoa erresonantzia-kaxa hankadun handia du, eta isilgailuari eragiteko pedalez hornituta dago.
en cimbalom
es címbalo; cimbalón
fr cymbalum
☞ **tinpano**

zinbalo eseki
➥ **txindata eseki**

325

zintzarri *(4)*
Metalezko perkusio-instrumentua, abere-zintzarri baten forma duena baina mihirik gabea dena. Makilaz jotzen da, esku-ahurrean zein euskarri batean bermatuta.
en cowbell
es cencerro
fr cloche de vache

ziri
➥ **makila**

326

zistro *(4)*
Europan XVI-XVIII. mende bitartean erabili zen hari pultsatuko instrumentua, madari-formako kaxa, hondo laua eta diapasoi koskadun luzea zituena. Metalezko hari bikoitzak izaten zituen (estandarrenak, sei).
en cittern
es cistro; sistro
fr cistre

327

zitara *(4)*
Hariek instrumentuaren luzera osoa hartzen duten hari-instrumentuen izen generikoa. Instrumentuaren gorputza bera da erresonantzia-kaxa, eta giderrik gabeak dira. Haria pultsatua, kolpekatua edo igurtzia izan daiteke. Batzuk hatzez jotzen dira, beste batzuk mailuz. Familia zabala da, eta era askotakoak daude. Mota nagusia da taula edo kaxa-formako gorputza dutenena. Mota horretakoak dira, esaterako, salterioa, tinpanoa, zinbaloa, ttunttuna... Erdialdeko Europan, hariak kaxa trapezoidal baten gainean dituzten instrumentuak izaten dira.
en zither
es cítara
fr cithare
☞ **mailu; salterio; tinpano; zinbalo**

328

zortzidun labur *(4)*
Antzinako zenbait teklatu-instrumentutan, behe-erregistroko tekla batzuei eskala kromatikoko notak esleitu ordez, beheragoko zortziduneko nota batzuk esleitzea. Eskuarki, nota alteratuak kentzen ziren, la♯-si♭ izan ezik. Helburua instrumentuaren hedadura handitzea zen.
en short octave
es octava corta
fr octave réduite

329

zortzikote *(4)*
Zortzi musikariz osatutako taldea.
en octet
es octeto
fr octet
☞ **okteto**

zotz
➥ **makila**

330

zubi *(4)*
Hari-instrumentuetan, hariak giderretik altxaturik egonarazten dituen zurezko pieza, taula harmonikoan bermatzen dena eta harien bibrazioak taulara transmititzen dituena. Hari pultsatuko instrumentuetan, zubia taulan itsasten da.
en bridge
es puente
fr chevalet
☞ **gider; taula harmoniko**

331

zubito *(4)*

1 Hari-instrumentuetan, giderraren goiko muturrean dagoen zeharkako pieza. Zubitoaren funtzioa da hariak diapasoitik altxaturik eta bata bestetik bereizirik mantentzea. Horretarako, arteka bat du hari bakoitzeko.

en nut
es ceja
fr sillet

2 Gitarran eta kideko instrumentuetan, hariak diapasoiaren kontra zapaltzen dituen pieza, giderrean nahi den koskaren parean estutzen dena. Giderraren luzera efektiboa laburtzeko, eta beraz, hariak airean jotzean sortzen diren soinuen altuera igotzeko erabiltzen da. Horri esker, zenbait tonalitatetan jotzea erosoagoa da.

en capo; capotasto
es ceja; cejilla; cejuela
fr capodastre

3 Gitarran eta kideko gider-instrumentuetan, hatz erakusleaz hari guztiak diapasoiaren kontra zapaltzea.

en barré
es cejilla
fr barré; grand barré
☞ **zubito-erdi**

332

zubito-erdi *(4)*

Gitarran eta kideko gider-instrumentuetan, hatz erakusleaz hari batzuk (eskuarki, 3-4) diapasoiaren kontra zapaltzea.

en half-barre
es media cejilla
fr petite barré
☞ **zubito**

zulo akustiko
➥ **soinu-zulo**

333

zurezko haize-instrumentu *(4)*

Haize-instrumentu mota, non airearen bibrazioa instrumentuaren mihiaz edo ertz baten kontra putz eginez sortzen baita. Mihia bakuna *(klarinetea, saxofoia...)* edo bikoitza edo *pita* izan daiteke (oboea, dultzaina...). Flauta edo txirularen familian, airea tutuaren barneko edo kanpoko ertz baterantz bideratzen da, eta horren kontra jotzean sortzen da bibrazioa. Tutuaren zuloak itxiz eta irekiz, luzera aldatzea lortzen da, eta horren bidez aldatzen da soinuaren altuera. Instrumentu batzuetan (edo zulo batzuen kasuan), hatzez estaltzen dira zuloak, eta beste batzuetan, *giltza* izeneko mekanismoa erabiltzen da.

en woodwind; woodwind instrument
es instrumento de madera; instrumento de viento madera
fr instrument à vent famille bois; instrument en bois
☞ **haize-instrumentu; metalezko haize-instrumentu**

zutikako piano
➥ **piano bertikal**

334

zuzendari *(4)*

Musikari-talde baten zuzentze-lanak egiten dituen pertsona. Eskuarki, musika-talde handiek izaten dute zuzendaria (orkestrak, bandak, abesbatzak...).

en conductor
es director
fr chef; chef d'orchestre
☞ **zuzentze**

335

zuzentze *(4)*

Musika-talde bateko instrumentista edota kantarien jarduna gidatzeko eta bateratzeko artea. Jardunean bertan, zuzentze-lana keinuen eta mugimenduen bidez egiten da, eta helburua obraren interpretazioaren hainbat alderdiri buruzko argibideak transmititzea da: neurria, tempoa, dinamika, musikarien sarrerak, artikulazioa... Zuzentze-lanaren parte ere bada, bestalde, obraren interpretazioaren prestatze-lanak egitea, entseguak eta zuzenketak egitea.

en conducting
es dirección
fr direction

MUSIKA-FORMAK

abesti
➥ **kanta**

336
agur *(4)*
sin. erreberentzia *(4)*
Gipuzkoako brokel-dantza zikloko dantzetako bat. Norbaiten omenez edo norbait agurtzeko dantzatzen da.
es *reverencia; saludo*

ahaire
➥ **doinu**

337
ahots-musika *(4)*
sin. musika bokal *(3)*
Ahotsez bakarrik zein instrumentuz lagunduta interpretatzen den musika.
en vocal music
es música vocal
fr musique vocale
☞ **musika instrumental**

aldi klasiko
➥ **klasizismo**

338
alemanda *(4)*
Tempo lasaia duen bikote-dantza, XVI. mendean sortutakoa eta alemaniar jatorrikoa. Hasieran, biko konpasa izaten zuen, baina XVIII. mendeko konposizioetan, laukoa erabili ohi zen. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren ohiko osagaietako bat da (eskuarki, lehena, edo preludioa dutenetan, bigarrena).
en allemande
es alemanda
fr allemande
☞ **suite**

339
antifona *(4)*
Salmo edo kantika baten ahapaldiekin txandakatzen den kantu laburra.
en antiphon
es antífona
fr antiphonie

antzerki-musika
➥ **musika eszeniko**

340
antzinako musika *(4)*
Klasizismoaren aurreko europar musiken multzoa izendatzeko erabili ohi den terminoa. Eskuarki, antzinako musikaren kontzeptuak berekin ekarri ohi du musika garaiko instrumentuez eta interpretazio-irizpideez jotzea.
! *antzinako musika* kontzeptua ez da erabat zehatza, eta, zenbaiten ustez, Barrokoaren garaiko musika ez du bere baitan hartzen.
en early music
es música antigua
fr musique ancienne

341
aria *(4)*
Eskuarki ahots bakarrerakoa eta orkestraz lagundua izaten den konposizioa edo konposizio-atala, forma handiago baten osagai izaten dena (opera, oratorio, kantata...).
en aria
es aria
fr air; aria

342

arin-arin *(4)*
sin. Bizkai-dantza *(4)*
Euskal plaza-dantzetako bat; dantza horretarako doinu desberdinetako bakoitza. Erritmo bitarrekoa da eta hiru edo lau musika-esaldi eta dantza-pauso ditu. Taldean, biribilean edo binaka dantzatzen da, besoak gora eta eskuko hatzez kriskitin eginez.
☞ **porrusalda**

343

ars antiqua *(4)*
XII-XIII. mendeetako europar musika-estiloak eta formak izendatzeko erabiltzen den terminoa, XIV. mendeko *ars nova*rekin kontrajarririk erabili ohi dena. Polifoniaren hasiera, kantu laua eta *organum*a dira ezaugarri nagusiak.
en ars antiqua
es ars antiqua
fr ars antiqua
☞ **ars nova**

344

ars nova *(4)*
XIV. mendeko europar musika-estiloak eta formak izendatzeko erabiltzen den terminoa. Besteak beste, *ars nova*ren ezaugarri nagusiak dira *ars antiqua*k baino baliabide harmoniko eta erritmiko ugariagoak eta konplexuagoak erabiltzea, parteen independentzia handiagoa, forma-aniztasuna eta notazio mentsurala erabiltzea.
en ars nova
es ars nova
fr ars nova
☞ **ars antiqua**

345

atal *(4)*
sin. parte *(4)*
Konposizio bat osatzen duten zati nagusietako bakoitza.
en part
es parte
fr partie
☞ **mugimendu**

346

atariko *(4)*
Konposizio baten atal edo gorputz nagusiaren aurretik jotzen den atal edo pasartea, haren hasiera nolabait prestatzeko eginkizuna esleitu ohi zaiona.
en introduction
es introducción
fr introduction
☞ **obertura; preludio**

347

aurkezpen *(4)*
Konposizio baten hasierako atala, non gaitzat edo subjektutzat erabiliko diren musika-elementuak edo motiboak aurkezten diren. Fugan, ahots guztiak sartu artekoa da; sonata-forman, garapenaren aurreko atal osoa.
en exposition; statement
es exposición
fr exposition
☞ **fuga; gai; sonata-forma**

348

aurresku *(4)*
Euskal dantza, gizonezkoek sokan dantzatzen dutena eta emakumezkoak sokan tartekatzera gonbidatzen dituztena; txistu eta danbolinaz laguntzen da.

ausazko musika
➥ **musika aleatorio**

349

bagatela *(4)*
Konposizio laburra eta arina, eskuarki teklatu-instrumenturako egina.
en bagatelle
es bagatela
fr bagatelle

350

balada *(4)*

1 Hitz neurtuzko kontakizuna, izaera epiko-lirikoa izaten duena, eta gaitzat antzinako gertaera bat izaten duena; horren doinua, edo horren estiloan egindako musika-konposizioa.

! Euskal literaturan, erromantzearen baliokidetzat har daiteke balada.

en ballad
es balada
fr ballade

☞ **erromantze**

2 Jazzean, tempo geldoko konposizioa, izaera liriko edo erromantikoa izaten duena.

en ballad
es balada
fr ballade

351

ballet *(4)*

1 Dantzari batek edo multzo batek antzeztutako ikuskizun koreografikoa. Jatorriz italiarra da (*balletto*), eta XVI. mendean dantza-eredutzat garatu zen Frantziako gortean (*danse d'ecole*). Gaur egun, dantza klasikoko eredu horretatik harantz egiten diren ikuskizun koreografikoen izendapen generikoa ere bada.

en ballet
es ballet
fr ballet

☞ **dantza**

2 Ballet-ikuskizunaren musika.

en ballet
es ballet
fr ballet

3 Ikuskizun koreografikoak antzezten dituen dantzari-taldea.

en ballet
es ballet
fr ballet

352

bals *(4)*

Erritmo hirutarreko bikote-dantza, azentua lehen aldian duena; dantza horren musika, edo horren erritmoan egindako konposizioa. Jatorriz germaniarra da (*ländler* herri-dantzak). XVIII. mendean sortu zen, eta XIX. mendean Europako areto-dantza nagusietakoa izatera heldu zen.

en waltz
es vals
fr valse

353

bariazio *(4)*

1 Motibo edo pasarte batetik abiatuta material berria garatzeko teknika. Bariazioaren funtsa da jatorrizko motiboaren aldaketa melodiko, erritmiko edo harmonikoak egitea, eta harekiko kidetasuna nolabait gordetzen duten musika-ideia eta material berriak garatzea.

en variation
es variación
fr variation

2 Bariazioaren teknikan oinarritutako musika-forma; teknika horren bidez sortutako konposizioa.

! Eskuarki, pluralean erabiltzen da (*bariazioak*).

en variation
es variación
fr variation

354

barkarola *(4)*

Veneziako gondolarien kantua, eta horren estilora moldatutako ahots- edo instrumentu-konposizioa. Gehienetan, 6/8 edo 12/8 konpasekoa izaten da, tempo lasaia izaten du, eta ontziaren kulunka iradokitzen duela esan ohi da.

en barcarolle
es barcarola
fr barcarolle

355

basse danse *(4)*
XV-XVI. mendeetako gorte-dantza, tempo geldokoa, eta oinak lurretik gutxi altxatuz, jauzirik egin gabe, dantzatzen zena. Pabanak ordezkatu zuen.
en basse danse
es basse danse
fr basse danse
☞ **pabana**

356

bel canto *(4)*
XVII. mendearen bigarren erdialdetik XIX. mendearen lehen hamarkadetara bitartean Italian garatutako kantu-estiloa, ezaugarri nagusitzat soinuaren garbitasuna eta birtuosismoa dituena (tonuaren kalitate ona hedadura osoan, *legato* kantatzeko trebezia eta apaindurarako erraztasuna, goi-erregistroan aise aritzea, arintasuna...).
en bel canto
es bel canto
fr bel canto

beltz espiritual
➥ **espiritual**

357

berceuse *(4)*
XIX. mendearen eta XX. mendearen hasieran, lo-kantaren erara moldatutako konposizio batzuei emandako izena. Erritmo lasaia eta izaera samurra izaten dute, eta pianorako piezak izaten dira gehienbat.
en berceuse
es berceuse
fr berceuse

358

berraurkezpen *(4)*
Sonata-formaren azken atala, aurkezpeneko materiala errepikatzen duena, baina bigarren tema tonikan amaituta. Eskuarki, koda bat izaten da ondoren.
en recapitulation
es recapitulación; reexposición
fr réexposition
☞ **aurkezpen; sonata-forma**

359

bertso *(4)*
Euskal herri-literaturako ahapaldia, bat-batean botatzen dena edo jartzen dena.

360

bilantziko *(4)*
Espainiako XV-XVI. mendeetako poesia- eta -musika-forma, leloaz eta ahapaldiez osatua. Gaiak gorte-, herri- edo erlijio-girokoak izaten dira.
en villancico
es villancico
fr villancico

361

biribilketa *(4)*
sin. kalejira *(4)*; karrika-dantza *(4)*
Dantzariak eskutik helduta eta elkarren atzean ibiliz dantza egiteko jotzen den musika-pieza. Euskal Herriko erromerietan, azken pieza izaten da. Doinua biko konpasean eta tempo arinean idazten da.

! *biribilketa* hitza neologismoa da, XX. mendearen hasieran sortua , eta Txistulari Elkartearen sorrerarekin zabaldu dena.
es pasacalle

Bizkai-dantza
➥ **arin-arin**

362

blues *(4)*

AEBko beltzen herri-kantu mota, erritmo lautar geldokoa. Forma ohikoenak 12 konpaseko egitura du (I-I-I-I-IV-IV-I-I-V-IV-I-V). Ezaugarri melodiko bereziak ditu (*blue nota*, *blues-eskala*). Jazzaren eta rock-and-rollaren sorreran eragin handia izan zuen.

en blues
es blues
fr blues

363

bolero *(4)*

1 XVIII. mendearen bigarren erdialdean sortutako dantza espainola, erritmo hirutarrekoa eta tempo lasaia duena; dantza horren doinua edo horren estiloan egindako konposizioa.

en bolero
es bolero
fr boléro

2 Jatorriz Kubakoa den erritmo bitarreko dantza eta konposizioa, tempo geldokoa eta eskuarki sentimentala. XIX. mendearen amaiera aldera sortu zen, eta oso zabaldua dago Latinoamerikan.

en bolero
es bolero
fr boléro

364

bossa nova *(4)*

Brasilgo herri-musikako estiloa, 1950eko hamarkadan sortua. Gitarra da laguntza-instrumentu nagusia, jazzaren eragina agertzen du (melodia eta harmonia konplexuak), eta erritmikoki sanbaren elementu batzuk dituen arren, perkusioak sanban baino nabarmentasun gutxiago du.

en bossa nova
es bossa nova
fr bossa nova

☞ **sanba**

365

bourrée *(4)*

Errenazimentuaren eta Barrokoaren garaiko konpas bitarreko dantza arina, frantziar jatorrikoa. Gabotaren kidea da. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren osagai izan daiteke (eskuarki, sarabandaren ondorengoa).

en bourrée
es bourrée
fr bourrée

☞ **suite**

366

branle *(4)*

XV. mendean, *basse dance*ren pausoetako bat; XVI. mendetik aurrera, Frantziako herri-dantza (soka-dantzaren familiakoa). Garaiaren eta herrialdearen araberako branle-mota ugari daude. Euskal Herrian, Zuberoako maskaradako dantzetako bat da.

en branle
es branle
fr branle

367

cadenza *(4)*

Konposizio baten amaiera aldean solistak bakarrik jotzen edo kantatzen duen pasartea, helburutzat haren birtuosismoa erakustea izaten duena. Jatorriz, cadenzak inprobisatuak izaten ziren, baina gerora (XIX. mendean) konposizioaren parte finkoak bihurtu ziren. Gehienak arietan eta kontzertuetan jotzen dira. Normalean, dominante-akordean amaitzen da, eta une horretan orkestra hasten da (*tutti*), mugimendua amaitzeko.

en cadenza
es cadenza
fr cadence

☞ **fermata**

368

cantus firmus *(4)*
sin. tenor *(4)*
Erdi Aroan eta Errenazimentuan, konposizio polifoniko baten oinarria den melodia, eskuarki konposizioa bera baino lehenagokoa izaten dena.
en cantus firmus; tenor
es cantus firmus; tenor
fr cantus firmus; teneur
☞ **organum; polifonia**

369

concerto grosso *(4)*
Solista-multzo txiki baterako eta instrumentu-multzo handiago baterako egindako konposizioa. Solista-multzoaren (*concertino*aren) eta gainerako instrumentu-multzoaren (*ripieno*aren) arteko kontrastean oinarritua da. Barrokoaren garaiko forma da (XVII-XVIII. m.).
en concerto grosso
es concerto grosso
fr concerto grosso
☞ **kontzertu**

370

country *(4)*
AEBko hego-ekialdeko zurien herri-musikatik eratorritako estiloa, sustraiak folklore ingelesean eta irlandarrean dituena. 1920ko hamarkadan agertu zen, eta instrumentu adierazgarrienak banjoa, biolina eta gitarra dira.
en country
es country
fr country

371

courante *(4)*
Errenazimentuaren eta Barrokoaren garaiko konpas hirutarreko dantza, aldaera frantsesa (3/2) eta italiarra (3/4; *corrente* forman erabilia) dituena. Jatorriz dantza arina zen, baina courante frantsesak tempo geldoa izaten zuen. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren ohiko osagaietako bat da (eskuarki, alemandaren ondorengoa).
en courante
es courante
fr courante
☞ **suite**

372

cueca *(4)*
Txileko bikote-dantza, tempo arinekoa eta hemiolia-erritmoa izaten duena (3/4 - 6/8). Danborrez eta gitarraz, harpaz edota akordeoiz laguntzen da. Jatorriz Perukoa bide da, eta Argentinako *zamba*ren kidea da. Txileko dantza nazionala da.
en cueca
es cueca
fr cueca
☞ **hemiolia; zamba**

373

cumbia *(4)*
Jatorriz Panamakoa eta Kolonbiako Atlantikoko kostaldekoa den dantza; dantza horren musika. Konpas bitarrekoa da (2/4), eta tempoa lasaia edo arina da. Jatorri afrikarreko, amerindiarreko eta espainoleko eraginak ditu. XX. mendean, Latinoamerikako zenbait herrialdetara hedatu da.
en cumbia
es cumbia
fr cumbia

374

da capo aria *(4)*
Forma hirutarreko aria (ABA). Bigarren atalaren ondoren, lehen atala errepikatzen da (hortik *da capo* izendapena), eskuarki apainduraz hornituta. Barrokoaren garaiko forma da.
en da capo aria
es aria da capo
fr aria da capo

375

dantza *(4)*

1 Gorputz-mugimendu kateatuen multzoa, helburu erritual, sozial edo espresiboa izan dezakeena. Eskuarki, musika batekin batera egin ohi da. Dantza inprobisatua izan daiteke, baina, finkatu diren dantza-motetan, eredu baten araberako urrats eta mugimendu bereizgarriak egiten dira.

en dance
es danza
fr danse
☞ **ballet**

2 Dantza baten erritmo bereizgarrian eginiko musika-konposizioa (esaterako, suite barrokoaren osagaiak).

en dance
es danza
fr danse
☞ **suite**

376

danzón *(4)*

Kubako dantza-generoa, XIX. mendearen amaieran sortutakoa, eta kontradantzaren eta erritmo afrokubatarren eragin-trukearen emaitza dena. 2/4 konpasa izaten du, eta rondo egitura. Danzón-en berrikuntzak mambo eta txa-txa-txa erritmoak ekarri zituen XX. mendearen erdialdean.

en danzón
es danzón
fr danzón
☞ **mambo; txa-txa-txa**

377

diatonismo *(4)*

Eskala diatonikoaren erabileran oinarritua den musika-sistema.

en diatonicism
es diatonismo
fr diatonisme

378

diferentzia *(4)*

XVI-XVII. mendeetako Espainiako musikan erabilitako bariazio-antzeko forma.

! Eskuarki, pluralean erabiltzen da (*diferentziak*).

en diferencia
es diferencia
fr diferencia
☞ **bariazio**

379

diskantu *(4)*

Erdi Aroko polifonia, inprobisatua edo idatzia, *cantus firmus* edo tenorrari ahots bat edo batzuk eransten dizkiona, eskuarki horren kontrako mugimenduan. XII-XIII. mendeetan erabili zen batez ere.

en descant; discant
es discanto
fr déchant
☞ **cantus firmus; organum**

380

divertimento *(4)*

Egitura aski libreko konposizio-mota batzuen izendapena. Instrumentu solistarako edo ganbera-talde baterako idatzia da, eta eskuarki lau mugimendu baino gehiago izaten ditu.

en divertimento
es divertimento
fr divertimento; divertissement

381

dodekafonismo *(4)*

Eskala kromatikoko hamabi notak haien arteko hierarkiarik ezarri gabe erabiltzen dituen sistema.

! Adiera hertsian sinonimoak ez badira ere, batzuetan *dodekafonismo* eta *serialismo* baliokidetzat erabiltzen dira.

en dodecaphonism; twelve note music
es dodecafonismo
fr dodécaphonisme
☞ **serialismo; serie**

382

doinu *(4)*
sin. ahaire *(4)*; melodia *(4)*
Osotasuna eta izaera berezia duen nota-segida identifikagarria.
en melody; tune
es melodía; tonada
fr air; mélodie
☞ **melodia**

383

duo *(4)*
Bikote batentzat egindako konposizioa edo pasartea.
en duet; duo
es dúo
fr duo
☞ **bikote**

384

entzunaldi *(4)*
Obra bat jendaurrean jotzen den aldietako bakoitza.
en recital
es audición
fr audition

385

episodio *(4)*
1 Garrantzi tematiko nagusiko pasarteen artean jotzen den bigarren mailako pasartea.
en episode
es episodio
fr épisode

2 Fugan, subjektuaren aurkezpenaren ondoren edo horien geroko agerpenen artean tartekatzen den atala.
en episode
es episodio
fr divertissement; épisode
☞ **aurkezpen; fuga**

3 Rondon, leloaren errepikapenen arteko pasartea.
en episode
es copla; episodio
fr couplet; épisode
☞ **rondo**

386

erantzun *(4)*
Fugaren subjektuaren lehen agerraldiaren ondoren hasten den melodia, eskuarki bostun bat gorago edo laudun bat beherago (beraz, dominantean) jotzen dena. Subjektuaren transposizio tonala (diatonikoa) edo erreala (zehatza) izan daiteke.
en answer
es respuesta
fr réponse
☞ **fuga; subjektu**

ereserki
➥ **himno**

387

erlijio-musika *(4)*
sin. musika erlijioso *(3)*
Elizkizunetan interpretatzeko edo erlijio-gaietan oinarriturik sortua den musika.
en religious music; sacred music
es música religiosa; música sacra
fr musique religieuse; musique sacrée
☞ **musika profano**

erreberentzia
➥ **agur**

388

errepertorio *(4)*

1 Alderdi komun batzuk (garaia, estiloa...) dituzten eta erlazionatu ohi diren obren multzoa; bereziki, estilo batean denboraren poderioan finkatu diren eta eskuarki jotzen diren obren multzoa.

en repertoire
es repertorio
fr répertoire

2 Instrumentistak, kantariak edo talde batek eskuarki interpretatzen duen obra-multzoa.

en repertoire
es repertorio
fr répertoire

errepika

1 ➥ **lelo**
2 ➥ **lelo**

389

errezital *(4)*

Instrumentista edo kantari batek eginiko saioa, dela bakarrik, dela beste instrumentista batek lagunduta.

en recital
es recital
fr récital

☞ **kontzertu**

390

errezitatibo *(4)*

Testu bat deklamazio-estiloan kantatzen den eta instrumentuz lagundua izaten den musika-pasartea edo konposizio-atala. Musikaren ezaugarri melodiko eta erritmikoak testuaren egituraren araberakoak dira. Opera, oratorio, pasio eta beste zenbait musika-formatan erabiltzen da.

en recitative
es recitativo
fr récitatif

391

erritmo *(4)*

Musika- edo dantza-estilo jakin baten patroia den unitatea, halako tempoa, konpasa eta azentu-banaketa ezaugarri dituena.

en rhythm
es ritmo
fr rythme

392

erritmo-sekzio *(4)*

Zenbait musika-estilo modernotan, eta bereziki jazzean, erritmoaz eta linea harmonikoaz arduratzen diren instrumentuen multzoa (bateria, kontrabaxua edo baxu elektrikoa, gitarra edota pianoa nahiz antzeko teklatu-instrumentua).

en rhythm section
es sección de ritmo; sección rítmica
fr section rythmique

393

erromantza *(4)*

XIX. mendean, italiar operako aria-moduko konposizio batzuei emandako izena. Eskuarki, ariak baino giro intimoagokoak izaten dira.

en romance; romanza
es romanza
fr romance

☞ **erromantze**

394

erromantze *(4)*

1 XVI. mendeaz geroko gaztelaniazko poesia-generoa, zortzi silabako lerrotan moldatua eta gertaera bat azaltzen duena; horren kide den XV-XVIII. mendeen bitarteko euskarazko herri-poesia mota.

! Euskal literaturan, baladaren baliokidetzat jo daiteke erromantzea.

en romance
es romance
fr romance

☞ **balada**

2 XVIII-XIX. mendeetan, ahotserako eta laguntza edo akonpainamendurako konposizioa, bereziki Frantzia eta Italian indarra izan zuena. Lirikoa izaten da, eta formaz sinplea.
en romance
es romance
fr romance

395

espiritual *(4)*
sin. beltz espiritual *(4)*
AEBko komunitate beltzaren erlijiozko herri-kantua, afrikar jatorriko kantuen eta europar liturgia-kantuen eraginak agertzen dituena. XIX. mendean sortuak dira, eta eragin handia izan dute gospel estiloan.
en spiritual
es espiritual; negro espiritual
fr negro spiritual
☞ **gospel**

396

estandar *(4)*
Jazzean, ohiko errepertoriokoa den konposizioa. Batez ere, komedia musikal edo filmetako piezak izaten dira, edo jazz-musikarien konposizioak.
en standard
es estándar
fr standard

397

estudio *(4)*
Instrumentu-teknikan trebatzeko helburuz idatziko musika-konposizioa, eskuarki teknikaren alderdi jakin bat edo batzuk lantzeko.
en etude; study
es estudio
fr étude

eszenako musika
➥ **musika eszeniko**

398

ezpata-dantza *(4)*
Euskal erritmo-mota, 6/8☞3/4 konpasetan idatzi ohi dena; izen bereko dantzari dagokio.

399

fado *(4)*
Portugalgo herri-kanta, erritmo bitarrekoa, gitarra portugesez, fabordaz eta kideko instrumentuez lagundua kantatzen dena. Giro hiritarrekoa da, bereziki Lisboakoa.
en fado
es fado
fr fado

400

fandango *(4)*
sin. orripeko *(3)*
Erritmo hirutarreko dantza, tempo bizi samarrekoa; dantza horren musika, 3/4 edo 6/8 konpasean idatzi ohi dena. Zenbait herrialdetako herri-musikan sustraituta dago (Iberiar Penintsulan eta Hego Amerikan), eta bakoitzean ezaugarri bereziak izaten ditu (Andaluzian, flamenkoaren *palo*etako bat ere bada). Jotaren kidea da (Euskal Herriko plaza-dantzetan, bi izendapenak erabiltzen dira, herrialdearen arabera).

! *orripeko* terminoa euskal fandangoaren sinonimoa da.
en fandango
es fandango
fr fandango
☞ **jota**

401

fanfarre *(4)*
Metalezko haize-instrumentuetarako, bereziki tronpetetarako, egindako konposizioa, sarritan perkusioz lagunduta jotzen dena. Zeremonia- eta ospakizunfuntzioa izaten du, baita armadako edo ehizako deiena ere.
en fanfare
es fanfarria
fr fanfare

402

fantasia *(4)*
Forma askeko konposizio instrumental mota, inprobisazio-obra edo -pasarteen ezaugarriak agertu ohi dituena.
en fancy; fantasia; fantasy
es fantasía
fr fantaisie

403

finale *(4)*
1 Sonata, sinfonia, kontzertu eta kideko konposizio baten azken mugimendua, eskuarki tempo arina izaten duena.
en finale
es finale
fr finale

2 Operan, ekitaldi baten amaierako pieza, pertsonaia nagusiek eta batzuetan koruak ere parte hartzen dutena.
en finale
es finale
fr finale

404

flamenko *(4)*
Andaluziako herri-musika eta -dantza, zenbait kulturaren eragina agertzen duena: Espainiako musika-tradizioa, ekialdeko kulturetako osagaiak (batez ere, arabiarrak), ijitoen espresiobideak... Instrumentazioren aldetik, ahotsa, gitarra eta txalo-jotzea dira tradiziozko osagaiak.
en flamenco
es flamenco
fr flamenco

405

folia *(4)*
Jatorriz portugesa bide den dantza, konpas hirutarrekoa. Lehen aztarnak XV. mendekoak dira, eta dantza arina eta informala zela adierazten dute; aurrerago, XVII. mendetik aurrera, tempoa geldotu egin zen, sarabandaren erara. Gainera, foliaren egitura harmonikoa eta oinarrizko linea melodikoa finkatu egin ziren, eta bariazioak egiteko ostinato-moduko oinarritzat erabili zuten hainbat konpositorek.
en folia
es folía
fr folia; follia

406

folk *(4)*
Herri-musika modernoaren esparruan, batez ere herri anglosaxoniarren tradiziozko musikan oinarritutako estiloa, 1960ko hamarkadan sortutakoa; hedaduraz, tradiziozko musikan oinarritutako estiloa izendatzeko erabili izan den terminoa.
en folk
es folk
fr folk

407

forma bitar *(4)*
Bi atalez osatutako musika-forma (AB, AABB). Eskuarki, lehen atalean tonikatik gertuko tonalitate batera modulatzen da, normalean dominantera edo, tonika minorra bada, erlatibo maiorrera. Bigarren atalean, alderantzizko modulazioa egiten da, tonikan amaitzeko, hain zuzen ere.

en binary form; two part form
es forma binaria
fr forme binaire
☞ **forma hirutar**

408

forma hirutar *(4)*
Hiru atalez osatutako musika-forma (ABA). Lehen eta hirugarren atalak berdinak izaten dira, edo oso antzekoak.
en ternary form; three-part form
es forma ternaria
fr forme ternaire
☞ **forma bitar**

forma musikal
➥ **musika-forma**

409

fuga *(4)*
Kontrapuntu-teknika darabilen musika-forma polifonikoa, hasieran aurkezten den tema edo subjektu batetik abiatuta eratzen dena, batik bat imitazioaren bidez. Atal nagusiak aurkezpena, garapena eta stretto dira. Barrokoaren garaiko forma nagusietakoa izan zen.
en fugue
es fuga
fr fugue
☞ **aurkezpen; episodio; garapen; imitazio; kontrapuntu; stretto**

410

gabota *(4)*
XVII. eta XVIII. mendeetako dantza frantsesa, jatorriz nekazari-girokoa eta konpas bitarra duena; dantza horren musika edo horren estiloan egindako konposizioa. Suite barroko batzuen osagaia ere bada. Zuberoako maskaradako dantzetako bat da.
en gavotte
es gavota
fr gavotte

gai
➥ **tema**

411

gaillarda *(4)*
XVI-XVII. mendeetako dantza arina, konpas hirutarrekoa eta bost pauso desberdin dituena; dantza horren doinua, edo horren estiloan egindako konposizioa. Saltarelloaren antzekoa da, eta, hura bezala, pabanarekin elkartu ohi zen dantza-konposizioetako bat da.
en galliard
es gallarda
fr gaillarde
☞ **pabana; saltarello**

412

ganbera-musika *(4)*
Musikari-talde txiki batek jotzeko konposatutako musika (eskuarki, gehienez hamar kidez osatutako taldeentzat egindakoa hartu ohi da ganbera-musikatzat). Jatorriz, gela edo areto batean jotzeko konposatutako musika zen, eta, beraz, musika erlijiosoari eta antzerkirako musikari kontrajarria.
en chamber music
es música de cámara
fr musique de chambre

413

garapen *(4)*
1 Konposizioaren hasieran aurkeztu den materiala hedatzea eta eraldatzea, harekin nolabaiteko erlazio tematikoa atxikiz eta aldi berean musika-ideia eta -material berriak sortuz.
en development
es desarrollo
fr développement

2 Musika-forma batzuetan, aurkezpenaren ondoko atala (esaterako, fugan edo sonata-forman).

en development
es desarrollo
fr développement
☞ **aurkezpen**

414

giga *(4)*
Errenazimentuaren eta Barrokoaren garaiko dantza arina, eskuarki konpas konposatukoa. Jatorria Ingalaterrako eta Irlandako *jig* dantza bide da. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren ohiko osagaietako bat da, eta sarritan 6/8 konpasean idatzia.
en gigue
es giga
fr gigue
☞ **suite**

415

gospel *(4)*
AEBko komunitate beltz protestantearen erlijio-kantuaren estiloa, XX. mendearen hasieran sortutakoa. Beltz espiritualekin erlazionatuta daude, eta haiek baino erritmo biziagoa izaten dute.
en gospel
es gospel
fr gospel
☞ **espiritual**

gregoriano
➥ **kantu gregoriano**

416

guajira *(4)*
Kubako dantza eta kantua, 6/8 eta 3/4 konpasak konbinatu ohi dituena, eta hamarreko bertsoak erabiltzen dituena. Kubako nekazari-giroko musika da.
en guajira
es guajira
fr guajira

417

habanera *(4)*
Jatorriz Kubakoa bide den dantza, 2/4 konpasa eta tempo lasaia dituena; dantza horren doinua, edo horren estiloan egindako konposizioa. Konpasaren lehen aldian figura bereizgarria du, kortxeaerdia, kortxea, kortxeaerdia eta bi kortxeaz osatua. Kontradantzaren bilakaeraren emaitza da, eta eragina izan du Kubako *danzón*en zein Argentinako tangoaren garapenean.
en habanera
es habanera
fr habanera
☞ **danzón; tango**

418

hari-kuarteto *(4)*
Hari-laukoterako egindako konposizioa. XVIII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik, ganbera-musikan gehien landu den eta eragin handiena izan duen konposizio-mota da.
en string quartet
es cuarteto para cuerda
fr quatuor à cordes; quatuor pour cordes

419

herri-kanta *(4)*
Herri-tradizioan finkatu eta bertatik jaso den kanta.
en folk song
es canción popular; canto popular
fr chanson populaire

420

herri-musika *(4)*
1 sin. musika folkloriko *(4)*; tradiziozko musika *(4)*
Herri edo kultura baten tradiziozko ondarearen parte den musika, eskuarki entzunez transmititu eta errotu ohi dena.

en folk music; traditional music
es música folklórica; música popular; música tradicional
fr musique folklorique; musique populaire; musique traditionnelle

2 Jendartean zabalkunde handia izan duten zenbait musika-mota izendatzeko erabili ohi den terminoa; batzuetan, musika akademikoaren esparrutik kanpo sortzen den musika izendatzeko erabili ohi da. Adiera horretan, XIX. mendeaz gero tradiziozko musikatik eta musika akademikotik nolabait bereiziak diren edo haietatik abiatuta garatu diren zenbait genero adierazten ditu (esaterako, vaudevillea, tangoa, bluesa, jazza, rock-and-rolla, soula, popa, folka, sona, saltsa...). Nolanahi ere, bereizketa lausoa da, eta eztabaidatua.
en popular music
es música popular
fr musique populaire

hileta-doinu
➥ **hileta-martxa**

421
hileta-martxa *(4)*
sin. hileta-doinu *(4)*
Tempo geldoko martxa zeremoniatsua, hiletetan jotzeko konposatua.
en funeral march
es marcha fúnebre
fr marche funèbre
☞ **martxa**

422
himno *(4)*
sin. ereserki *(4)*
Jainko zein pertsona bat laudatzeko edo gertakari gogoangarri bat ospatzeko egindako konposizioa.
en hymn
es himno
fr hymne

423
hip hop musika *(4)*
Hip hop kultura-mugimenduaren barneko musika-estiloa, osagai nagusi hauek dituena: *rapping*a (hitzak musikarekin batera erritmikoki errezitatzea), *beatboxing*a (perkusio-instrumentuak aho-soinuz egitea), *DJing*a eta musika elektronikoaren *sampling* teknika.
en hip hop music
es música hip hop
fr musique hip-hop

424
impromptu *(4)*
Erromantizismoaren garaiko obra instrumentala, formaz askea dena eta inprobisazioa iradokitzen duena. Gehienetan, pianorako konposizioa izaten da.
en impromptu
es impromptu
fr impromptu

425
inprobisazio *(4)*
Musika jo ahala sortzea, aldez aurretik konposatu edo finkatu gabe; horrela egindako joaldia eta, bereziki jazzean, konposizio baten eskema harmonikoaren gainean egindako joaldia.
en improvisation
es improvisación
fr improvisation

instrumentu-musika
➥ **musika instrumental**

426
interludio *(4)*
Konposizio edo antzerki-obra baten bi atalen artean jotzen den musika-pieza, eskuarki laburra eta instrumentala izaten dena.
en interlude
es interludio
fr interlude

427

jazz *(4)*
XX. mendean Ipar Amerikako beltzen musiketatik sorturiko musika-moten eta -estiloen multzoa, ezaugarri nagusitzat inprobisazioa eta *swing*a dituena. Jazzak bilakaera eta garapen handia izan du, eta izaera berritzailea eta eklektikoa agertu du hasieratik; folkloretik dantza-musika izatera pasatu zen, musika landu eta jasoa izatera gero, abangoardia-estiloak eskaintzeraino.
en jazz
es jazz
fr jazz
☞ **blue nota; inprobisazio; swing**

428

jota *(4)*
Erritmo hirutarreko herri-dantza eta kantua, Iberiar Penintsulako zenbait herri-musikatan sustraitua dena. 3/4 konpasean idatzi ohi da, baina 6/8an ere bai, eta tempoz bizia izaten da (jota kantatua pausatuagoa izaten da). Euskal Herrian, jotak garrantzi handia du Nafarroako herri-musikan, batik bat jota-kantuak. Beste eskualde batzuetako musiketan, trikitian esaterako, jota fandangoaren kideko dantza da.
en jota
es jota
fr jota
☞ **fandango**

429

kabatina *(4)*
XVIII-XIX. mendeetako operan, aria labur eta sinple baten moduko konposizioa. XVIII. mendean, *da capo* aria baino laburragoa den ahots-konposizioa da; XIX. mendeko opera italiarrean, pertsonaia aurkeztekoa.
en cavatina
es cavatina
fr cavatine
☞ **aria**

kalejira
➥ **biribilketa**

430

kanon *(4)*
Instrumentuek edota ahotsek melodia edo subjektu bera edo haren transposizioa une desberdinetan jotzen hasiz osatzen den kontrapuntu-konposizioa. Parteak bata bestearen ondoren hasten dira, tarte erregular edo irregularretan. Subjektua unisonoan, zortzidunean edo bestelako bitarte jakin batzuetan errepika daiteke (eskuarki, laudunean edo bostunean).
en canon
es canon
fr canon
☞ **fuga; kontrapuntu**

431

kanta *(4)*
sin. abesti *(4)*; kantu *(4)*
Ahotsez interpretatzen den musika-pieza, testua izaten duena eta kantu hutsez edo instrumentuz lagundurik interpreta daitekeena. Herri-tradiziokoa izan daiteke (herri-kanta), edo egile-konposizioa.
en song
es canción; cantar; canto
fr chanson; chant

432

kantata *(4)*
Ahots batentzat edo gehiagorentzat egina den eta laguntza instrumentala duen konposizioa. Obra-mota eta genero bat baino gehiago adierazten ditu kantata terminoak. Eliza-musikako obra izan daiteke (oratorioaren antze-

koa), edo profanoa (antzezpenik gabeko operaren estilora moldatua). Kantata barrokoa da genero ezagunena (atal nagusiak: errezitatiboak, ariak, *da capo* ariak, duoak eta koruak).
en cantata
es cantata
fr cantate

433
kantilena *(4)*
Erdi Aroan, kanta, melodia; XIII-XV. mendeen bitartean, kanta polifonikoa; XIX. mendetik aurrera, ahots- edo instrumentu-konposizio laburra, eskuarki lirikoa edo sentimentala izaten dena.
en cantilena
es cantinela
fr cantilène

434
kantu *(4)*
1 Ahotsaren bidez musika-soinuak egitea; hori egiteko teknika eta artea.
en singing
es canto
fr chant

2 Ahots-musikako genero edo estilo batzuei emandako izena (esaterako, *kantu laua*, *kantu gregoriano*...).
en chant
es canto
fr chant
3 ➥ **kanta**

435
kantu gregoriano *(4)*
sin. gregoriano *(4)*
Eliza katolikoaren kantu liturgikoaren tradizioaren gunea osatzen duen kantu lau mota, mezan eta ofizioan kantatzekoa. Kantu monodikoa da, instrumentuen laguntzarik gabea, eliza-moduetan oinarritua eta noten arteko jauzi handirik gabea. Neuma bidezko notazioa erabiltzen du batez ere.
en Gregorian chant
es canto gregoriano; gregoriano
fr chant grégorien

436
kantu lau *(4)*
Eliza kristauaren kantu liturgikoen oinarria den kantu monodikoa eta eskuarki erritmo librekoa. Mendebaldeko elizaren tradizioan, kantu anbrosiotarra, galikanoa, antzinako erromatarra eta mozarabiarrak hartzen ditu; ekialdeko tradizioan, kantu armeniarra, bizantziarra eta siriarra.
en plain chant; plain song
es canto llano
fr plain-chant

437
kapritxo *(4)*
Forma askeko eta izaera biziko zenbait konposizio instrumental edo bokalek hartzen duten izena.
en caprice
es capricho
fr caprice

karrika-dantza
➥ **biribilketa**

438
kinteto *(4)*
Boskote batentzat egindako konposizioa.
en quintet
es quinteto
fr quintet

439

klasizismo *(4)*
sin. aldi klasiko *(4)*
Europar musikan, Barrokoaren eta Erromantizismoaren arteko aldia (XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera bitartekoa). J. Haydn eta W.A. Mozart konpositoreen musika da aldi horretako sorkuntzaren adierazle aipatuena (L. Van Beethoven ere klasizismoaren barnean kokatu ohi dute aditu batzuek).
en Classical period; classicism
es clasicismo; período clásico
fr classicisme; ère classique
☞ **musika klasiko**

440

koda *(4)*
Konposizio baten azken zatia, eranskin modukoa. Koda hasten den lekua 𝄐 ikurraz adierazten da.
en coda
es coda
fr coda

441

konposizio *(4)*
Musika sortzearen edo konposatzearen emaitza, egile batek sortutako musika-obra.
en composition
es composición
fr composition

442

kontradantza *(4)*
Erritmo bitarreko dantza arina, eskuarki 2/4 edo 6/8 konpasekoa, eta zortzi konpaseko oinarrizko egitura errepikakorra izaten duena. Ingalaterrako *country dance*n du jatorria, eta handik zabaldu zen Europa kontinentalera. XVIII. mendean jo zuen goia. Europa osoko folklorean gorde da, hainbat aldaeratan.
en contredance
es contradanza
fr contredanse

443

kontrasubjektu *(4)*
Fugan eta bestelako kontrapuntu-konposizioetan, subjektu nagusiaren ondoren agertzen den bigarren mailako subjektua, harekin edo haren erantzunarekin (dominantean jotzen den subjektuarekin) kontrastea egiten duena.
en countersubject
es contrasujeto
fr contresujet
☞ **fuga; subjektu**

444

kontzertante *(4)*
Instrumentu solistek eskaintzen dituzten posibilitateez baliatzen den pasarte-, konposizio- edo musika-mota. Esaterako, sinfonia kontzertantea edo estilo kontzertantea.
en concertante
es concertante
fr concertant, -ante
☞ **sinfonia kontzertante**

445

kontzertu *(4)*
1 Instrumentu solista baterako edo batzuetarako eta orkestrarako idatzitako konposizioa. Barrokoan sortzen da (*concerto grosso*rekin), eta Klasizismoan eta Erromantizismoan finkatzen da egitura (eta solista bakarra izatera jotzen du). Zenbait mugimenduz (eskuarki hiruz) osatuak izaten dira (arina-geldoa-arina).
en concerto
es concierto
fr concerto
☞ **concerto grosso**

2 Musika-konposizio baten edo batzuen jendaurreko emanaldia.

en concert
es concierto
fr concert
☞ **errezital**

446

koral *(4)*
Eliza protestantearen kantu liturgikoa, jatorriz unisonoan eta laguntza edo akonpainamendurik gabe kantatzen zena. Barrokoaren hasieran, polifonia eta laguntza sartzen dira (eskuarki organoan). Koralek konposizio-mota askotarako materiala eman dute (kantata, motetea...) eta bertatik forma instrumentalak ere sortu dira, batik bat organorako koralak (preludio, fuga, fantasia eta bariazio korala).
en chorale
es coral
fr choral

447

koru *(4)*
Koruak kantatzeko musika-pieza edo konposizio-atala.
en chorus
es coro
fr choeur

448

kuarteto *(4)*
Laukote batentzat egindako konposizioa.
en quartet
es cuarteto
fr quatuor

449

lelo *(4)*
1 sin. errepika *(4)*
Kanta batean, ahapaldien artean errepikatzen den atala.
en chorus; refrain
es estribillo
fr refrain

2 sin. errepika *(4)*
Rondo-forman, gai edo subjektu nagusia jotzen den atala.
en refrain; rondo
es estribillo; rondó
fr refrain; ritournelle
☞ **rondo**

450

libreto *(4)*
Ahots-konposizio baten literatura-testua, batez ere opera, zarzuela eta kidekoena.
en libretto
es libreto; libro
fr libretto; livret

451

lied *(4)*
Alemanezko kanta, testutzat poema eskuarki lirikoa izaten duena, eta ahots bakarrak edo batzuek kantatzekoa, instrumentu-laguntzaz edo gabe. Erromantizismoan garapen handia izan zuen, bereziki piano eta ahotserako genero gisa.

! Alemanezko hitza *lied* da, eta *lieder*, berriz, horren plurala; singularrerako zein pluralerako *lieder* forma erabiltzea aski hedatua dago (*lieder bat kantatu*, *liederrak konposatu*.), baina singularrerako egokiagoa litzateke *lied* forma erabiltzea (*lied bat kantatu*...).
en lied
es lied
fr lied

452

lo-kanta *(4)*
sin. obauba *(4)*; sehaska-kanta *(4)*
Erritmo geldoko kanta samurra, haurrak loak harrarazteko kantatzen dena; antzeko estiloa duen konposizioa.
en berceuse; cradle song; lullaby
es canción de cuna; nana
fr berceuse
☞ **berceuse**

453

madrigal *(4)*
Italian XIV. mendean sortutako eta Europan hedatutako musika-konposizio polifonikoa, ahots batzuetarako egina eta laguntza edo akonpainamendurik gabea. Testuetan gai profanoak erabiltzen dira.
en madrigal
es madrigal
fr madrigal

454

mambo *(4)*
Kubatar jatorriko dantza, tempo bizia eta lauko konpasa dituena; dantza horren musika. 1950eko hamarkadan sortu zen, eta jazz-banden instrumentazioa bereganatu zuen. *Txa-txa-txa* bezala, *danzón*aren bilakaeraren emaitza da.
en mambo
es mambo
fr mambo
☞ **danzón; txa-txa-txa**

455

martxa *(4)*
Talde baten urratsa markatzeko egindako konposizioa, biko edo lauko konpasa izaten duena, eta ospakizunaren izaeraren araberako tempoa izaten duena (martxa militarra, eztei-martxa, hileta-martxa...).
en march
es marcha
fr marche

456

mazurka *(4)*
Poloniako herri-dantza, erritmo hirutarrekoa, eta azentu sinkopatuak izaten dituena (bigarren eta hirugarren aldian); dantza horren musika, edo horren estiloan egindako konposizioa. XIX. mendearen erdialdean arrakasta handia izan zuen Europan, eta zenbait konpositorek erabili zuten musika-formatzat.
en mazurka
es mazurca
fr mazurka

melodia
➥ **doinu**

457

merengue *(4)*
Errepublika Dominikarreko dantza, konpas bitarrekoa (2/4), eta tempo bizia duena. XIX. mendean garatu zen, batez ere jatorri afrikarreko erritmoetatik abiatuta.
en merengue
es merengue
fr merengue

458

meza *(4)*
Eliza katolikoaren mezaren atal batzuetan interpretatzen diren musika-piezez osatutako forma eta konposizioa. Forma ohikoenean, ordinarioaren atal kantatuen araberako egitura du: Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus/Benedictus eta Agnus dei.
en mass
es misa
fr messe

459

minuet *(4)*
Konpas hirutarreko bikote-dantza, tempo geldokoa. Frantziar jatorrikoa da, eta XVII-XVIII. mendeetan oso dantza ezaguna izan zen. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren osagaia ere izan daiteke, sarritan *minuet eta trio* forman. Barrokoaren ondoren, minuetak ez zuen indarrik galdu.
en minuet
es minué; minueto
fr menuet

460

motet *(4)*
XIII-XVIII. mendeen bitarteko ahots-konposizio mota, polifonikoa eta eskuarki laguntza edo akonpainamendurik gabea, eta elizkizunetako testuak dituena. Moteteak garaiaren araberako ezaugarriak ditu. Erdi Aroan, *cantus firmus* baten gaineko polifonia-forma da; Errenazimentuan, latinezko testuak dituen erlijiozko ahots-polifonia kontrapuntistikoa.
en motet
es motete
fr motet
☞ **cantus firmus**

461

mugimendu *(4)*
Zenbait konposizioren atalen izena. Mugimendua atal aski beregaina izaten da, konposizio bereko beste mugimenduetatik bereizten duten tempoa eta izaera izaten dituena. Esaterako, sonata, kontzertu, sinfonia eta hari-koartetoaren atalak mugimenduak dira.
en movement
es movimiento
fr mouvement

462

musette *(4)*
Gabotaren antzeko dantza, konpas hirutarrekoa, eta artzain-giroa iradokitzen duena. Musette instrumentuaz lagundua izaten zen, eta XVII-XVIIII. mendeetako ballet frantsesetan erabili zen batez ere.
en musette
es mussette
fr musette

463

musika akademiko *(4)*
sin. musika jaso *(4)*; musika klasiko *(4)*; musika landu *(4)*
Europar musikaren testuinguruan, *herri-musika* terminoarekin kontrajarririk erabili ohi den terminoa, arte-sormenaren emaitza diren musika-estiloak izendatzeko.
en art music; classical music
es música académica; música clásica; música culta
fr musique classique; musique savant

464

musika aleatorio *(4)*
sin. ausazko musika *(3)*
1950eko hamarkadan sortutako musika-estiloa, obraren konposizioan eta interpretazioan ausazko prozesuei garrantzia ematen diena eta horietaz baliatzen dena.
en aleatory music
es música aleatoria
fr musique aléatoire

musika bokal
➥ **ahots-musika**

465

musika elektroakustiko *(4)*
1950eko hamarkadan sortutako musika-estiloa, zinta magnetikoan grabatutako soinuak eta sintesi bidez sortutakoak batera erabiltzen dituena.
en electroacoustic music
es música electroacústica
fr musique électroacoustique
☞ **musika konkretu**

466

musika elektroniko *(4)*
Instrumentu elektronikoen eta bestelako gailu elektronikoen bidez egiten diren musiken izendapen generikoa. Eskuarki, musika elektronikotzat jotzen da horrelako teknologian oinarritutakoa dena edo horrelakoez baliatzearen ondorio diren ezaugarriak dituena.
en electronic music
es música electrónica
fr musique électronique

musika erlijioso
➥ **erlijio-musika**

467

musika eszeniko *(4)*
sin. antzerki-musika *(3)*; eszenako musika *(4)*
Antzezpen-obra batean jotzen den musika. Obraren atal oso bat hartzen duen instrumentu-musika izan daiteke (obertura edo interludio baten modukoa), ekintzan tartekatzen den pieza, edo aktoreen hizketarekin batera entzuten den hondo-musika.

! Antzeko funtzioa betetzen badu ere, filmen musika izendatzeko ez da eskuarki *antzerki-musika* terminoa erabiltzen (horretarako, *soinu-banda* edo *film-musika* erabili ohi da).
en incidental music
es música escénica
fr musique de scène; musique scénique

musika folkloriko
➥ **herri-musika**

468

musika garaikide *(4)*
Musika akademikoaren testuinguruan erabili ohi den terminoa, berez gaur egungo musika adierazten duena, baina maiz XX. mendearen hasieraz gero tonalitatearen beheraldiarekin batera sortutako musika-produkzioa adierazteko erabiltzen dena.
en contemporary music
es música contemporánea
fr musique contemporaine
☞ **musika moderno**

469

musika instrumental *(4)*
sin. instrumentu-musika *(4)*
Instrumentuek bakarrik jotzekoa den musika, ahotsak parte hartzen ez duena.
en instrumental music
es música instrumental
fr musique instrumentale
☞ **ahots-musika**

musika jaso
➥ **musika akademiko**

470

musika klasiko *(4)*
1 Europar klasizismoan sortutako musika (Haydn, Mozart, Beethoven...).
en classical music
es música clásica
fr musique classique

☞ **klasizismo**
2 ➥ **musika akademiko**

471

musika konkretu *(4)*
1940ko hamarkadaren amaieran sortutako musika-estilo esperimentala, lehengaitzat soinu naturalak erabiltzen dituena. Soinu-iturriak objektu arruntak, natura-gertakariak, musika-instrumentuak eta abar izan daitezke, eta euskarri magnetikoan grabatu ondoren, zenbait prozeduraz eraldatuz eta konbinatuz bideratzen da sortze-prozesua.
en concrete music
es música concreta
fr musique concrète
☞ **musika elektroakustiko**

musika landu

➥ **musika akademiko**

472

musika moderno *(4)*

Esanahi lausoa duen terminoa; musika akademikoaren testuinguruan, musika garaikidearen antzeko adieraz erabili ohi da, baina baita herri-musikatik garatutako musika-genero eta -estilo batzuen multzoa adierazteko ere (jazza, rock-a, musika elektronikoa...).

en modern music
es música moderna
fr musique moderne

☞ **herri-musika; musika garaikide**

473

musika profano *(4)*

Erlijioarekin erlazionaturik ez dagoen musika.

en secular music
es música profana
fr musique profane

☞ **erlijio-musika**

musika serial

➥ **serialismo**

474

musika-forma *(4)*

sin. forma musikal *(4)*

Konposizioen egitura deskribatzeko erabiltzen diren eredu abstraktuetako bakoitza. Esaterako, forma bitarra, hirutarra, sonata forma... Ikuspegi zabalago batetik, egitura kontuan hartuta bereiz daitezkeen konposizio-motak ere musika-formak dira, hala nola kanon, fuga, suitea, sonata, kontzertua, sinfonia...

en musical form
es forma musical
fr forme musicale

475

mutil-dantza *(4)*

Nafarroa Garaiko iparraldeko zenbait eskualdetako dantza batzuen izen generikoa. Gizonezkoeak biribil irekian dantzatzen dute, eta biribilaren erdian txistularia eta atabal-jotzailea jartzen dira. Iparraldeko mutxikoen kideak dira.

☞ **mutxiko**

476

mutxiko *(4)*

Ipar Euskal Herrian biribil irekian dantzatzen diren dantza batzuen izen generikoa. Nafarroa Garaiko mutil-dantzen kideak dira.

☞ **mutil-dantza**

477

neoklasizismo *(4)*

XX. mendearen hasierako korrontea, musika barrokoari eta klasikoari lotu ohi zaizkien ezaugarri eta prozedura batzuk modu eta irizpide berriz berrerabiltzen dituena. Esaterako, I. Stravinskik 1920-1950 bitartean konposatutako musika.

en Neoclassicism
es neoclasicismo
fr néo-classicisme

478

nokturno *(4)*

XIX. mendean sortutako konposizio-mota, tempo geldokoa eta eskuarki pianorako egina.

en nocturne
es nocturno
fr nocturne

obauba

➥ **lo-kanta**

479

obertura *(4)*

Opera, oratorio eta oro har orkestra-obra nabarmenen sarrera gisako konposizio instrumentala. Obertura XVII. mendean sortzen da, oratorio eta operaren lehen ataltzat. Gerora, XIX. mendean, orkestra hutserako obren obertura edo *kontzertu-obertura* sortzen da.

en overture
es obertura
fr ouverture

480

okteto *(4)*

Zortzikote batentzat egindako konposizioa.

en octet
es octeto
fr octuor

481

opera *(4)*

Agertokian antzeztua izateko sortutako musika-obra, eskuarki testua osorik kantatua izaten duena eta orkestraz lagunduta interpretatzen dena. Antzeztua izatea da osorik kantatuak diren ahots-musikako beste konposiziomotetatik bereizten duena (esaterako, oratoriotik), eta testua osorik edo ia osorik kantatua izatea da kantua erabiltzen duten beste zenbait antzerki-obrekiko duen bereizgarri nagusia. Operaren generoak Italiako Errenazimentuan du jatorria, eta konposizio formalki desberdinak hartzen ditu.

en opera
es ópera
fr opéra

482

opera bufo *(4)*

sin. opera komiko *(4)*

Izaera komikoa edo arina duen operamota, eguneroko gaiak eta pertsonaiak erabiltzen dituena eta zati mintzatuak tartekatzen dituena. Italian sortu zen XVIII. mendean, opera serioaren amaieran edo intermezzoetan antzezten ziren pasarteak beregain bihurtu zirenean. Beste herrialdeetara zabaltzean, izendapen eta ezaugarri bereziak dituzten generoak eman zituen.

en comic opera; opera buffa
es ópera bufa; ópera cómica
fr opéra bouffe

opera komiko

➥ **opera bufo**

483

opera serio *(4)*

Gai historikoa edo mitologikoa duen opera, hiru ekitalditan emana, eta nagusiki errezitatiboz eta *da capo* ariaz osatua. XVII. mendearen amaieratik XIX. mendearen hasierara arte izan zuen indarra. Italiar jatorrikoa da, eta Alemania, Austrian eta Ingalaterran zabaldu zen.

en opera seria
es ópera seria
fr opera seria

☞ **opera bufo**

484

opereta *(4)*

Testu kantatuko atalen artean zati mintzatuak eta dantza-saioak tartekatzen dituen opera arin moduko obra. XIX. mendean sortu zen, eta konpositore nagusia J. Offenbach izan zen. Opereta da XX. mendeko musika-komedia edo musikalaren jatorria.

en operetta
es opereta
fr opérette

485

oratorio *(4)*
Orkestra, koru eta kantari solistentzako musika-obra, eskuarki erlijiozko gaia eta narrazio-egitura izaten dituena, eta antzeztu gabe interpretatzen dena. XVII. mendean sortu zen.
en oratorio
es oratorio
fr oratorio

486

organum *(4)*
Antzinako polifonia-forma, *cantus firmus* bat den melodia nagusiari (*vox principalis*) ahots bat edo batzuk (*vox organalis*) gehitzean oinarritua. Ahotsak melodia nagusia zortzidunean, bostunean edo beheko laudunean bikoiztu ohi du. IX. mendean sortu, eta XIII. mendearen lehen erdialdera bitartean erabili zen.
en organum
es organum
fr organum
☞ **cantus firmus; polifonia**

487

orkestrazio *(4)*
Instrumentu baterako edo instrumentu-multzo txiki baterako idatzitako konposizioa orkestrarako moldatzea, eta horren emaitza den moldaketa.
en orchestration
es orquestación
fr orchestration
☞ **instrumentazio**

orripeko
➥ **fandango**

488

pabana *(4)*
XV-XVII. mendeetako bikote-dantza, konpas bitarrekoa, geldoa eta zeremoniatsua; dantza horren musika edo horren estiloan egindako konposizioa. Pabanaren ondoren, saltarelloa edo gaillarda dantza arinak dantzatu ohi ziren.
en pavan; pavane
es pavana
fr pavane
☞ **gaillarda; saltarello**

parte
➥ **atal**

489

partita *(4)*
1 XVI-XVII. mendetan, bariazio-formako konposizio batzuen izendapena.
en partita
es partita
fr partita

2 XVII-XVIII. mendeetan, suite barrokoaren egitura bertsuko konposizio batzuei emandako izena.
en partita
es partita
fr partita
☞ **suite**

490

pasio *(4)*
Jesukristoren nekaldia kantatzen den konposizioa, ebanjelioen testuetan oinarritua izaten dena. XVII-XVIII. mendeetan, *oratorio-pasio* generoa landu zen (esaterako, J.S. Bachen pasioak).
en passion; Passion music
es pasión
fr Passion

491

pasodoble *(4)*
Erritmo bitarreko dantza, jatorriz Espainiakoa; dantza horren musika, eta horren estiloan egindako konposizioa.
en paso doble
es pasodoble
fr pasodoble

492

passacaglia *(4)*
Konpas hirutarreko dantza eta konposizioa, baxu ostinato baten gaineko bariazio-forma hartu ohi duena. Txakonaren antzeko ezaugarriak ditu. Jatorriz espainiarra da, eta handik pasatu zen Frantziara eta Italiara. Zenbait suite barrokoren osagaia da.
en passacaglia
es pasacalle
fr passacaille
☞ **txakona**

493

passamezzo *(4)*
Konpas bitarreko dantza geldoa, pabana baino arinxeagoa. Jatorriz italiarra da, eta, pabanak bezala, saltarelloa edo gaillarda izaten zituen ondoren.
en passamezzo
es passamezzo
fr passamezzo
☞ **gaillarda; pabana; saltarello**

494

passepied *(4)*
XVII-XVIII. mendeetan, konpas hirutarreko dantza arina (3/8), jatorriz frantsesa; dantza horren musika edo horren estiloan egindako konposizioa. Minuetaren antzekoa da, baina arinxeagoa, eta konpasaren azken aldian hasi ohi da.
en passepied
es passepied
fr passe-pied; passepied
☞ **minuet**

495

pastoral *(4)*
Zuberoako herri-antzerki mota, gaur egun herritarrek plazan ematen dutena. Antzezlan-, kantu- eta dantza-atalak ditu. Aktoreak bi taldetan banatuta daude, *onak* eta *gaiztoak*, eta ate batatik sartu eta jalgitzen dira agertokira. Horien guztien buru *errejenta* dago, zuzendaria. Seguru aski, Erdi Aroko antzerkian du jatorria.
en pastoral
es pastoral
fr pastorale

496

pieza *(4)*
Musika-konposizio soltea, edo beregaina den konposizio-atala.
en piece
es pieza
fr pièce

497

poema sinfoniko *(4)*
Orkestrarako konposizioa, eskuarki mugimendu bakarrekoa eta musikaz kanpoko gai baten erreferentzia izaten duena (poesia, narrazioa, kondaira...). Erromantizismoaren garaiko konposizio-mota da, programa-musikaren alorrekoa.
en symphonic poem
es poema sinfónico
fr poème symphonique
☞ **programa-musika**

498

polifonia *(4)*
Melodikoki beregainak diren ahotsak konbinatzen dituen konposizio-teknika eta musika-estiloa, linea melodiko bakarreko *homofonia*ri kontrajarria. Historikoki, XII-XVI. mendeen bitarteko laguntza edo akonpainamendurik gabeko ahots-musikari dagokiola erabili ohi da. Polifoniaren lehen formetako bat *organum* izan zela esan ohi da.
en polyphony
es polifonía
fr polyphonie
☞ **homofonia; organum**

499

polka *(4)*
2/4 konpaseko dantza arina, jatorriz Bohemiakoa eta XIX. mendearen lehen erdian Europa osora hedatu zena; dantza horren doinua, edo horren estiloan egindako konposizioa.
en polka
es polca
fr polka
☞ **bals**

500

polonesa *(4)*
Poloniar jatorriko dantza, 3/4 konpasekoa, eta tempo lasaia izaten duena; dantza honen musika, edo horren estiloan egindako konposizioa. XVI. mendearen amaieran sortu zen, XVII. mendean suitean agertu izan zen, eta XIX. mendean asko zabaldu zen, pianorako konposiziotzat. Anakrusirik gabea izaten da, eta aldi ahuleko kadentziak izaten ditu.
en polonaise
es polonesa
fr polonaise

pop
➥ **pop musika**

501

pop musika *(4)*
sin. pop *(4)*
Herri-musika modernoaren testuinguruan, nagusiki rock-aren eta folk-aren eraginak agertzen dituzten zabalkunde handiko zenbait musika-estilo izendatzeko edota kalifikatzeko erabiltzen den terminoa. Askotariko musika-ezaugarriak dituzten estiloak sailkatu ohi dira pop etiketaren barnean, baina ezaugarri nagusitzat aipatu ohi dira entzuleria handi bati begira sortua izatea, melodia argiak eta harmonia sinpleak, erritmo sinpleak (eskuarki lau-lauko konpasekoak) edo instrumentu elektrikoak zein akustikoak erabiltzea.
en pop; pop music
es música pop; pop
fr pop; pop musique
☞ **folk; herri-musika; rock**

502

porrusalda *(4)*
1 Euskal plaza-dantzetako bat. Arin-arin erritmoaren mota berekoa da, eta koplak tartekatuz kantatzen da. 2/4ko konpasean eta tempo arinean idazten da.

2 Txistularien artean, arin-arinaren aldaera, erritmo-oinarrian konpasaren bi parteetan kortxea puntuduna eta kortxeardia dituena, arin-arin normalari, soilik aurreko parteetan puntuak dituenari, kontrajarria.

503

pot-pourri *(4)*
Konposizio-zatiak kateatuz osatutako konposizioa edo musika-emanaldia. Eskuarki, kateamendua modulazio-pasarteen bidez egiten da.
en medley
es popurrí
fr pot-pourri

504

preludio *(4)*
1 Konposizio batzuen sarrera- edo atariko-moduko atal instrumentala, formaz aski librea. Jatorriz, konposizioaren tonalitatea finkatzeko erabili ohi zen eta inprobisazio-izaera izaten zuen. Barrokoan, fugaren aurrekoa izaten zen, eta suite batzuen lehen ataltzat ere agertzen da, alemandaren aurretik (bere barnean fuga-erako bigarren parte bat ere izaten du maiz).
en prelude
es preludio
fr prélude
☞ **atariko; obertura**

2 Opera baten atariko-moduko konposizioa.
en prelude
es preludio
fr prélude
☞ **atariko; obertura**

3 XIX. mendetik aurrera, instrumentu bakarrerako, eskuarki piano edo organorako, pieza beregain laburra. Bildumatan antolatu ohi dira.
en prelude
es preludio
fr prélude

505

programa-musika *(4)*
Musika hutsetik haraindi dauden ideiak, sentsazioak edo sentimenduak sorrarazi edo iradokitzeko asmoz konposatzen den musika. Batik bat, Erromantizismoaren garaian izan du garrantzia, XIX. mendean.
en program music
es música programática
fr musique à programme

506

ragtime *(4)*
AEBko musika-estiloa, 1890-1910 bitartekoa eta jazzaren garapenean eragina izan zuena. Pianorako musika gisa hedatu zen batez ere. Martxa-erritmoetatik eratorria da, eta erritmo sinkopatua du ezaugarri.
en ragtime
es ragtime
fr ragtime
☞ **jazz**

507

rapsodia *(4)*
XIX. mendearen hasieran sortutako konposizio instrumental mota, herri-musikako elementuak erabili ohi dituena eta formaz aski librea izaten dena.
en rhapsody
es rapsodia
fr rhapsodie

508

reggae *(4)*
Jamaikan 1960ko hamarkadan sortutako musika-estiloa, bertako *rock steady*ren eta beste zenbait estiloren bilakaera dena (*rhythm and blues, ska*...). 4/4 konpasa izaten du, baxuaren azentua hirugarren aldian, eta gitarra- edo piano-laguntza bigarren eta laugarren aldian.
en reggae
es reggae
fr reggae

509

requiem *(4)*
Eliza Katolikoak hildakoen alde egiten duen meza oinarritzat hartuz eginiko musika-konposizioa. Konpositore aleman batzuen *requiem*ak Bibliako testuetan oinarrituak dira; XX. mendean, hildakoen omenez egindako zenbait konposiziok ere *requiem* izena dute.
en Requiem
es réquiem
fr Requiem

510

rhythm and blues *(4)*
AEBko beltzen herri-musika, gospel, jazz eta bluesetik eratorria. 1940ko hamarkadaren amaieran sortu zen, eta eragin handia izan zuen rock-and-rollaren sorreran.
en rhythm and blues
es rhythm and blues
fr rhythm and blues
☞ **blues; rock-and-roll**

ripieno
➥ **tutti**

511

ritornello *(4)*

1 XVII. mendean, opera, kantata edo bestelako ahots-konposizio bateko instrumentu-pieza edo -atala.

en ritornello
es ritornello
fr ritournelle

2 XVII-XVIII. mendeetan, kontzertu-mugimendu edo aria batean errepikatzen den *tutti* atala.

en ritornello
es ritornello
fr ritournelle

512

rock *(4)*

Rock-and-rolletik eratorritako musika-estiloen multzoa. 1960ko hamarkadaren bigarren erdialdean hasi zen garatzen, batez ere AEBn eta Erresuma Batuan, eta era zein jatorri askotako eraginak hartu ditu.

en rock
es rock
fr rock

513

rock-and-roll *(4)*

AEBn 1950eko hamarkadan sortutako musika-estiloa, zenbait herri-musikaren eragina duena *(blues, country...)*, baina batez ere rhythm and blues-ena. Ezaugarri nagusiak dira bigarren eta laugarren aldian oso azentu ozena duen erritmoa izatea, eta gitarra elektriko eta bateria erabiltzea.

en rock and roll
es rock and roll
fr rock and roll

rondo

➥ **rondo-forma**

514

rondo-forma *(4)*

sin. rondo *(4)*

Errepikatzen den lelo batez eta errepikapen horien arteko atalez (*episodioez*) osatutako musika-forma. Hainbat konposizio-motaren egitura da. Rondoaren ohiko egiturak dira ABACA, ABACADA edo ABACBA. Europar musikaren garai klasikoan, rondoaren A atalak tonalitate berekoak izaten dira, eta episodioak, berriz, beste tonalitate eskuarki gertuko batzuetakoak. Sonata klasikoaren azken mugimendua rondo-formakoa izaten da.

en rondo; rondo form
es forma rondó; rondó
fr forme refrain; rondo

☞ **episodio; lelo; sonata**

rondo-sonata

➥ **rondo-sonata forma**

515

rondo-sonata forma *(4)*

sin. rondo-sonata *(4)*

Rondo- eta sonata-formaren ezaugarriak konbinatzen dituen musika-forma. Ohiko egitura ABACABA da, non B atalak bigarren gaia aurkezten baitu, eta C garapena baita. Garai klasikoko sonata eta beste zenbait konposizioren azken mugimenduaren forma izaten da.

en sonata-rondo; sonata-rondo form
es rondó sonata
fr forme rondo-sonate

☞ **rondo-forma; sonata-forma**

516

runba *(4)*
Afrikar erroak dituen Kubako dantza eta dantza horretarako musika. Erritmo bitar konplexua du eta oso sinkopatua da. Perkusio-instrumentuz laguntzen da (funtsean, conga-multzo batez eta klabez).
en rhumba; rumba
es rumba
fr rumba
☞ **son**

517

saltarello *(4)*
Konpas hirutarreko edo konpas konposatu bitarreko dantza arina, jatorriz italiarra, bikoteka eta konpas-hasieran hanka altxatuz dantzatzen zena; dantza horren doinua, edo horren estiloan egindako konposizioa. Gaillardaren antzekoa da, eta, hura bezala, pabanarekin elkartu ohi zen dantza-konposizioetako bat da.
en saltarello
es saltarello; saltarelo
fr saltarelle
☞ **gaillarda; pabana**

518

saltsa *(4)*
Jatorri afrikarreko zenbait erritmo karibetar (batez ere, kubatarrak) biltzen dituen musika-estiloa. Saltsak erritmo hauen eragina agertzen du batez ere: son, runba, cumbia, merengue eta plena. Saltsa-taldeen osaera arruntena honelakoa da: perkusio-instrumentuak, haize-instrumentuak, baxua, pianoa eta ahotsak. *Saltsa* izena New Yorkeko puertorricoarrak erabiltzen hasi ziren, 1960ko hamarkadaren amaieran.
en salsa
es salsa
fr salsa

519

sanba *(4)*
Dantza afrobrasildarra, 2/4 konpasekoa, tempo arinekoa eta erritmo sinkopatua duena.
en samba
es samba
fr samba
☞ **bossa nova**

520

sarabanda *(4)*
Errenazimentuaren eta Barrokoaren garaiko erritmo hirutarreko dantza. Jatorriz, Espainiako dantza arina zen, baina gerora tempo geldoko gorte-dantza bihurtu zen. Konpasaren bigarren aldia azentuduna izatea du ezaugarri. Konposizio instrumental gisa, suite barrokoaren ohiko osagaietako bat da (eskuarki, *courante*aren ondorengoa).
en sarabande
es sarabanda; zarabanda
fr sarabande
☞ **suite**

521

scherzo *(4)*
Estilo eta tempo arineko konposizioatala edo konposizioa, garaiaren araberako ezaugarriak dituena. XVIII. mendean, suitearen edo mugimendu anitzeko konposizio baten osagaia da, eskuarki 2/4 konpasekoa eta tempo arinekoa. XVIII. mendearen amaieratik aurrera, sinfonian eta sonatan minuetaren ordez agertu ohi den mugimendua da, eskuarki konpas hirutarrekoa eta tempo arinekoa izaten dena. Erromantizismoan, gainera, scherzoa konposizio beregaintzat ere lantzen da (batez ere, pianorako).
en scherzo
es scherzo
fr scherzo
☞ **minuet**

sehaska-kanta
➥ **lo-kanta**

522
septeto *(4)*
Zazpikote batentzat egindako konposizioa.
en septet
es septeto
fr septuor

523
serenata *(4)*
1 Gauez eta kanpoan, kalean edota norbaiten etxe aurrean interpretatzen den ahots- edota instrumentu-konposizioa.
en serenade
es serenata
fr sérénade

2 XVII-XVIII. mendeetan, zerbaiten kariaz egindako instrumentu-konposizioa, maiz ganbera-taldeek jotzeko konposatua. Garai klasikoan, 5-9 mugimenduz osatua izaten zen.
en serenade
es serenata
fr sérénade

524
serialismo *(4)*
sin. musika serial *(4)*
Serieen erabileran oinarritzen den konposizio-sistema. Dodekafonismoa hartu ohi da lehen serialismo-formatzat, eta 1940 inguruan serie dodekafonikoaren kontzeptua eskalako soinuen altueratik harantz aplikatzen hasi zen (iraupena, erritmoa, intentsitatea...; eskuarki, *erabateko serialismo* deritzo serialismoaren garapen horri).
en serial music; serialism
es música serial; serialismo
fr musique sérielle; sérialisme
☞ **dodekafonismo; serie**

525
sesteto *(4)*
Seikote batentzat egindako konposizioa.
en sextet
es sexteto
fr sextuor

526
sinfonia *(4)*
Orkestrarako konposizioa, hiru edo lau mugimendu aski luzez osatua. Sinfonia klasikoaren heldutasuna XVIII. mendearen erdialdean hasten da. Musika klasikoaren forma nagusietakoa da. Sonata orkestrara moldatzearen emaitza dela esan daiteke, eta lehen mugimenduak sonata-forma izaten du.
en symphony
es sinfonía
fr symphonie

527
sinfonia kontzertante *(4)*
XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako generoa, zenbait instrumentu bakarlarirentzakoa, eta kontzertu-formaren antzeko ezaugarriak dituena.
en symphonie concertante
es sinfonía concertante
fr symphonie concertante
☞ **kontzertante; kontzertu**

528
siziliana *(4)*
Konpas konposatu bitarreko (6/8) edo lautarreko (12/8) konposizio geldoa, giga geldo baten modukotzat jo izan dena. XVII-XVIII. mendeetakoa da, eta aria edo instrumentu-pieza izan daiteke. Suite barroko batzuen osagaia da.
en siciliana
es siciliana
fr sicilienne
☞ **giga**

529

ska

Jamaikan 50eko hamarkadaren amaieran sortutako musika-estiloa. Ezaugarri nagusietako bat da erritmoa konpasaren aldi ahuletan azentuatua izatea. Skaren bilakaerak reggae estiloa ekarri zuen, eta 80ko hamarkadan indarberritu egin zen, musikari britainiar batzuen eskutik.

en ska
es ska
fr ska
☞ **reggae**

530

son *(4)*

Kubako musika-generoa, XIX. mendearen amaieran europar eta afrikar elementuen nahasteak sortua. Konpas bitarra, tempo lasaia eta erritmo sinkopatua ditu; klabe-erritmo bereizgarria du. Talde txikiek (kantaria, *tres* gitarra, gitarrak, klabe, marakak, bongoak, güiro...) zein talde handiagoek (metala, kontrabaxua, congak...) jotzen dute.

en son
es son
fr son
☞ **runba**

531

sonata *(4)*

Konposizio instrumentala, eskuarki hiru edo lau mugimendu dituena, eta bakarlari batek edo instrumentu-talde batek jotzekoa dena. Sonataren egitura aldatuz joan da historian. Hasieran (XVI. mendea) egitura ez oso zehatzeko instrumentu-konposizioa zen. Barrokoan, bi forma nagusik zeramaten sonata izena: *sonata da chiesa*, lau mugimendukoa (geldoak eta arinak, txandaka); eta *sonata da camera*, dantza-suitearen antzekoa. Klasizismoan, sonataren egitura heldutasunera iritsi zen: hiru-lau mugimendu, tempo arin-geldoak txandaka (lehena allegro), eta lehen mugimendua sonata-forman.

en sonata
es sonata
fr sonate
☞ **sinfonia; sonata-forma; suite**

532

sonata-forma *(4)*

Mugimendu anitzeko zenbait konposizio-motaren lehen mugimenduaren eta eskuarki ondorengo mugimendu batzuen eredu den musika-forma, aurkezpenaz, garapenaz, berraurkezpenaz eta, eskuarki, kodaz osatua. Sonata, sinfonia, kontzertu, hari-koarteto eta beste hainbat konposizioren lehen mugimendua sonata-forma eredukoa izaten da. Klasizismoan heldutasunera iritsi zen.

en sonata form; sonata-allegro form
es forma sonata
fr forme sonate
☞ **aurkezpen; berraurkezpen; garapen; sonata**

533

sonatina *(4)*

Sonataren antzeko egitura duen konposizio instrumentala, laburragoa eta, teknikoki, eskakizun gutxiagokoa. Maiz pianorako konposizioa izaten da. XVIII. mendearen amaieran sortu zen.

en sonatina
es sonatina
fr sonatine
☞ **sonata**

534

soul *(4)*

1960ko hamarkadan AEBn sortutako herri-musika beltzaren estiloa, gospel, jazz eta bluesaren eragin handia duena.

en soul; soul music
es soul
fr soul

535

stretto *(4)*

Fugan, ahotsek subjektuaren imitazioa aurkezpenean baino denbora-tarte laburragoz egiten duten atala, eskuarki amaiera aldekoa izaten dena.

en stretto
es estrecho
fr strette
☞ **aurkezpen; fuga**

536

subjektu *(4)*

Konposizio baten edo horren atal baten oinarria den melodia edo melodia-atala, konposizioa garatzeko lehengaitzat hartzen dena, eta prozedura jakin batzuen arabera garatzen edo eraldatzen dena (askotan imitazio edo bariazioen bidez).

! Batzuetan, subjektua eta tema baliokidetzat erabiltzen dira (esaterako, sonata-forman); dena den, batez ere XIX. mendeaz geroztik, tema subjektua baino luzeagoa eta osatuagoa den elementutzat jo ohi da; bestetik, polifonian eta kontrapuntuan, *subjektu* erabili ohi da batez ere.

en subject
es sujeto
fr sujet
☞ **kontrasubjektu; tema**

537

suite *(4)*

Nolabaiteko batasuna edo ezaugarri komunak dituzten atalez osatutako konposizioa. Batasunaren eragilea askotarikoa izan daiteke: tonalitate bera, obra beretik ateratako atalak izatea, musikaz kanpoko gaiak... Suitearen izaera eta osaera garaiaren arabera aldatu da. Barrokoan (XVII-XVIII. m.), jatorriz dantza-formak diren eta eskuarki tonalitate berean (edo erlatibo maior eta minorrean) idatziak diren obra instrumentalez osatua da (*dantza-suite* ere erabili ohi da). Suite barrokoaren ohiko gunea alemanda, courante, sarabandaz eta gigaz osatua da. Horien aurretik, preludio bat izaten da batzuetan, eta beste dantza batzuk ere tarteka daitezke (gabota, bourrée, minuet...). XIX-XX. mendeetan, suitea iraupen luzeko obra batetik hautatutako zatien multzoa izan daiteke, edo gai batekin lotutako pieza-multzoa.

en suite
es suite
fr suite
☞ **partita; sonata**

538

swing *(4)*

1930eko hamarkadako jazz-estiloa, nagusiki orkestra handiek jotako dantza-musika izan zena.

en swing
es swing
fr swing

539

tango *(4)*

1 Dantza argentinarra, erritmo bitarrekoa eta bikoteka dantzatzen dena; dantza honen doinua, edo horren estiloan egindako konposizioa.

en tango
es tango
fr tango

2 Habaneraren antzeko dantza eta erritmoa.

en tango
es tango
fr tango
☞ **habanera**

540

tarantela *(4)*
Italiako hegoaldeko dantza, tempo arinekoa eta 3/8 edo 6/8 konpasekoa; dantza honen musika.
en tarantella
es tarantela
fr tarantelle

541

tema *(4)*
sin. gai *(4)*
Konposizio baten edo horren atal baten oinarria den ideia musikala, eskuarki melodia bat izaten dena, eta konposizioan areago garatu eta eraldatu daitekeena, material berria sortzeko.

! Batzuetan, *tema* eta *subjektu* baliokidetzat erabiltzen dira (esaterako, sonata-forman).
en theme
es tema
fr thème
☞ **bariazio; kontrapuntu; subjektu**

tenor
➥ **cantus firmus**

542

tertzeto *(4)*
Hirukote batentzat egindako konposizioa.
en terzet
es terceto
fr tercet

543

tokata *(4)*
Instrumentu bakarlarirako konposizioa, eskuarki estilo librekoa, fantasia- edo inprobisazio-erakoa, eta birtuosismoa agertzen duena. Tekla-instrumentuek (organoak, klabezinak) edo hari pultsatuko instrumentuak (lauteak) jotzekoa izaten da. Barrokoaren garaiko konposizioa da batez ere.
en toccata
es toccata
fr toccata

tradiziozko musika
➥ **herri-musika**

544

trikiti *(4)*
1 Akordeoi diatonikoz (*trikiti* ere deritzonaz) eta panderoz jotzen den euskal herri-musika eta, bereziki, ohikoak diren euskal plaza-dantzen eta kalejiren musika.
en trikitixa
es trikitixa
fr trikitixa
☞ **akordeoi**

2 Erritmo hirutarreko konposizioa, 3/4 edo 6/8ko konpasean tempo bizian idazten dena.
en trikitixa
es trikitixa
fr trikitixa
☞ **arin-arin**

545

trio *(4)*
Hirukote batentzat egindako konposizioa edo pasartea.
en trio
es trío
fr trio

546

trio-sonata *(4)*
Hiru partetarako instrumentu-konposizioa, eskuarki goi-erregistroko bi parte (bi instrumentu bakarlarik jotzekoak) eta baxu jarraituko partea dituena (instrumentu bakarrak edo bik jotzekoa). Barrokoaren garaiko ganbera-musikako forma nagusietako bat da.

en trio sonata
es sonata en trío; trío sonata
fr sonate en trio

547

tutti *(4)*
sin. ripieno *(4)*
*Concerto grosso*an, solista ez diren instrumentuen multzoa (*concertino*ri kontrajarria).
en ripieno; tutti
es ripieno; tutti
fr ripieno; tutti

548

txakona *(4)*
Konpas hirutarreko dantza eta musika-konposizioa, tempo lasaia izaten duena eta baxu ostinato baten gaineko bariazio-forma hartzen duena. Jatorriz espainiarra da, eta *passacaglia*ren antzeko ezaugarriak ditu. Suite barroko batzuen osagaia ere bada.
en chaconne
es chacona
fr chaconne
☞ **passacaglia**

549

txa-txa-txa *(4)*
Kubatar jatorriko dantza, tempo lasaia eta lauko konpasa dituena; dantza horren musika. 1950eko hamarkadan sortu zen, eta, *mambo*a bezala, *danzón*aren bilakaeraren emaitza da.
en chachachá
es chachachá
fr chachachá
☞ **danzón; mambo**

550

verismo *(4)*
Italian XIX. mendearen amaieran sortutako literatura- eta opera-eskola, eguneroko errealitatea eta gizarte-arazoak gaitzat hartzen zituena.
en verismo
es verismo
fr vérisme

551

zamba *(4)*
Argentina eta Boliviako bikote-dantza soltea, 6/8 konpasekoa, eta hemiolia-erritmoa agertu ohi duena; dantza horren musika, edo horren estiloan egindako konposizioa. Jatorriz Perukoa bide da, eta *cueca*ren kidea da.
en zamba
es zamba
fr zamba
☞ **cueca; hemiolia; sanba**

552

zarzuela *(4)*
Zati kantatuak eta mintzatuak txandakatzen dituen Espainiako opera-moduko obra. Garaiaren arabera, ezaugarri desberdinak izan ditu. XVII. mendean, italiar eragina handia izan zen; gerora, 1760 inguruan, gai kostunbristak hasi ziren lantzen; XIX. mendean, Espainiako musika-tradizioaren eta herri-musikaren eragina nabaria da, eta *género grande* (hiru ekitaldiko zarzuela) eta *género chico* (ekitaldi bakarrekoa) sortzen dira.
en zarzuela
es zarzuela
fr zarzuela

553

zortziko *(4)*

1 Euskal erritmo-mota, 5/8 konpasean idatzi ohi dena. Zortzikoaren erritmoa musika-notazioaren bidez adierazteko zein neurri edo konpas-mota erabili behar litzatekeen eztabaidatua da gaur egun ere, eta aski onartua da 5/8 erritmo erregularrak ez duela jasotzen zortzikoaren izaera zehatza.

! *zortziko* izeneko erritmoa ez da nahasi behar euskal bertsogintzako *zortziko* izeneko neurri-motarekin, hau da, zortzi bertso-lerroz osaturiko ahapaldiarekin (bertso-lerroen silaba-kopuruaren arabera *zortziko handi* eta *zortziko txiki* motak bereizten dira).

en zortziko
es zortziko
fr zortziko

2 Zortzi konpaseko zenbait dantzadoinuren izen generikoa. Horrelakoen konpasa bitarra izan daiteke (ez du zertan zortziko erritmoaren ohiko 5/8 konpasa izan).

en zortziko
es zortziko
fr zortziko

554

zubi *(4)*

1 Konposizio baten bi pasarteren arteko trantsizioa egiteko erabiltzen den pasartea. Zenbaitetan, modulazio-funtzioa izaten du (esaterako, sonata-formaren lehen eta bigarren temen artekoa).

en bridge
es puente
fr pont

2 Jazzean, AABA egiturako konposizioen B atalari eman ohi zaion izena.

en bridge
es puente
fr pont

MUSIKAREN TEORIA

555

a capella *(4)*
Musika-obraren interpretazioari buruz, kantu hutsez, instrumenturik gabe, edo, instrumenturik bada, ahotsen parteak bikoiztuz.
en a cappella
es a capella
fr a capella

556

a tempo *(4)*
Hasierako tempora itzuli behar dela adierazteko erabiltzen den argibidea.
en a tempo
es a tempo
fr à la mesure; a tempo

557

accelerando *(4)*
Tempoa pixkanaka handitzeko argibidea *(accel.)*.
en accelerando
es accelerando
fr accelerando

558

acciaccatura *(4)*
sin.apoiatura labur *(4)*
Apaindura-nota, nota nagusiaren aurretik oso azkar eta hari dagokion aldian zein lehenago hasita joz interpretatzen dena. Nota nagusira beste edozein notatatik hurbil daiteke, eta marratxo zeihar bat duen kortxea txiki batez irudikatzen da (♪).
en acciaccatura; short appoggiatura; short grace note
es acciaccatura; apoyatura breve; mordente de una nota
fr petit note non accentuée; petite note barrée

☞ **apaindura; apoiatura**



559

adagietto *(4)*
Tempo geldoa, *adagio* baino arinxeagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en adagietto
es adagietto
fr adagietto

560

adagio *(4)*
Tempo geldoa, *largo* eta *andante*ren artekoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en adagio
es adagio
fr adagio
☞ **tempo**

afinazio
➥ **intonazio**

afinazio doi
➥ **intonazio doi**

afinazio pitagoriko
➥ **intonazio pitagoriko**

561

agogika *(4)*
Abiadura-aldaketarekin lotuta dagoen espresioaren alderdia.
en agogics
es agógica
fr agogique
☞ **dinamika; ñabardura agogiko**

562

ahoa itxita *(4)*
Ahoa ireki gabe kantatu behar dela adierazteko erabiltzen den argibidea.
en humming; mouth closed
es boca cerrada
fr bouche fermée

ahots
➥ **parte**

563

ahots-joskera *(4)*
sin. ahots-mugimendu *(3)*
Polifonian eta kontrapuntuan, ahotsen mugimenduak elkarrekiko antolatzea, eta hori egiteko era. Irizpide nagusiak izaten dira ahotsen independentzia lortzea, eta mugimendu txikiak egitea.
en part writing; voice leading
es conducción armónica; conducción de voces
fr conduite des voix; marche des voix

ahots-mugimendu
➥ **ahots-joskera**

aitzinatze
➥ **aurreratze**

akonpainamendu
➥ **laguntza**

akonpainamendua egin
➥ **lagundu**

akonpainatu
➥ **lagundu**

564

akorde *(4)*
Harmonikoki konbinatutako nota batzuen multzoa. Eskuarki, akordea hiru notaz edo gehiagoz osatutakoari esaten zaio. Musika tonalean, akordeen oinarrizko egitura oinarri-nota baten gaineko hirudunez (maiorrez edo minorrez) osatua izaten da. Akordearen notak aldi berean jo daitezke, edo bata bestearen ondoren, halako ordenan (akorde arpegiatuan).
en chord
es acorde
fr accord
☞ **akorde arpegiatu; koatriada; triada**

565

akorde alteratu *(4)*
Dagokion tonalitatekoak ez diren notak dituen akordea. Alterazio kromatikoak dira, tonuerdiko urratsez ebatzi ohi direnak. Nagusiak: akorde seidun napolitarra, bostun gehitukoa, bostun gutxitukoa eta seidun gehitukoa.
en altered chord
es acorde alterado
fr accord altéré

566

akorde arpegiatu *(4)*
Notak batera ez baizik bata bestearen ondoren jotzen diren akorde-mota. Notak jotzeko ordenak ez du zertan altueraren arabera ondoz ondokoa izan, eta akordea horizontalean hedaturik adierazten da, hau da, noten balio erreala adierazten da notazioan.
en broken chord
es acorde arpegiado
fr accord arpégé; accord brisé

567

akorde gehitu *(4)*
Adiera zabalean, bitarte gehitu bat duen akordea; eskuarki, bostun gehitua duen akorde maiorra. Esaterako, do-mi-sol♯ triada gehitua.
en augmented chord
es acorde aumentado
fr accord augmenté
☞ **triada gehitu**

568

akorde gutxitu *(4)*
Hirudun minorra eta bostun gutxitua dituen akordea. Esaterako, triada gutxitua (mi-sol-si♭) edo zazpidun gutxituko akordea (mi-sol-si♭-re♭).
en diminished chord
es acorde disminuido
fr accord diminué
☞ **triada gutxitu; zazpidun gutxituko akorde**

akorde inbertitu
➥ **akorde irauli**

569

akorde irauli *(4)*
sin. akorde inbertitu *(3)*
Akordearen notak altueraren arabera antolatzeko erari dagokionez, beherenean oinarri-nota ez duen akordea. Esaterako, do akorde maiorraren oinarrizko antolaera do-mi-sol da. mi-sol-do eta sol-do-mi ere do akordearen antolaerak dira, baina iraulita edo inbertituta daude, eta akordearen inbertsioak direla esaten da. Lehena akorde seiduna da, eta bigarrena, sei-lauduna.
en inverted chord
es acorde invertido
fr accord renversé
☞ **akorde seidun; akorde sei-laudun; inbertsio**

akorde koatriada
➥ **koatriada**

570

akorde maior *(4)*
Hirudun maiorra eta bostun justua dituen akordea. Esaterako, do-mi-sol triada akorde maiorra da.
en major chord
es acorde mayor
fr accord majeur
☞ **akorde minor; triada**

571

akorde minor *(4)*
Hirudun minorra eta bostun justua dituen akordea. Esaterako, do-mi♭-sol triada akorde minorra da.
en minor chord
es acorde menor
fr accord mineur
☞ **akorde maior; triada**

572

akorde perfektu *(4)*
Oinarri-notaz, horren hirudunaz eta bostun justuaz eratua den akordea. Hiruduna maiorra edo minorra den, akorde perfektu maiorra edo minorra da; esaterako, do akorde perfektu maiorra (do-mi-sol) eta do akorde perfektu minorra (do-mi♭-sol).
en common chord
es acorde perfecto
fr accord parfait
☞ **triada**

akorde perfektu maior
➥ **triada maior**

akorde perfektu minor
➥ **triada minor**

573

akorde seidun *(4)*
Seidun bitartea duen akordea. Mota asko daude. Arruntena triada maiorraren lehen inbertsioa da (mi-sol-do); inbertsioa adierazteko, 6 goi-indizea erabiltzen da.
en sixth chord
es acorde de sexta
fr accord de sixte
☞ **seidun atxikiko akorde**

574

akorde seidun napolitar *(4)*
sin. seidun napolitar *(4)*
Subdominantearen gainean eratu ohi den akordea, hirudun minorra eta seidun minorra dituena (do tonalitatean, fa-la♭-re♭ litzateke).
en Neapolitan sixth; Neapolitan sixth chord
es acorde de sexta napolitana; sexta napolitana
fr accord de sixte napolitaine; sixte napolitaine

575

akorde sei-laudun *(4)*
Triada maiorraren bigarren inbertsioa. Esaterako, do akordearen sol-do-mi inbertsioa. Inbertsioa adierazteko, 6 eta 4 goi-indizeak erabiltzen dira, bata bestearen gainean daudela.
en six-four chord
es acorde de sexta y cuarta
fr accord de sixte et quarte

akorde triada
➥ **triada**

576

akorde zazpidun *(4)*
Oinarri-notaren zazpiduna duen akordea. Esaterako, zazpidun minorreko akordea (sol-si-re-fa), V. graduan eratua denean, dominante-akorde zazpiduna esaten zaiona.
en seventh chord
es acorde de séptima
fr accord de septième
☞ **dominante-akorde zazpidun; koatriada**

577

akorde zazpidun minor *(4)*
Oinarri-notaren zazpidun minorra duen akorde minorra. Esaterako, do-mi♭-sol-si♭.
en minor seventh chord
es acorde de séptima menor; acorde menor de séptima
fr accord de septième mineure

578

akorde-progresio *(4)*
sin. akorde-segida *(4)*; progresio harmoniko *(4)*
Bi akorde edo gehiagoren segida koherentea; ondoz ondoko akordeen arteko lotura egiteko era.
en chord progression; progression
es encadenamiento de acordes; progresión; progresión armónica
fr enchaînement d'accords; enchaînement harmonique; progression harmonique

akorde-segida
➥ **akorde-progresio**

579

Alberti baxu *(4)*
Baxuan egiten den laguntza- edo akonpainamendu-mota, triadaren notak behekoa-goikoa-erdikoa-goikoa ereduaren arabera errepikatuz jotzen dena. XVIII. mendeko teklatu-musikan erabili da batez ere.
en Alberti bass
es bajo de Alberti
fr basse d'Alberti

alderantzikatze
➥ **inbertsio**



Alberti baxua
(Fernando Sor, op. 35, No. 13)

580
aldi *(4)*
Konpasaren zatietako bakoitza. Konpasean dagoen aldi-kopuruaren arabera, konpasa bikoa edo bitarra (esaterako, 2/4), hirukoa edo hirutarra (esaterako, 3/4) eta laukoa edo lautarra izan daiteke (esaterako, 4/4). Bestelako aldi-kopurua badu (5, 7, 11...), konbinazio-konpasa da. Aldi bakoitza zenbatetan zatitzen den, konpasa bakuna izan daiteke (biko zatiketa: 2/4, 3/2, 4/8), edo konposatua (hiruko zatiketa: 6/4, 9/8, 12/8).
en beat
es parte; tiempo
fr temps
☞ **konpas**

581
aldi ahul *(4)*
Konpasaren aldi indartsuaren ondorengo aldietako bakoitza, azentu metrikoa ez duena.
en weak beat
es parte débil
fr temps faible
☞ **aldi indartsu**

582
aldi indartsu *(4)*
Azentu metrikoa duen konpasaren aldia. Erritmo bitar eta hirutarretan, lehen aldia da. Orobat erritmo lautarretan, baina horrelakoetan hirugarren partea bigarren mailako parte indartsutzat jo ohi da.
en downbeat; strong beat
es parte fuerte
fr temps fort
☞ **aldi ahul**

583
allegretto *(4)*
Tempo arina, *allegro* baino arinxeagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en allegretto
es allegretto
fr allegretto

584
allegro *(4)*
Tempo arina, *andante* eta *vivace*ren artekoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en allegro
es allegro
fr allegro
☞ **tempo**

585
alteratu *(4)*
Nota baten altuera alterazio batez aldatu.
en alter
es alterar
fr altérer



Alterazioak

586

alterazio *(4)*
Notaren altuera aldatzen duen zeinua. Aldaketa tonuerdikoa izan daiteke (alterazio bakunetan) edo tonu batekoa (alterazio bikoitzetan). Alterazio bakunak bemola (♭), diesea edo sostenitua (♯) eta bekoadroa (♮) dira. Bekoadroak aurreko alterazioen eragina baliogabetzen du. Alterazio bikoitzak, berriz, bemol bikoitza (𝄫) eta diese edo sostenitu bikoitza (𝄪).
es alteración
fr altération
☞ **bekoadro; bemol; diese**

alterazio akzidental
➥ **behin-behineko alterazio**

587

alterazio bakun *(4)*
Tonuerdiko aldaketa adierazten duen alterazioa. Bemola (♭) eta diesea edo sostenitua (♯) eta bekoadroa (♮) dira.
es alteración simple
fr altération simple
☞ **alterazio bikoitz**

588

alterazio bikoitz *(4)*
Tonu bateko aldaketa adierazten duen alterazioa. Bemol bikoitza (𝄫) eta diese edo sostenitu bikoitza (𝄪) dira.
en double accidental
es alteración doble
fr double altération
☞ **alterazio bakun**

589

alterazio propio *(4)*
Armaduran zehazten den alterazioa, tonalitatearen baitakoa dena.
es alteración propia
fr altération constitutive
☞ **behin-behineko alterazio**

590

altu *(4)*
1 sin.goi- (4)
Instrumentu edo ahots baten erregistroan, goialdeko soinuei esaten zaie; oro har, maiztasun handiko soinuei esaten zaie.

! Zenbaitetan, *goi-* erabil daiteke: *goi-erregistro*, *goi-notak*...
en high; treble
es agudo, -a
fr aigu
☞ **baxu**

2 Lau ahotseko konposizio batean, goitik hasita bigarrena den ahots edo partea, sopranoaren eta tenorraren artekoa.
en alto
es alto
fr alto

591

altuera *(4)*
sin.soinu-altuera *(4)*
Soinu-uhinaren maiztasunarekin zuzenean lotutako ezaugarria. Uhinaren maiztasuna handitu ahala, soinua beheerregistrotik goi-erregistrora igotzen da.

en pitch
es altura; altura del sonido
fr hauteur; hauteur du son; hauteur tonal
☞ **maiztasun; soinu**

592

anakrusi *(4)*
Musika-esaldi baten hasierako aldi azentudunaren aurretik dagoen nota edo nota-multzo azentugabea.
en anacrusis; pickup; upbeat
es anacrusa; anacrusis
fr anacrouse

593

analisi *(4)*
sin. azterketa *(4)*
Musika-konposizioen ezaugarrien azterketa. Analisiaren aztergaiak eta horiek aztertzeko ikuspegiak askotarikoak izan daitezke (harmonia, melodia, erritmoa, forma eta egitura, instrumentazioa...; estiloen, garaiaren edo konpositorearen arabera...).
en analysis
es análisis
fr analyse

594

andante *(4)*
Tempo lasaia, *adagio* eta *allegro*ren artekoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den obra edo obraren zatia.
en andante
es andante
fr andante

595

andantino *(4)*
Tempo lasaia, *andante* baino arinxeagoa dena; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en andantino
es andantino
fr andantino

596

antolaera *(4)*
Akorde baten notak edo konposizio baten ahotsak elkarrekiko antolatzeko moduetako bakoitza. Antolaeraren arabera, akordearen noten ordena aldatu egiten da.
en position
es posición
fr position
☞ **antolaera ireki; antolaera itxi; inbertsio**

597

antolaera ireki *(4)*
Noten arteko distantzia izan litekeena baino handiagoa den antolaera-mota; akordeetan, behe- eta goi-notaren arteko bitartea (oinarri-nota kontuan hartu gabe) zortziduna baino handiagoa den antolaera-mota (hau da, goiko hiru ahotsen artean bostun edo seidun bitarteak daude).
en open position
es posición abierta
fr position large; position ouverte
☞ **antolaera itxi**

598

antolaera itxi *(4)*
Noten arteko distantzia ahal den txikiena den antolaera-mota; akordeetan, behe- eta goi-notaren arteko bitartea (oinarri-nota kontuan hartu gabe) zortziduna baino txikiagoa den antolaera-mota (hau da, goiko hiru ahotsen artean hirudun edo laudun bitarteak daude).

! Eskuarki, baldintza hori goiko hiru ahotsei bakarrik ezarri ohi zaie, eta behe-notak edo baxuak askatasun handiagoa izaten du zortzidunez aldatzeko, antolaera itxia izateari utzi gabe.
en close position
es posición cerrada
fr position fermée; position serrée
☞ **antolaera ireki**

599

antzinako modu *(4)*
sin. eliza-modu *(3)*
Erdi Aroan, kantu gregorianoaren errepertorioa sailkatzeko zenbait teorialanetan erabilitako terminoa. Moduen izenak antzinako grekoek erabilitako musika-sistematik hartu omen ziren, baina bi sistemen arteko ustezko lotura gero eta eztabaidatuagoa da, eta, gainera, interpretazio eta ulerkuntza desegokia tartean da (izen-nahasketa ekarri zuena). Modu bakoitzaren ezaugarriak dira amaiera-nota (*finalis*), nota osagaien arteko bitarte-erlazioak, eta hedadura (*ambitus*). Moduak bi tetrakordez osatutako unitatetzat analizatu ohi dira.

en ancient mode; church mode; ecclesiastical mode
es modo antiguo; modo eclesiástico
fr mode ancien; mode d'Église; mode ecclésiastique
☞ **modu autentiko; modu plagal; tetrakorde**

600

apaindura *(4)*
1 Melodiaren (eta, gutxiagotan, harmoniaren) osagarri erabiltzen den baliabidea, eskuarki nota batez edo batzuez osatua, eta musika edertzeko asmoz erabiltzen dena.

en embellishment; grace; ornament; ornamentation
es adorno; ornamentación
fr agrément; ornementation
☞ **apaindura-nota**

2 ➥ **apaindura-nota**

601

apaindura-nota *(4)*
sin. apaindura (4)
Melodia bateko nota baten apaingarri den nota edo nota-multzoa.

en grace note; ornament
es adorno; nota de adorno
fr note d'ornement; ornement
☞ **acciaccatura; apoiatura; gruppetto; mordente; trillo**

602

apoiatura *(4)*
1 Nota nagusiarekin bitartea osatzen duen aurretiko apaindura-nota, beheranzkoa zein goranzkoa. Osatzen duen bitartea gradukoa (biduna) zein jauzierakoa izan daiteke (biduna baino handiagoa). Tentsio harmonikoa sortzea da haren funtzioa, eta beti konpasaren aldian gertatzen da, aurreratu gabe.

en appoggiatura; grace note; leaning note
es apoyatura
fr appoggiature; petit note
☞ **acciaccatura; apaindura-nota**



Akordearen antolaeraren adibideak



apoiatura

2 Kontrapuntuan, konpasaren aldi indartsu batean gertatzen den nota arrotza, hurrengo aldi batean urraskako mugimenduz ebazten dena.

en appoggiatura
es apoyatura
fr appoggiature
☞ **nota arrotz**

apoiatura labur
➥ **acciaccatura**

603

argibide *(4)*
sin. marka *(3)*
Konposizio, atal edo pasarte bat nola jo edo interpretatu behar den adierazteko erabiltzen den ikurra, laburdura, hitza edo esaldia. Noten altuera eta balioa zehazten dituzten notazio-baliabideen osagarriak dira. Musikaren hainbat alderdiri eragiten diote: tempoa, neurria (konpasa), intentsitatea edo dinamika, artikulazioa, espresioa, instrumentua jotzeko argibide tekniko bereziak...

en direction; indication; mark; performance mark
es indicación
fr indication

604

armadura *(4)*
Pentagraman klabearen ondoan idazten diren bemol edo dieseen multzoa. Eskuarki, armadurak konposizioaren edo pasartearen tonalitatea adierazten du. Armadura bakoitzak modu maior bat eta dagokion minor erlatiboa adierazten ditu; esaterako, armaduran diese bat (fa diesea, hain zuzen) agertzeak adierazten du tonalitatea sol maiorra edo mi minorra izan daitekeela).

en key signature
es armadura
fr armature; armure
☞ **alterazio propio**

605

armadura-aldaketa *(4)*
Pentagraman armadura berria agertzea, tonalitate-aldaketaren adierazgarri. Aurretik barra bikoitza izaten du.

en change of key signature; key signature change
es cambio de armadura
fr changement d'armure
☞ **modulazio**

606

arpegio *(4)*
Akorde baten noten elkarren segidako interpretazioa, behetik gora zein goitik behera egina. Arpegio-eran jo behar dela adierazteko, ; ikurra erabili ohi da akordearen aurretik.



en arpeggio
es arpegio
fr arpège
☞ **akorde**



arpegioa

607

artikulazio *(4)*
Interpretazioan, notari ekiteko eta hurrengo noten soinuekin lotzeko edo horietatik bereizteko moduetako bakoitza. Artikulazioaren funtsa dira notari ekiteko moduen kontrola eta noten arteko isilune txikiak kudeatzea (artikulazio-isiluneak), musika-esaldiak argitasuna izan dezan. Antzinako musikan, artikulazioa espresio-bide nagusietakoa zen.
en articulation
es articulación
fr articulation
☞ **legato; staccato**

608

atonalismo *(4)*
sin. atonalitate (4)
Atonaltasuna oinarri duen sistema, konposizio-teknika eta -estiloa; bereziki, Europan XX. mendearen lehen hamarkadan sortzen den musika-estiloa (Schoenberg, Webern, Berg...). Dodekafonismoa sortu aurrekoari (1906-1923) *atonalismo libre* deitu ohi zaio.
en atonality
es atonalidad; atonalismo
fr atonalisme; atonalité
☞ **dodekafonismo**

atonalitate
1 ➥ **atonaltasun**
2 ➥ **atonalismo**

609

atonaltasun *(4)*
sin. atonalitate *(4)*
Harmonia klasikoko funtzio tonalak utzi eta eskala kromatikoko graduen autonomian oinarritzen den musikaren ezaugarria.
en atonality
es atonalidad; atonalismo
fr atonalisme; atonalité
☞ **atonalismo**

610

atzekoz aurrerako *(4)*
Motibo edo serie bati buruz, jatorrizkoaren nota-ordena atzekoz aurrera berrantolatuz sortzen dena. Musika dodekafonikoan maiz erabiltzen da seriearen atzekoz aurrerako bihurketa.
en retrograde
es retrógrado, -a
fr rétrograde

611

atzeratze *(4)*
Akordea aldatzean ahots batean mantentzen den aurreko akordearen nota erabiltzea, une horretan disonantzia sortzen duena, hurrengo une batean akorde berriarekin kontsonantea den notara aldatu arte. Notaren ebazpena, beraz, atzeratu egiten da. Eskuarki, atzeratzen den nota konpasaren aldi indartsuan mantentzen da, eta urraskako mugimenduz ebazten da, maiz beherantz.
en retardation; suspension
es retardo
fr retard
☞ **aurreratze; nota arrotz**

=

612

aurreratze *(4)*
sin. aitzinatze *(4)*
Uneko harmoniarekiko disonantea den eta ondoren datorren akordearena den nota erabiltzea.
en anticipation
es anticipación
fr anticipation
☞ **atzeratze; nota arrotz**

613

auzo-nota *(4)*
sin. nota osagarri *(4)*
Nota kontsonante baten ondoko graduan (gainean zein azpian) dagoen nota arrotza, nota kontsonantera itzuliz ebazten dena. Auzo-notak konbinatu egin daitezke (*auzo-nota bikoitzak*).
en auxiliary tone; neighboring tone; neighbour tone
es bordadura; floreo; nota auxiliar
fr broderie
☞ **nota arrotz**

614

azentu *(4)*
1 Musika-elementu bat nabarmentzea. Nabarmendua nota baten edo batzuen intentsitatea izan daiteke (azentu dinamikoa), haien iraupena edo haien altuera. Horrez gain, azentu metrikoa eta erritmikoa ere badaude. Lehena neurri edo konpasaren aldi indartsuan gertatzen da. Azentu erritmikoa, berriz, zenbait alderdiren emaitza da (azentu dinamikoa, artikulazioa, fraseatzea...), eta azentu metrikoarekin gatazka sor dezake (horrelakoetan, sinkopa sortzen dela esan ohi da).
en accent
es acento
fr accent
☞ **artikulazio**

2 sin. azentu-marka *(3)*
Nota baten azentu dinamikoa adierazteko erabiltzen den ikurra. Notaren gainean jartzen da. Bi ikur nagusi daude: > eta ∧. Oro har, esan ohi da bigarrenak intentsitate handiagoa eta ekite bizkorragoa adierazten dituela, baina konpositoreen praktika ez da beti horrelakoa.
en accent; accent mark
es acento; signo de acentuación
fr accent
☞ **artikulazio**

615

azentu dinamiko *(4)*
sin. intentsitate-azentu *(4)*
en dynamic accent
es acento de intensidad; acento dinámico
fr accent d'intensité; accent dynamique

616

azentu erritmiko *(4)*
en rhythmic accent
es acento rítmico
fr accent rythmique

617

azentu metriko *(4)*
en metrical accent
es acento métrico
fr accent métrique

618

azentuatze *(4)*
sin. azentuazio *(4)*
Musika-elementu bat azentuz nabarmentzea.
en accentuation
es acentuación
fr accentuation
☞ **azentu**

azentuazio
➥ **azentuatze**

619

azentudun *(4)*
Azentuz nabarmenduta dagoen musika-elementua (esaterako, nota azentuduna).
en accented
es acentuado, -a
fr accentué, -ée
☞ **azentu**

azentu-marka
➥ **azentu**

azpimarratu
➥ **tenuto**

azterketa
➥ **analisi**

620

bakarlari *(4)*
sin. solista *(4)*
Soloaren partea interpretatzen duen instrumentista edo kantaria.
! Zenbaitetan, *bakarreko+ izena* egitura ere erabili ohi da; esaterako, *bakarreko kantari.*
en soloist
es solista
fr soliste
☞ **solo**

621

balio *(4)*
Noten edo isiluneen iraupen erlatiboa. Ohiko musika-notazioan, balioa adierazteko nota-irudi bakoitzak hurrengoaren balio bikoitza du (hau da, 𝅗𝅥 = ♩ + ♩). Balioak luzatzeko aukera dago, esaterako, puntua erabiliz (balioaren erdia gehitzen zaio), edo balio-ligatura erabiliz.
en value
es valor
fr valeur
☞ **balio-ligatura; iraupen; puntu; tempo**

622

balio-ligatura *(4)*
sin. balio-lotura *(4)*
Altuera bereko bi nota-irudi lotzen dituen ligatura, bi nota-irudien balioak batzen dituena.
en tie
es arco; ligadura de prolongación; ligadura de unión
fr liaison de durée; liaison de prolongation; liaison de tenue
☞ **espresio-ligatura; ligatura**

balio-lotura
➥ **balio-ligatura**

notak		isiluneak
nota-irudia	baliokidetza	isilune-irudia
𝅝	𝅗𝅥+𝅗𝅥	𝄻
𝅗𝅥	♩+♩	𝄼
♩	♪+♪	𝄽
♪	𝅘𝅥𝅯+𝅘𝅥𝅯	𝄾
𝅘𝅥𝅯	𝅘𝅥𝅰+𝅘𝅥𝅰	𝄿
𝅘𝅥𝅰	𝅘𝅥𝅱+𝅘𝅥𝅱	𝅀
𝅘𝅥𝅱		𝅁

noten eta isiluneen balioak

623

barra bikoitz *(4)*
Pentagrama goitik behera zeharkatzen duten bi barra paraleloak. Barra bikoitz arruntak armadura- edo konpas-aldaketa adierazteko erabiltzen dira, edo pasarte baten amaiera. Bigarren barra lodiagoa denean, konposizioaren edo

atal nagusi baten amaiera adierazten du.
en double bar; double barline
es doble barra
fr double barre
☞ **konpas-barra**

624
bat-bateko irakurketa *(4)*
sin. errepentizazio *(4)*
Partitura lehen aldiz irakurri ahala jotzea edo kantatzea, aurretik ikasi edo prestatu gabe.
en sight-reading; sight-singing
es lectura a primera vista; repentización
fr déchiffrage; lecture à vue

625
baxu *(4)*
1 sin. behe- (3)
Instrumentu edo ahots baten erregistroan, behealdeko soinuei esaten zaie; oro har, maiztasun txikiko soinuei esaten zaie.
! Zenbaitetan, *behe-* erabil daiteke: *behe-erregistro*, *behe-notak*...
en bass; low
es grave
fr grave
☞ **altu**

2 Ahots anitzeko konposizio batean, goitik hasita azkena den ahots edo partea, erregistro beherenekoa.
en bass
es bajo
fr basse

3 Akorde baten beheko nota.
en bass
es bajo
fr basse
☞ **oinarri-nota**

626
baxu ibiltari *(4)*
sin. walking bass *(4)*
Baxuan egiten den laguntza- edo akonpainamendu-mota, oro har balio bereko notez osatua (esaterako, beltzez), eta nagusiki urraskako mugimenduz garatzen dena. Terminoa jazzean erabiltzen den baxu-mota adierazteko erabiltzen da.
en walking bass
es bajo caminante
fr walking bass

627
baxu jarraitu *(4)*
sin. continuo *(4)*
Konposizio baten etengabeko baxu instrumentala, gehienetan zifratua eta instrumentu polifonikoak (klabezinak, organoak, lauteak...) edo monodikoak (biolontxeloak, kontrabaxuak, fagotak...) jotzen duena (XVI-XVIII. m.) *Continuo* ere esaten zaio, eta askotan *baxu zifratu*ren sinonimoa da.
en basso continuo; continuo; thoroughbass
es bajo continuo; continuo, -a
fr basse continué; continuo
☞ **baxu zifratu**

628
baxu ostinato *(4)*
Baxuan egiten den ostinatoa, eskuarki motibo melodiko-erritmiko laburra izaten dena.
en ground; ground bass
es bajo ostinato
fr basse contrainte; basse obstinée
☞ **ostinato**

629

baxu zifratu *(4)*
Akordeak adierazteko sistema, akordearen beheko notaz eta gainean horri erantsi behar zaizkion notak adierazten dituzten zenbaki batzuez osatua. XVII-XVIII. mendeetan erabili zen batez ere.
en figured bass
es bajo cifrado
fr basse chiffrée
☞ **baxu jarraitu**

behe-
➥ **baxu**

630

beheko zortzidunean *(4)*
Pasarte bat idatzita dagoen baino zortzidun bat beherago jo behar dela adierazteko argibidea. Pentagramaren behealdean jartzen da (8va edo 8vb).
en ottava bassa
es octava baja
fr octave inférieur

631

beheranzko bitarte *(4)*
Bigarren nota edo soinua lehena baino baxuagoa den bitarte melodikoa.
en descending interval
es intervalo descendente
fr intervalle descendant
☞ **goranzko bitarte**

632

behin-behineko alterazio *(4)*
sin. alterazio akzidental *(3)*
Armaduran ez baizik dagokion nota-irudiaren aurretik jartzen den alterazioa. Aski praktika zabaldua da behin-behineko alterazioek konpas barruko balioa izatea (hurrengo konpasean, armaduran zehaztutako alterazioek balio dute berriz), baina praktika hori ez da orokorra, ez garai guztietan, ez estilo guztietan.
en accidental
es alteración accidental
fr altération accidentelle
☞ **alterazio propio**

633

bekoadro *(4)*
Aurretik diese edo bemol batez alteratu den nota batek altuera naturala hartzen duela adierazteko erabiltzen den zeinua (♮).
en natural
es becuadro
fr bécarre
☞ **bemol; diese**

634

beltz *(4)*
Zuriaren erdia (edo kortxearen bikoitza) balio duen nota-irudia (♩).
en crotchet; quarter note
es negra
fr noire

635

beltzeko isilune *(4)*
Beltz baten balioa duen isilunea (𝄽).
en crotchet rest; quarter rest
es silencio de negra
fr soupir
☞ **isilune**

636

bemol *(4)*
1 Tonu-erdiko beheranzko altuera-aldaketa adierazten duen zeinua (♭).
en flat
es bemol
fr bémol
☞ **alterazio; diese**

2 Berez duen soinu naturala baino tonuerdi bat beherago dagoen nota (esaterako, re bemola, la bemola...).
en flat
es bemol
fr bémol
☞ **diese**

637

bemol bikoitz *(4)*

1 Beheranzko tonu bateko altuera-aldaketa adierazten duen zeinua (𝄫).

en double flat
es doble bemol
fr double bémol

2 Berez duen soinu naturala baino tonu bat beherago dagoen nota.

en double flat
es doble bemol
fr double bémol

638

bidun *(4)*

sin. bidun bitarte *(4)*

Eskala diatonikoaren ondoz ondoko bi notaren arteko bitartea. Bitartea tonu osokoa bada *bidun maiorra* da (do-re), eta tonuerdikoa bada, *bidun minorra* (do-re♭).

en second; step
es intervalo de segunda; segunda
fr seconde

☞ **bitarte maior; bitarte minor**

bidun bitarte

➥ **bidun**

639

bigarren lerroko do klabe *(4)*

Do nota (do_3) pentagramaren bigarren lerroan kokatzen duen klabe-mota.

en mezzo-soprano clef
es clave de do en segunda línea
fr clé d'ut deuxième ligne; clef d'ut deuxième ligne

☞ **do klabe**

640

biko konpas *(4)*

sin. konpas bitar *(4)*

Bi aldi dituen konpas-mota. Lehen aldia indartsua da, eta bigarrena, ahula. Konpas-adierazlearen goiko zenbakia *2* edo *6* da, konpas bakuna edo konposatua den. Esaterako, 2/2, 2/4, 2/8 edo 6/4 eta 6/8.



Bigarren lerroko do klabea (do_3)

en duple meter; duple time
es compás binario
fr mesure à deux temps; mesure binaire

☞ **konpas bakun; konpas konposatu**

641

bikoiztu *(4)*

1 Ahots edo instrumentu baten parte bera kantatu edo jo, unisonoan zein zortzidun bateko edo batzuetako distantzian.

en double
es doblar
fr doubler

2 Pasarte baten tempoa bi aldiz arinagoa egin.

en double
es doblar
fr doubler

642

bikotxo *(4)*

Bi notaz osatutako balio bereziko multzoa, balio bereko hiru notaren baliokidea dena. Esaterako, 6/8 konpas batean, kortxea-bikotxoak aldi oso baten balioa du, hau da, hiru kortxearen balioa. Noten gaineko 2 zenbakiaz adierazten da.

en duplet
es dosillo
fr duolet



643

biribil *(4)*

Gaur egun erabiltzen den balio handieneko nota-irudia, bi zurien (edo lau beltzen) balioa duena (𝅝).

en semibreve; whole note
es redonda
fr ronde

644

biribileko isilune *(4)*

Biribil baten balioa duen isilunea (𝄻).

en semibreve rest; whole rest
es silencio de redonda
fr pause
☞ **isilune**

645

bitarte *(4)*

Bi soinu edo notaren arteko altuera-tartea. Delako tarteak izendatzeko, hartzen dituen noten kopurua hartzen da lehenik kontuan (direlako bi notak barne hartuta); horretara, bitartea biduna, hiruduna, lauduna, bostuna, seiduna, zazpiduna, zortziduna eta abar izan daiteke. Horietako bakoitzaren barnean ere, bitarteak tonu- eta tonuerdi-kopuruaren arabera bereizten dira (esaterako, *gehitu, maior, justu, minor, gutxitu*...). Elkarren segidan dauden bi soinuren artekoari *bitarte melodiko* deritzo, eta aldibereko bi soinuren artekoari, *bitarte harmoniko*.

en interval
es intervalo
fr intervalle

646

bitarte bakun *(4)*

sin. bitarte sinple *(4)*

Zortziduna edo hori baino txikiagoa den bitartea.

en simple interval
es intervalo simple
fr intervalle simple
☞ **bitarte konposatu**

647

bitarte disonante *(4)*

Sistema tonalean, disonantziatzat hartzen den bitartea, beste bitarte batera aldatzea eskatzen duena.

en dissonant interval
es intervalo disonante
fr intervalle dissonant
☞ **disonantzia; kontsonantzia**

bitarte doi

➥ **bitarte justu**

648

bitarte gehitu *(4)*

Bitarte justuak edo bitarte maiorrak baino tonuerdi bat gehiago duen bitartea. Esaterako, bidun gehitua (do-re♯), laudun gehitua (do-fa♯) edo bostun gehitua (do-sol♯).

en augmented interval
es intervalo aumentado
fr intervalle augmenté
☞ **bitarte gutxitu; bitarte justu**



Bitarte-izen generikoak

Bitarteen taula



649

bitarte gutxitu *(4)*

Bitarte justuak edo bitarte minorrak baino tonuerdi bat gutxiago duen bitartea. Esaterako, bostun gutxitua (do-sol♭).

en diminished interval
es intervalo disminuido
fr intervalle diminué
☞ **bitarte gehitu; bitarte justu; bitarte minor**

650

bitarte harmoniko *(4)*

Aldi berean jotzen diren bi notaren arteko bitartea.

en harmonic interval
es intervalo armónico
fr intervalle harmonique
☞ **bitarte melodiko**

651

bitarte justu *(4)*

sin. bitarte doi *(4)*

Eskala diatonikoan, oinarri-notaren eta laudunaren, bostunaren zein zortzidunaren artean sortzen diren bitarteei esaten zaie. Laudun justuak 2 tonu eta tonuerdia ditu; bostun justuak, 3 tonu eta tonuerdia eta zortzidunak 5 tonu eta 2 tonuerdi. Unisonoa bitarte justutzat hartu ohi da.

en perfect interval
es intervalo justo
fr intervalle juste
☞ **bitarte gehitu; bitarte gutxitu**

652
bitarte konposatu *(4)*
Zortziduna baino handiagoa den bitartea; adibidez, bederatziduna, hamaikaduna, hamahiruduna...
en compound interval
es intervalo compuesto
fr intervalle composé

653
bitarte kontsonante *(4)*
Sistema tonalean, kontsonantziatzat hartzen den bitartea, beste bitarte batera aldatzea eskatzen ez duena.
en consonant interval
es intervalo consonante
fr intervalle consonant
☞ **kontsonantzia**

654
bitarte maior *(4)*
Eskala maior diatonikoan, oinarri-notaren eta bidunaren, hirudunaren, seidunaren eta zazpidunaren artean sortzen diren bitarteei esaten zaie. Bidun maiorrak tonu bat du, hirudun maiorrak 2 tonu, seidun maiorrak 4 tonu eta tonuerdia, eta zazpidun maiorrak 5 tonu eta tonuerdia.
en major interval
es intervalo mayor
fr intervalle majeur
☞ **bitarte minor**

655
bitarte melodiko *(4)*
Elkarren segidan jotzen diren bi notaren arteko bitartea.
en melodic interval
es intervalo melódico
fr intervalle mélodique
☞ **bitarte harmoniko**

656
bitarte minor *(4)*
Bitarte maiorra baino tonuerdi bat txikiagoa den bitartea. Horretara, bidun minorrak tonuerdia du, hirudun minorrak tonu eta tonuerdia, seidun minorrak 3 tonu eta 2 tonuerdi, eta zazpidun minorrak 4 tonu eta 2 tonuerdi.
en minor interval
es intervalo menor
fr intervalle mineur
☞ **bitarte maior**

bitarte sinple
➥ **bitarte bakun**

657
bitonalitate *(4)*
Konposizio edo pasarte batean, aldi berean bi tonalitate erabiltzea. Politonalitate-mota arruntena da.
en bitonality
es bitonalidad
fr bitonalité
☞ **politonalitate**

658
blue nota *(4)*
Tonalitate maior baten hiruduna, bostuna edota zazpiduna tonuerdi inguru beheratzea. Blues estiloaren ezaugarri nagusietakoa da (jazzean eta rock-and-rollean ere erabiltzen da).
en bent pitch; blue note
es nota blue; nota blues
fr blue note
☞ **blues; blues-eskala**

659
blues-eskala *(4)*
sin. blues-gama *(4)*
Blue notak dituen eskala; batik bat, tonikaz, laudunaz eta bostunaz gain, hirudun eta zazpidun minorrak dituen eta bostun gutxitua ere izaten duen

eskala (do-mi♭-fa-sol♭-sol-si♭). Ohiko notez gain blue notak dituen eskala maiorra ere izan daiteke (batez ere, modu mixolidioa).

en blues scale
es escala de blues
fr gamme blues
☞ **blue nota; blues**

blues-gama
➥ **blues-eskala**

660
bokalizazio *(4)*
Hitzak edo noten izena esan gabe, bokal bat edo batzuk ahoskatuz kantatzea.

en vocalisation; vocalization
es vocalización
fr vocalise

661
bostekotxo *(4)*
Bost notaz osatutako balio bereziko multzoa. Zatiketa bitarreko konpasetan, balio bereko lau notaren baliokidea da, eta, zatiketa hirutarrekoetan, balio bereko sei notaren baliokidea.

en quintuplet
es quintillo
fr quintolet



bostekotxoa

662
bostun *(4)*
sin. bostun bitarte *(4)*
Eskala diatonikoaren ondoz ondoko bost notaren arteko bitartea. Bitartea hiru tonu eta erdikoa bada, *bostun justua* da (do-sol).

en fifth
es intervalo de quinta; quinta
fr quinte
☞ **bitarte justu**

bostun bitarte
➥ **bostun**

663
bostun gehituko akorde *(4)*
Oinarri-notaren bostun gehitua duen akordea. Esaterako, do akorde edo triada gehitua: do-mi-sol♯.

en augmented fifth chord
es acorde de quinta aumentada
fr accord de quinte augmentée

664
bostun paraleloak *(4)*
Ahotsen mugimenduan, ahotsen artean gertatzen diren ondoz ondoko bi bostun justuak. Mugimendu paraleloaren kasu bat da.

en consecutive fifths; parallel fifths
es quintas paralelas
fr quintes parallèles
☞ **mugimendu paralelo; zortzidun paraleloak**

bostunen ziklo
➥ **bostunen zirkulu**

665
bostunen zirkulu *(4)*
sin. bostunen ziklo *(4)*
Bostun bitartez bereizitako tonalitateak kateatuz osatzen den 12 urratseko zirkulua, 12. urratsaren ondoren hasierako tonikara itzultzen dena. Zirkuluan eskuinetarantz mugitzean, goranzko bostun bitarteak gertatzen dira; ezkerretarantz, beherazkoak. Do-n hasita, hau da bostunen eskuinetarako zirkulua: do-sol-re-la-mi-si-fa♯-do♯-sol♯(la♭)-re♯ (mi♭)-la♯(si♭)-fa-do.

en circle of fifths
es círculo de quintas
fr cycle des quintes

666

cluster *(4)*
Tonuerdiz bereizita dauden eta batera jotzen diren zenbait notaz osatutako multzoa.
en cluster; note cluster; tone cluster
es cluster
fr cluster

667

concertino *(4)*
Orkestra sinfoniko bateko lehen biolina.
en concertmaster; leader
es concertino
fr chef d'attaque; chef de pupitre
☞ **biolin; orkestra sinfoniko**

continuo
➥ **baxu jarraitu**

668

crescendo *(4)*
Soinuaren intentsitatea pixkanaka handitzeko argibidea (*cresc.*). < ikurraz ere adierazten da (ikurraren luzera dagokion nota-multzora hedaturik).
en crescendo
es crescendo
fr crescendo
☞ **diminuendo**

669

da capo *(4)*
Konposizio edo atal bat hasieratik berriz jo behar dela adierazteko erabiltzen den argibidea (*DC.*). Eskuarki, *al Fine* edo *al Coda* adierazpenez osatzen da, hurrenez hurren, hasieratik amaieraraino edo hasieratik kodaren ikurreraino eta hortik amaieraraino jo behar dela adierazteko.
en da capo
es da capo
fr da capo

desafinatu
➥ **tonua galdu**

670

dezibel *(4)*
Soinu-maila edo -indarra adierazteko erabiltzen den unitatea. Berez, magnitude baten bi balioren erlazioa eskala logaritmikoan neurtzeko unitatea da. Soinu-mailaren kasuan, soinuaren zenbait magnitude fisiko erabil daitezke konparazio hori egiteko (presio akustikoa, potentzia akustikoa eta soinu-intentsitatea). Hiruetan ere, entzumenatariari dagokion balioa erabiltzen da konparazioaren erreferentziatzat.
en decibel
es decibel; decibelio
fr décibel
☞ **intentsitate**

671

diapasoi *(4)*
Ahotsa eta musika-instrumentuak tonuan jartzeko erabiltzen den erreferentzia-nota. *La* nota hartu ohi da erreferentziatzat, eta garaiaren, herrialdearen eta instrumentuaren arabera, asko aldatu izan da erreferentzia-maiztasunaren balio zehatza. Gaur egun, 440 eta 442 Hz da estandarrena (lehena aipatu ohi da estandar orokortzat, baina Europako herrialde batzuetako orkestretan 442 Hz da erabiliena).
en concert pitch; diapason
es diapasón
fr diapason

672

diatoniko *(4)*
Tonu eta tonuerditan antolatua dagoena *(sistema, eskala...), kromatiko*ri kontrajarria.
en diatonic
es diatónico, -a
fr diatonique

☞ **eskala diatoniko; instrumentu diatoniko; kromatiko**

673

diese *(4)*

2 sin. sostenitu *(3)*

Goranzko tonu-erdiko altuera-aldaketa adierazten duen zeinua (♯).

en sharp
es sostenido
fr dièse

☞ **alterazio; bemol**

2 sin. sostenitu *(3)*

Berez duen soinu naturala baino tonuerdi bat gorago dagoen nota (esaterako, re diesea, fa diesea...).

en sharp
es sostenido
fr dièse

☞ **bemol**

674

diese bikoitz *(4)*

1 sin. sostenitu bikoitz *(3)*

Goranzko tonu bateko altuera-aldaketa adierazten duen zeinua (𝄪).

en double sharp
es doble sostenido
fr double dièse

2 sin. sostenitu bikoitz *(3)*

Berez duen soinu naturala baino tonu bat gorago dagoen nota.

en double sharp
es doble sostenido
fr double dièse

675

diktaketa *(4)*

sin. diktatu *(4)*

Musika-pasarte bat entzute hutsez idaztean datzan ariketa. Ariketaren helburua melodia, erritmoa zein harmonia atzematea eta idaztea izan daiteke (horren arabera, *diktaketa melodiko*, *diktaketa erritmiko* edo *diktaketa harmoniko* terminoak erabiltzen dira).

en dictation; musical dictation
es dictado; dictado musical
fr dictée; dictée musicale

diktatu

➥ **diktaketa**

676

diminuendo *(4)*

Soinuaren intentsitatea pixkanaka ahultzeko argibidea (*dim., dimin.*). > ikurraz ere adierazten da (ikurraren luzera dagokion nota-multzora hedaturik).

en diminuendo
es diminuendo
fr diminuendo

☞ **crescendo**

677

dinamika *(4)*

Soinu-intentsitatearekin eta horren aldaketarekin lotuta dagoen espresioaren alderdia.

en dynamics
es dinámica
fr dynamique

☞ **agogika; ñabardura dinamiko**

dinamika-argibide

➥ **ñabardura dinamiko**

diskordante

➥ **disonante**

678

disonante *(4)*

sin. diskordante *(4)*

Disonantzia sortzen duena *(bitartea, akordea...)*.

en discordant; dissonant
es discordante; disonante
fr discordant, -ante; dissonant, -ante

☞ **disonantzia; kontsonantzia**

679

disonantzia *(4)*

Kontsonantziarik eza, aldi bereko soinuen egonkortasunik edo kidetasunik eza; horrelako soinu-multzoa.

en dissonance
es disonancia
fr dissonance
☞ **kontsonantzia**

680

ditonu *(4)*

Intonazio-sistema pitagorikoko hirudun maiorra, sistema horretako bi tonu handiz osatua (9:8☞9:8=81:64).

en ditone
es ditono
fr diton
☞ **intonazio pitagoriko; tritonu**

681

do *(4)*

Nota-izena, solmisazio-sistemako lehena.

! Jatorriz, *ut* zuen izena, eta horrela erabiltzen da oraindik hizkuntza batzuetan.

en C
es do
fr do; ut
☞ **solmisazio**

682

do klabe *(4)*

Do notaren (do_3-ren) pentagramako kokalekua zehazten duen klabea (𝄡). Zeinuaren erdialdeko sartuneak adierazten du do notaren kokalekua. Do klabea pentagramaren lau lerrotan koka daiteke (1., 2., 3. eta 4. lerroetan).

en C clef; C-clef
es clave de do
fr clé d'ut; clef d'ut
☞ **klabe**

683

dodekafoniko *(4)*

Dodekafonismoaren araberakoa edo horri dagokiona. Esaterako, serie dodekafonikoa, musika dodekafonikoa...

en dodecaphonic; twelve-tone
es dodecafónico, -a
fr dodécaphonique

684

dominante *(4)*

Eskala diatonikoaren bosgarren gradua, tonikarekiko bostun justua osatzen duena.

en dominant
es dominante
fr dominante
☞ **eskala diatoniko; gradu; tonika**

685

dominante-akorde *(4)*

Eskalaren bosgarren graduaren gainean eratutako akordea. Esaterako, do tonalitatean, dominante-akordea sol akordea da (sol-si-re). Dominante-akordeak garrantzi handia du musika tonalean, tonikara daraman akordea izaten delako (tonalitatearen sentsiblea du, tonikara gehien jotzen duen soinua).

en dominant chord
es acorde de dominante
fr accord de dominante

686

dominante-akorde zazpidun *(4)*

Eskalaren bosgarren graduaren gainean eratutako zazpidun minorreko akordea. Adibidez, do tonalitatean, dominante-akorde zazpiduna sol-en gainean eratua da, eta sol-si-re-fa da. Akorde honek garrantzi handia du musika tonalean. Tritonua du (si-fa) eta bitarte horren tentsioa askatu beharrean oinarritua da, hein handian, akordeak tonikara bide-

ratzeko duen joera (si-fa bitarteak do-mi bitartera eraman ohi du).
en dominant seventh chord
es acorde de séptima dominante
fr accord de septième de dominante
☞ **akorde zazpidun; tritonu**

687
ebatzi *(4)*
sin. erresolbitu *(3)*
Disonantzia batetik kontsonantzia batera iragan. Esaterako, sol dominante-akorde zazpidunaren fa-si disonantziatik mi-do bitarte kontsonantera iragatea.
en resolve
es resolver
fr résoudre

688
ebazte *(4)*
sin. erresoluzio *(4)*
Bitarte edo akorde batetik beste batera-ko mugimendua, tentsio melodikoa edo harmonikoa nolabait lasaitzen duena.
en resolution
es resolución
fr résolution

689
egokitzapen *(4)*
Musika-konposizio bat jatorrizkoa ez bezalako genero edo testuinguru batean interpretatzeko aldatzea. Egokitzapenak jatorrizkoaren pasarteak aldatu edo kendu egin ditzake, testura alda dezake, eta, eskuarki, transkripzioa edota transposizioa ekarri ohi ditu berekin.
en adaptation
es adaptación
fr adaptation
☞ **moldaketa; transkripzio; transposizio**

690
ekite *(4)*
Instrumentuz edo ahotsez sortzen den soinuaren hasiera.
en attack
es ataque
fr attaque
☞ **artikulazio; azentu**

eliza-modu
➥ **antzinako modu**

691
enarmoniko *(4)*
Soinu bera adierazten duten nota desberdinetako bakoitza. Tenperamentu berdineko sisteman soilik gertatzen dira enarmonikoak; esaterako, *fa diese*ak eta *sol bemol*ak maiztasun bereko soinua adierazten dute.
en enharmonic
es enarmónico
fr enharmonique
☞ **tenperamentu berdin**

692
entzumen absolutu *(4)*
Soinu baten altuera (dagokion nota) entzute hutsez zein den jakiteko gaitasuna, aurretik erreferentzia-nota entzun gabe.
en absolute pitch; perfect pitch
es oído absoluto
fr oreille absolue
☞ **entzumen erlatibo**

693
entzumen erlatibo *(4)*
Noten arteko bitarteak zein diren jakiteko gaitasuna, banako noten altuera absolutua jakiteko gaitasunik gabe ere.
en relative pitch
es oído relativo
fr oreille relative
☞ **entzumen erlatibo**

694

erdikadentzia *(4)*
Dominante-akordean amaitzen den kadentzia.
en half cadence; half close cadence; imperfect cadence
es cadencia imperfecta; cadencia incompleta; semicadencia
fr demi-cadence



Erdikadentzia

695

erdiko do *(4)*
Sol eta fa klabeen arteko lerro gehigarrian idatzitako do nota (do_3). Pianoaren teklatuaren erdian izaten da.
en middle C
es do central
fr do de la serrure; do du milieu; do serrure



Erdiko do nota (do_3)

696

erregistro *(4)*
Instrumentu, ahots edo konposizio baten hedaduran bereizten diren altuera-multzoetako bakoitza. Erregistro bakoitzean, soinuak ezaugarri homogeneoak izaten ditu. Eskuarki, hiru bereizten dira: behe-erregistroa (edo erregistro baxua), ertaina eta goi-erregistroa (edo erregistro altua).
en register
es registro
fr registre
☞ **hedadura; tesitura**

errepentizazio
➥ **bat-bateko irakurketa**

697

errepikapen *(4)*
Konposizio bateko pasarte bat berriz jotzea. Errepikatu beharreko pasartea zein den zehazteko, zenbait baliabide erabiltzen dira musika-notazioan; esaterako, konpasa errepikatzeko ikurra (𝄇), atalaren errepikapen-zeinua eta bidaltze-oharren modukoak, hala nola D.C. (*da capo*) *al Coda/Fine* eta D.S. (*dal segno*) *al Coda/Fine*.
en repeat
es repetición
fr répétition; reprise
☞ **errepikapen-zeinu**

698

errepikapen-zeinu *(4)*
Atal edo pasarte bat berriz jo behar dela adierazteko erabiltzen den zeinua edo zeinu-multzoa. Pasartearen hasiera eta bukaera bina barra bikoitzez mugatzen dira, eta hasierakoaren ondoren bi puntu eta bukaerakoaren aurretik beste bi idazten dira (𝄆, 𝄇). Errepikatzen den pasartearen bigarren joaldian amaiera aldatzen bada, 1. (*prima volta*) eta 2. (*seconda volta*) adierazleak erabiltzen dira bi amaierak bereizteko.
en repeat sign
es signo de repetición
fr signe de répétition; signe de reprise
☞ **barra bikoitz; errepikapen**



erresolbitu
➥ **ebatzi**

erresoluzio
➥ **ebazte**

699
erritmo *(4)*
Soinuek denboran agertzen duten ordenazioa eta proportzioa, elementu azentudunak eta azentugabeak gertatzen diren sekuentziaren araberakoa dena (elementuon iraupena zein ere den). Erritmoa musikaren hiru alderdi nagusietako bat da, melodiarekin eta harmoniarekin batera.
en rhythm
es ritmo
fr rythme
☞ **konpas**

700
erritmo anakrusiko *(4)*
Konpasaren lehen aldi indartsuaren aurretik hasten den erritmoa.
es ritmo anacrúsico
fr rythme anacrousique
☞ **erritmo azefalo; erritmo tetiko**

701
erritmo azefalo *(4)*
Konpasaren lehen aldi indartsuaren ondoren hasten den erritmoa.
es ritmo acéfalo
fr rythme acéphale
☞ **erritmo anakrusiko; erritmo tetiko**

702
erritmo sinkopatu *(4)*
Sinkopak dituen erritmoa.
en syncopated rhythm
es ritmo sincopado
fr rythme syncopé
☞ **sinkopa**

703
erritmo tetiko *(4)*
Konpasaren lehen aldi indartsuarekin batera hasten den erritmoa.
es ritmo tético
fr rythme thétique
☞ **erritmo anakrusiko; erritmo azefalo**

esaldi
➥ **frase**

esaldi-ligatura
➥ **frase-ligatura**

esaldi-lotura
➥ **frase-ligatura**

704
eskala *(4)*
sin. gama *(4)*
Eredu baten arabera antolatutako nota-segida. Eredua noten arteko bitarteen sekuentzia bera da (tonu-tonuerdi segida). Eskuarki, zortzidun baten barnean zehazten da eskala, eta goranzko zein beheranzko ordenan deskribatzen da.
en scale
es escala; gama
fr gamme
☞ **modu**

705
eskala diatoniko *(4)*
sin. gama diatoniko *(4)*
Zazpi notako eskala, noten artean bost tonu oso eta bi tonuerdi dituena, hainbat eratara banatuta. Eskala diatoniko nagusiak eskala maiorra eta minorrak dira.
en diatonic scale
es escala diatónica; gama diatónica
fr gamme diatonique
☞ **eskala maior; eskala minor**

eskala gutxitu
➥ **eskala oktatoniko**

706
eskala hexatono *(4)*
sin. gama hexatono *(4)*
Sei notaz osatua den eskala. Arruntenak tonu osoko eskala eta blues-eskala dira.
en hexatonic scale
es escala hexátona
fr gamme hexatone
☞ **blues-eskala; tonu osoko eskala**

707
eskala kromatiko *(4)*
sin. gama kromatiko *(4)*
Hamabi notako eskala, noten artean tonuerdi bana duena.
en chromatic scale
es escala cromática; gama cromática
fr gamme chromatique

708
eskala maior *(4)*
sin. gama maior *(4)*
Tonuerdiak III-IV. graduen artean eta VII-VIII. graduen artean dituen eskala diatonikoa.
en major scale
es escala mayor
fr gamme majeure
☞ **eskala minor**


Eskala maior diatonikoa

709
eskala minor *(4)*
sin. gama minor *(4)*
II-III. graduen artean tonuerdia duen eskala. Eskala minor motak daude, gainerako graduen artean dauden bitarteen arabera. Nagusiak eskala minor naturala, minor melodikoa eta minor harmonikoa dira.
en minor scale
es escala menor
fr gamme mineure
☞ **eskala maior**

710
eskala minor harmoniko *(4)*
sin. gama minor harmoniko *(4)*
Eskala minor naturalaren VII. gradua tonuerdi bat goratuz eratzen den eskala minorra. Horren arrazoia izan da eskala naturalak ez duen sentsiblea lortzea; horren ondorioz, tonu eta erdiko tartea sortzen da VI-VII. graduen artean. Harmonian erabiltzen da batez ere, eta hortik datorkio izena.
en harmonic minor scale
es escala menor armónica
fr gamme mineure harmonique


Eskala minor harmonikoa

711
eskala minor melodiko *(4)*
sin. gama minor melodiko *(4)*
Goranzkoan eskala minor naturalaren VI. eta VII. graduak tonuerdiz goratuak dituen eskala minorra.

! Eskala minor melodikoa goranzkoa da, eta, beheranzko pasarteetan, minor naturala erabiltzen da.

en melodic minor scale
es escala menor melódica
fr gamme mineure mélodique



Eskala minor melodikoa

712

eskala minor natural *(4)*

sin. gama minor natural *(4)*

V-VI. graduen artean tonuerdia duen eta VII-VIII. graduen artean tonu osoa duen eskala minorra. Tonalitate maiorraren VI. graduan (hau da, tonalitate erlatiboan) hasten den eskala da, modu eoliarraren baliokidea.

en natural minor scale
es escala menor natural
fr gamme mineure naturelle
☞ **modu eoliar**



Eskala minor naturala

713

eskala misto *(4)*

sin. gama misto *(4)*

Eskala maiorraren eta minorraren tetrakorde banaz osatutako eskala. Eskala mistoa maiorra edo minorra izan daiteke, lehen tetrakordea eskala maior edo minor batetik hartu den. Bi eskala maior misto daude, bata bigarren tetrakordetzat eskala minor harmonikoarena duena, eta bestea, minor melodikoarena. Eskala misto minor bakarra dago, minor melodikoa bera dena.

es escala mixta
fr gamme mixte
☞ **eskala maior; eskala minor; tetrakorde**

714

eskala oktatoniko *(4)*

sin. eskala gutxitu *(4)*; gama gutxitu *(4)*; gama oktatoniko *(4)*

Tonuak eta tonuerdiak txandakatuz osatutako eskala. Eskala simetrikoa da, eta tonu-tonuerdi segidaz edo tonuerditonu segidaz osatua izan daiteke.

! Berez, zortzi notako edozein eskala da eskala oktatonikoa, baina horietatik eskala gutxitua da arruntena, batzuetan bi terminoak sinonimotzat erabiltzeraino. *Eskala gutxitu* terminoa jazzean erabiltzen da, eta zazpidun gutxituko akordearekin erlazionatuta dago.

en diminished scale; octatonic scale
es escala disminuida; escala octatónica
fr gamme diminuée; gamme octatonique



Eskala oktatonikoa (T-TE eredua)



Eskala oktatonikoa (TE-T eredua)

715

eskala pentatoniko *(4)*

sin. gama pentatoniko *(4)*

Bost notako eskala. Eskala pentatoniko gehienetan, ez dago tonuerdiko bitarterik. Oso arruntak dira garai guztietako eta mundu zabaleko musiketan, hala nola, ekialdeko musikan, musika zeltan, Amerikako herrien musiketan, bluesean... Ezagunenak eskala maior pentatonikoa (do-re-mi-sol-la) eta eskala minor pentatonikoa dira (do-mi♭-fa-sol-la). Mendebaldeko musikaren teorialari zenbaiten arabera, eskala pentatonikoa bost bostunen segidaren emaitza diren tonuek osatzen dute (esaterako, do-sol-re-la-mi).

en pentatonic scale
es escala pentatónica
fr gamme pentatonique

716

eskala tenperatu *(4)*
sin. gama tenperatu (4)
Tenperamentu berdineko sistemaren araberako eskala. Tonuerdi guztiek balioa bera dute (zortzidunaren balioa zati 12), eta tonu guztiak ere berdinak dira (balio bereko bi tonuerdi).
en tempered scale
es escala temperada; gama temperada
fr gamme tempérée
☞ **tenperamentu; tenperamentu berdin**

717

espresio *(4)*
1 Interpretazioan, konposizioaren soinuak (notak) jotze hutsetik haratago dauden musika-alderdien multzoa, horiek jotzeko moduarekin zerikusia dutenak. Alderdi nagusiak intentsitatea, tempoa (eta horien aldaketak) eta artikulazioa izaten dira.
en expression
es expresión
fr expression
2 Konposizio bati buruz, musikaren izaerak berak iradokitzen, eragiten edo adierazten dituen sentsazio, emozio edo sentimenduen alderdia.
en expression
es expresión
fr expression

718

espresio-argibide *(4)*
sin. espresio-marka *(4)*
Musika-pasarte edo -elementu baten dinamikarekin, tempoarekin edo artikulazioarekin zerikusia duten alderdiei buruzko informazioa ematen duen argibidea. Espresio-argibideen artean daude, esaterako, ñabardura dinamikoak, tempo-adierazleak edo artikulazio-markak.
en expression mark
es indicación de carácter; indicación de expresión
fr indication de caractère; signe d'expression

719

espresio-ligatura *(4)*
sin. espresio-lotura *(4)*
Hartzen duen nota-multzoa *legato* jo behar dela adierazten duen ligatura-mota.
en slur
es ligadura de expresión
fr liaison d'expression; liaison de phrasé; liaison expressive
☞ **balio-ligatura; frase-ligatura; ligatura**

espresio-lotura
➥ **espresio-ligatura**

espresio-marka
➥ **espresio-argibide**

720

etnomusikologia *(4)*
Musika kulturaren testuinguruan aztertzen duen jakintza. Munduko musiken eta kulturen arteko erlazioak aztertzen ditu, dela bakoitzaren berezitasunak zehazteko dela musikaren ezaugarri komunak bilatzeko. Zenbaiten arabera, etnomusikologiaren aztergaia mundu zabaleko musika tradizionalak dira, mendebaldeko musika kultua alde batera utzita.
en etnomusicology
es etnomusicología
fr ethno-musicologie; ethnomusicologie
☞ **musikologia**

721
fa *(4)*
Nota-izena, solmisazio-sistemako laugarrena, *mi* eta *sol*en artekoa.
en F
es fa
fr fa
☞ **solmisazio**

722
fa klabe *(4)*
1 Fa notaren (fa_2-ren) pentagramako kokalekua zehazten duen klabea (𝄢). Zeinuaren ondoan ageri diren bi puntuek adierazten dute fa notaren kokalekua. Arruntena laugarren lerrokoa da, eta eskuarki *fa klabe* terminoa klabe hori adierazteko erabiltzen da, beste fa klabe bat dagoen arren (hirugarren lerrokoa). Behe-erregistrorako erabiltzen da.
en F clef; F-clef
es clave de fa
fr clé de fa; clef de fa
☞ **klabe**

2 ➥ laugarren lerroko fa klabe

723
fermata *(4)*
1 sin. kalderoi *(4)*
Nota edo isilune baten gainean ezarririk, horren balioa luza daitekeela adierazten duen ikurra (𝄐 , 𝄑). Interpretatzailearen edo zuzendariaren irizpide artistikoaren araberakoa da nota edo isilunea zenbat luzatu.
en fermata; pause
es calderón; fermata
fr point d'orgue
2 Kontzertu klasikoetan, solistak cadenza jotzen hasi behar duen unea adierazten duen ikurra (𝄐).
en fermata
es fermata
fr point d'orgue
☞ **cadenza**

724
filatu *(4)*
Nota luzatu, intentsitatea aldatu gabe eta berriz artikulatu gabe. Ahotsari buruz, nota arnasa hartu gabe luzatzea da; hari-instrumentuetan, beste arkukolpe bat jo gabe.
es filar
fr filer

725
forte *(4)*
Musika-pasarte bat soinu-intentsitate handiz jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (*f*).
en forte
es forte
fr forte
☞ **ñabardura dinamiko**

726
fortissimo *(4)*
Musika-pasarte bat oso soinu-intentsitate handiz, *forte* baino handiagoz, jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (*ff*).
en fortissimo
es fortissimo
fr fortissimo
☞ **forte**

727
frase *(4)*
sin. esaldi *(4)*
Unitate melodiko eta espresiboa osatzen duen nota-multzoa. Musika-frasea nolabaiteko osotasun eta beregaintasuna duen nota-multzoa da, eskuarki beste unitate baten osagai izaten dena (periodoa) eta unitate txikiagoz osatua izan daitekeena (motiboa). Musika tonalean, frasea kadentzia batean amaitu ohi da, eta, sarritan, 2ren multiploa den konpas -kopuru batez osatua izaten da.

en phrase
es frase
fr phrase

728

fraseatze *(4)*
Musikaren egitura melodikoaren edota harmonikoaren araberako fraseak osatzea. Interpretazioan, musika-fraseak osatzeak zenbait alderdiren erabilera egokia eskatzen du: artikulazioa, azentuazioa, noten eta nota-multzoen arteko isiluneak, dinamikaren eta tempoaren kudeaketa...
en phrasing
es fraseo
fr phrasé

729

frase-ligatura *(4)*
sin. esaldi-ligatura *(4)*; esaldi-lotura *(4)*; frase-lotura *(4)*
Bere baitan hartzen duen nota-multzoa frase bat dela eta horren arabera jo behar dela adierazten duen ligatura-mota.
en phrase mark; slur
es ligadura de fraseo
fr liaison de phrase
☞ **balio-ligatura; espresio-ligatura; ligatura**

frase-lotura
➥ **frase-ligatura**

730

fusa *(4)*
Kortxeaerdiaren erdia balio duen nota-irudia (𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯).
en demisemiquaver; thirty-second -note
es fusa
fr triple croche

731

fusaerdi *(4)*
Fusaren erdia balio duen nota-irudia (𝅘𝅥𝅰𝅘𝅥𝅰).
en sixty-fourth note
es semifusa
fr quadruple croche

732

klabe *(4)*
Pentagramaren hasieran ezartzen den zeinua, pentagramaren lerro eta tarte bakoitzari zein nota esleitzen zaion zehazten duena. Gaur egun, hiru zeinumota erabiltzen dira: sol, fa eta do klabeak. Klabe horien zeinuak G, F eta C letren idazkera eraldatuak dira. Horietako bakoitzak hainbat kokapen izan ditzake pentagraman, eta, beraz, noten kokalekua ere horren arabera aldatzen da.
en clef
es clave
fr clé; clef
☞ **do klabe; fa klabe; sol klabe**

733

klabe-aldaketa *(4)*
Pentagraman klabe-zeinu berria agertzea, eskuarki erregistroa edo tesitura aldatzeko.
en clef change
es cambio de clave
fr changement de clef
☞ **erregistro; klabe; tesitura**

gama
➥ **eskala**

gama diatoniko
➥ **eskala diatoniko**

gama gutxitu
➥ **eskala oktatoniko**

gama hexatono
➥ **eskala hexatono**

gama kromatiko
➥ **eskala kromatiko**

gama maior
➥ **eskala maior**

gama minor
➥ **eskala minor**

gama minor harmoniko
➥ **eskala minor harmoniko**

gama minor melodiko
➥ **eskala minor melodiko**

gama minor natural
➥ **eskala minor natural**

gama misto
➥ **eskala misto**

gama oktatoniko
➥ **eskala oktatoniko**

gama pentatoniko
➥ **eskala pentatoniko**

gama tenperatu
➥ **eskala tenperatu**

734

giltza *(4)*
Instrumentu bati dagozkion pentagramak lotzeko erabiltzen den ikurra ({). Esaterako, pianoaren ezker eta eskuineko eskuen parteak pentagrama banatan adierazten dira (hurrenez hurren, fa eta sol klabeetan), eta horien hasierak giltza batez elkartzen dira. Hainbat instrumenturen edo ahotsen pentagramak erlazionatzeko, berriz, kako zuzena erabiltzen da.
en brace
es llave
fr accolade ronde
☞ **kako zuzen**

735

glissando *(4)*
Bi notaren arteko nota edo soinu guztietatik pasatzea. Instrumentuaren izaeraren arabera, efektu zehatza (entzuten diren soinuak) aldatu egiten da. Esaterako, koskadun hari-instrumentuetan (gitarran, esaterako), eskala kromatikoko notak aditzen dira; teklatu-instrumentuetan (pianoan...), berriz, giltza zuriei edo beltzei dagozkien noten segida baino ez; azkenik, biolinaren familian, irristailu-tronboian eta antzekoetan, bi notaren arteko soinu guztiak aditzen dira, eta *portamento*ren baliokidetzat har daiteke.
en glissando
es glissando
fr glissando
☞ **portamento**

goi-
➥ **altu**

736

goiko zortzidunean *(4)*
Pasarte bat idatzita dagoen baino zortzidun bat gorago jo behar dela adierazteko argibidea. Pentagramaren goialdean jartzen da (8va).
en all' ottava; ottava alta
es octava alta
fr octave supérieur

737

goranzko bitarte *(4)*
Bigarren nota edo soinua lehena baino altuagoa den bitarte melodikoa.
en ascending interval
es intervalo ascendente
fr intervalle ascendant
☞ **beheranzko bitarte**

738

gradu *(4)*

Eskala diatonikoan, nota bakoitzaren posizioa eta funtzioa. Zenbaki erromatarrez adierazi ohi dira. Eskala diatonikoan, hauek dira graduak: tonika (I), supertonika (II), mediantea (III), subdominantea (IV), dominantea (V), superdominante (VI) eta sentsiblea (VII). Bakoitzak bere funtzioa du harmonian, eta horren oinarria osatzen dute.

en degree
es grado
fr degré

Eskalako graduak



I tonika
II supertonika
III mediantea
IV subdominantea
V dominantea
VI superdominantea
VII sentsiblea

739

gradu modal *(4)*

Eskala diatonikoko III., VI. edo VII. gradua. Horien artean, III. gradua da modu maiorra eta minorra bereizten dituena (VI. eta VII. graduak aldatu egin daitezke modu horietako eskalen artean).

en modal degree
es grado modal
fr degré modal

☞ **modu maior; modu minor**

740

gradu tonal *(4)*

Eskala diatonikoko I., IV. edo V. gradua. Gradu tonalak ez dira modu maiorretik minorrera aldatzen.

en tonal degree
es grado tonal
fr degré tonal

☞ **gradu modal**

741

gruppetto *(4)*

Hiru edo lau notaz ostutako apaindura-mota, nota nagusiaz eta haren ondoko graduetako bi notez osatua. Nota nagusiaren inguruan eratzen da, graduz gradu. Goiko zein beheko notatik hasi daiteke (hiru notako gruppettoa), edo nota nagusitik, gorantz zein beherantz (lau notako gruppettoa) (∾).

en turn
es grupeto
fr gruppetto; gruppetto

☞ **apaindura-nota**



Gruppettoa eta bi interpretazio-aukera

742

harmonia *(4)*

Akordeen osaketaz, konbinazioaz eta modulazioaz diharduen teknika eta arte musikala. Garaiaren eta estiloaren arabera, harmonia-arauak edo -ohiturak aldatu egin dira. Musikaren hiru alderdi nagusietako bat da, melodiarekin eta erritmoarekin batera.

en harmony
es armonía
fr harmonie

☞ **akorde; modulazio**

743

harmoniko *(4)*
Oinarrizko soinu baten osagarri diren bibrazioetako bakoitza. Harmonikoen uhin-luzerek lehenengoaren azpimultiploak dira; hau da, oinarrizkoa bera da lehen harmonikoa (1:1), bigarren harmonikoa 2:1 da oinarrizkoarekiko (zortziduna); hirugarrena 3:1 (zortziduna☞bostuna), eta abar. Horien guztien segidari *serie harmoniko* deritzo. Instrumentutik instrumentura, oinarrinota baten harmonikoen intentsitateen banaketa aldatu egiten da, eta horrek zerikusi handia du soinuaren tinbrea deritzon ezaugarrian.
en harmonic; overtone
es armónico
fr harmonique
☞ **partzial**

harmonikoen serie
➥ **serie harmoniko**

744

harmonizatu *(4)*
Melodia baten laguntza edo akonpainamendurako akordeak idatzi.
en harmonize
es armonizar
fr harmoniser

745

hatz-joko *(4)*
Musika-notazioan, instrumentua jotzean zein hatz eta zein posiziotan erabili gomendatzen duen zeinu-multzoa (notaren inguruan idazten diren zenbakien bidez adierazia).
en fingering
es digitación
fr doigté

746

hedadura *(4)*
Instrumentu edo ahots batek jo edo kanta ditzakeen nota baxuenaren eta altuenaren arteko bitartea.
en range
es diapasón; extensión
fr ambitus; diapason; étendue
☞ **erregistro; tesitura**

747

hemiolia *(4)*
1 Erritmo hirutarreko bi konpas erritmo bitarreko hiru konpasen gisan jotzea, edo alderantziz. Batetik bestera aldatzean, aldi azentudunak birbanatu egiten dira (IAA | IAA -> IA | IA | IA). Oso baliabide erabilia da hainbat garai eta kulturatako musiketan.
en hemiola; hemiolia
es hemiolia
fr hémiole

2 3:2 maiztasun-erlazioa duten bi soinuren bitartea. Bostun justuari dagokio (hori baita 3:2 luzera-erlazioa duten bi harik bibratzean sortzen duten bitartea).
en hemiola; hemiolia
es hemiolia
fr hémiole

748

hexakorde *(4)*
Sei notako eskala, Erdi Aroko musika-teorian eta irakaskuntzan (solmizazioan) erabilia. Kantu lau eta gregorianoaren analisian ere erabiltzen zen. Hiru mota daude: a) gogorra (*hexachordum durum*): sol-la-si-do-re-mi; b) naturala (*hexachordum naturale*); do-re-mi-fa-sol-la; c) biguna (*hexachordum molle*): fa-sol-la-si♭-do-re.
en hexachord
es hexacordo
fr hexacorde

749

hirudun *(4)*

sin. hirudun bitarte *(4)*

Eskala diatonikoaren ondoz ondoko hiru notaren arteko bitartea. Bitartea bi tonukoa bada, *hirudun maiorra* da (do-mi), eta tonu eta erdikoa bada, *hirudun minorra* (do-mi♭).

en third
es intervalo de tercera; tercera
fr tierce

☞ **bitarte maior; bitarte minor**

hirudun bitarte

➥ **hirudun**

750

hirugarren lerroko do klabe *(4)*

Do nota (do_3) pentagramaren hirugarren lerroan kokatzen duen klabe-mota. Besteak beste, biolaren musika idazten da hirugarren lerroko do klabean.

en alto clef
es clave de do en tercera línea
fr clé d'ut troisième ligne; clef d'ut troisième ligne

☞ **do klabe**



Hirugarren lerroko do klabea (do_3)

751

hirugarren lerroko fa klabe *(4)*

Fa nota (fa_2) hirugarren lerroan kokatzen duen klabe-mota.

en baritone clef
es clave de fa en tercera línea
fr clé de fa troisième ligne; clef de fa troisième ligne

☞ **fa klabe**



Hirugarren lerroko fa klabea (fa_2)

752

hiruko konpas *(4)*

sin. konpas hirutar *(4)*

Hiru aldi dituen konpas-mota. Konpas-adierazlearen goiko zenbakia *3* edo *9* da, konpas bakuna edo konposatua den. Esaterako, 3/2, 3/4 edo 9/8.

en triple meter
es compás ternario
fr mesure à trois temps; mesure ternaire

☞ **konpas bakun; konpas konposatu**

753

hirukotxo *(4)*

Hiru notaz osatutako balio bereziko multzoa, balio bereko bi notaren baliokidea dena. Esaterako, 2/4 konpas batean, kortxea-hirukotxoak aldi oso baten balioa du, hau da, bi kortxearen balioa. Noten gaineko 3 zenbakiaz adierazten da. Hiru noten balioa bera bada, erregularra da; balioak desberdinak badira, irregularra.

en triplet
es tresillo
fr triolet

754

homofonia *(4)*

Linea melodiko bakarreko musika, *polifoniari* kontrajarria. Ahots edo parteek ez dute linea melodiko independenterik osatzen (unisonoa egin dezakete, edo zortzidunak, akordeak), eta zenbaitetan laguntza edo akonpainamendua izan dezakete (pordoia, esaterako).

en homophony
es homofonía
fr homophonie

idazkera

➥ **notazio**

755

imitazio *(4)*

Parte batek aurkeztutako motiboa beste parte batek edo batzuek errepikatzea. Motiboa bere horretan errepika daiteke, edo beste zortzidun edo tonu batean. Musika-forma eta estilo askotan erabiltzen da, eta, bereziki, kontrapuntuan (kanon eta fugaren funtsa da).

en imitation
es imitación
fr imitation

756

inarmoniko *(4)*

Serie harmonikoaren araberakoa ez dena. Esaterako, instrumentu batzuen partzialen maiztasunak ez dira oinarrizko bibrazioaren maiztasunaren osoko multiploak.

en inharmonic
es inarmónico
fr inharmonique

☞ **harmoniko; partzial; serie harmoniko**

757

inbertsio *(4)*

1 sin. alderantzikatze *(4)*

Bitarte bat osatzen duten notak alderantzizko altuera-erlazioan antolatzea (behean dagoena goian eta alderantziz); horren emaitza den bitartea jatorrizko bitartearen inbertsioa dela esaten da. Eskuarki, notaren altuera-aldaketa zortzidunaren baliokoa izaten da. Beraz, beheko nota zortzidun bat goratuz edo goiko nota zortzidun bat beheratuz eratzen dira inbertsioak. Esaterako, mi-sol 3dunaren inbertsioa sol-mi 6duna da.

en inversion
es inversión
fr renversement

☞ **bitarte**

2 sin. alderantzikatze *(4)*

Akorde baten antolaera-mota, behereneko nota oinarri-nota ez denean hartzen duena. Esaterako, do akordearen mi-sol-do eta sol-do-mi antolaerak do-mi-sol oinarrizko akordearen lehen eta bigarren inbertsioak dira. Lehena akorde seiduna da, eta bigarrena, sei-lauduna.

en inversion
es inversión
fr renversement

☞ **akorde; akorde seidun; akorde sei-laudun; oinarri-nota; oinarrizko antolaera**



3 sin. alderantzikatze *(4)*

Melodia-linea baten noten arteko mugimenduak alderantzikatzea; horren emaitza den doinua. Goranzko bitarte melodikoak beheranzkoak bihurtzen dira (esan liteke inbertsioa jatorrizko linearen ispilu-irudia dela).

en inversion
es inversión
fr inversion

☞ **bitarte melodiko**

758

instrumentazio *(4)*

1 Instrumentuen, haien ezaugarrien eta konbinazioen jakintza eta teknika.

en instrumentation
es instrumentación
fr instrumentation

2 Konposizio batean erabiltzen diren instrumentuen konbinazioa.

en instrumentation
es instrumentación
fr instrumentation
☞ **orkestrazio**

759
intentsitate *(4)*
Akustikan, soinu-uhin baten anplitudeari lotuta dagoen ezaugarria, soinuaren ozentasun-mailaren erantzule dena.
en intensity
es intensidad
fr intensité
☞ **dinamika**

intentsitate-azentu
➥ **azentu dinamiko**

760
interpretazio *(4)*
Instrumentu-jotzaile, kantari edo zuzendari batek musika idatzia gauzatzea ("jotzea") eta hori egiteko era.
en interpretation
es interpretación
fr interprétation
☞ **jotze**

761
intonazio *(4)*
sin. afinazio *(3)*
Noten altuera zehatza, hau da, notei dagozkien soinuen maiztasunak ezartzeko erabiltzen diren sistemetako bakoitza. Sistema desberdinak proposatu eta erabili izan dira: noten arteko bitarteen balio zehatzak dira batetik bestera aldatzen direnak. Nagusiak: intonazio pitagorikoa, intonazio doia, sistema tenperatua (tenperamentu mesotonikoa, tenperamentu berdina, eta hainbat tenperamentu desberdin: Kirnberger, Valotti, Werckmeister...).
en intonation
es afinación; entonación
fr intonation
☞ **intonazio doi; intonazio pitagoriko; sistema tenperatu**

762
intonazio doi *(4)*
sin. afinazio doi *(3)*
Serie harmonikoan oinarritutako intonazio-sistema. Noten arteko maiztasun-erlazioak serie harmonikoaren erlazioen araberakoak dira (hau da, osoko zenbakien arteko erlazioak).
en just intonation; just tuning
es afinación justa; afinación pura
fr gamme zarlinienne; intonation juste
☞ **intonazio; koma; serie harmoniko; tenperamentu**

763
intonazio pitagoriko *(4)*
sin. afinazio pitagoriko *(3)*
Bostun justuen (3:2) kateamenduan oinarritutako intonazio-sistema. XVI. mendera bitartean erabili zen. Tonu guztiak berdinak dira (9:8), eta bi tonuerdi-mota daude: diatonikoa (256:243) eta kromatikoa (2187:2048). Nota enarmonikoak desberdinak dira (si diesea ez da doren berdina); horien arteko bitartea koma pitagorikoa da.
en Pythagorean intonation; Pythagorean tuning
es afinación pitagórica
fr gamme pythagoricienne
☞ **intonazio; koma; tenperamentu**

764
iraupen *(4)*
Soinuak dirauen denbora-bitartea. Iraupen absolutua, berez, adieraz daiteke, denbora-unitateak erabiliz. Hala ere, ohiko musika-notazioan, iraupena erlatiboki adierazten da, noten eta isiluneen

balioen bidez (*zuria, biribila, beltza, kortxea...*). Balio erlatiboari dagokion iraupen absolutua konposizioaren edo pasartearen tempoaren araberakoa da. Tempoa adierazteko, bi bide nagusi daude: a) berariazko tempo-adierazleak (*lento, adagio, allegro, presto, vivace...*); b) metronomo-abiaduraren adierazpena (esaterako, ♩ = 120). Tempoa aldatzen duen adierazpenek ere aldatzen dute, noski, iraupena (*accelerando, rallentando, rubato...*).

en duration; length
es duración
fr durée

☞ **balio; tempo**

765

isilune *(4)*

1 Soinurik gabeko unea.

en rest
es pausa; silencio
fr pause; silence

☞ **nota**

2 Soinurik gabeko unea adierazteko erabiltzen den ikurra. Isiluneak adierazteko ikurren balioa nota-irudien balioen era berean daude mailakatuta (nota-balio bakoitzari balio bereko isilunea dagokio).

en rest
es pausa; silencio
fr pause; silence

☞ **balio; nota**

766

isilune-konpas *(4)*

Konpas osoaren balioa duen isilunea. Sarritan, konpas batzuk izaten dira. Hori adierazteko, konpasak bakarrean bil daitezke, erdian marra bat dagoela, eta horren gainean isiluneak dirauen konpas-kopurua adierazten duen zenbakia dagoela.

en whole bar rest
es compás de espera; compás de silencio; compás en silencio
fr mesure de silence

joaldi

➥ **jotze**

767

jotze *(4)*

sin. joaldi *(4)*

Musika-elementu, -pasarte edo -konposizio bat ahotsez edo instrumentuz gauzatzea; horren osagai diren soinuak sortzea.

en performance
es ejecución
fr exécution

☞ **interpretazio**

768

kadentzia *(4)*

Esaldi baten amaiera adierazten duten lotura harmonikoen multzoa.

en cadence; close
es cadencia
fr cadence

769

kadentzia ahul *(4)*

Azentu metrikoa ez dagoen aldian amaitzen den kadentzia.

! Terminologia tradizionalean, *kadentzia femenino* erabiltzen zen; termino hori baztertzekoa da, dituen konnotazio sexistengatik.

en feminine cadence; metrically unaccented cadence; weak cadence
es cadencia femenina
fr cadence faible; cadence féminine

770

kadentzia eten *(4)*

sin. kadentzia hautsi *(4)*

Dominante-akordeaz eta VI. graduko akordeaz osatutako kadentzia.

en deceptive cadence; interrupted cadence

es cadencia interrumpida; cadencia rota

fr cadence évitée; cadence interrompue; cadence rompue



Kadentzia etena

kadentzia hautsi

➥ **kadentzia eten**

771

kadentzia indartsu *(4)*

Azentu metrikoa dagoen aldian amaitzen den kadentzia.

! Terminologia tradizionalean, *kadentzia maskulino* erabiltzen zen; termino hori baztertzekoa da, dituen konnotazio sexistengatik.

en masculine cadence; metrically accented cadence; strong cadence

es cadencia masculina

fr cadence forte; cadence masculine

772

kadentzia perfektu *(4)*

Dominante-akordeaz eta tonika-akordeaz osatutako kadentzia (V-I). Musika tonaleko kadentzia sendoena da, amaiera-sentsazio handiena ematen duena.

en authentic cadence; final cadence; full cadence; full close; full close cadence; perfect authentic cadence; perfect cadence

es cadencia perfecta

fr cadence parfaite



Kadentzia perfektua

773

kadentzia plagal *(4)*

Subdominante-akordeaz eta tonika-akordeaz osatutako kadentzia (IV-I).

en amen cadence; church cadence; plagal cadence; plagal close

es cadencia eclesiástica; cadencia plagal

fr cadence amen; cadence plagale



Kadentzia plagala

774

kako zuzen *(4)*

Elkarrekin erlazionaturiko zenbait instrumentu edo ahotsen pentagramak lotzeko erabiltzen den ikurra ([ ). Esaterako, familia bereko instrumentuen parteak (zurezkoak, metalezkoak...) kako zuzenez elkar daitezke. Instrumentu beraren pentagramak lotzeko, giltza erabiltzen da.

en bracket
es corchete
fr accolade carrée
☞ **giltza; sistema**

kalderoi
➥ **fermata**

klabe
➥ **klabe**

775
koatriada *(4)*
sin. akorde koatriada *(4)*; lau notako akorde *(4)*
Lau notaz osatutako akordea. Koatriada nagusiak zazpidun akordeak dira. Esaterako, dominante-akorde zazpiduna (do-mi-sol-si♭).
en 4-note chord
es acorde cuatríada; cuatríada
fr accord de 4 notes; accord de quatre notes
☞ **akorde zazpidun**

776
koma *(4)*
1 Intonazio-sistema baten arabera teorikoki nota enarmonikoen artean sortzen den bitarte fisiko txikia. Esaterako, intonazio pitagorikoan, si diesea eta do ez dira altuera berekoak; horien arteko tarteari *koma pitagoriko* deritzo. Intonazio doian, *koma sintoniko* esaten zaio tonu handiaren eta txikiaren arteko bitarteari (81:80).
en comma
es coma; comma
fr comma
☞ **intonazio doi; intonazio pitagoriko**

2 Pentagramaren gainean ezartzen den zeinua, zesura eta arnasa hartzeko unea adierazteko erabiltzen dena (𝄐).
en apostrophe; comma
es coma
fr virgule
☞ **zesura**

777
konbinazio-konpas *(4)*
sin. konpas konbinatu *(4)*
Aldi-kopuru desberdineko konpasen konbinazioa edo aldiaren zatiketa desberdineko konpas bakun eta konposatuen konbinazioa den konpas-mota. Lehen kasuan, biko, hiruko edo lauko konpasen konbinazioa da. Esaterako, 5/4 (3/4☞2/4, edo alderantziz), 7/4 (3/4☞4/4, edo alderantziz)... Bigarren kasuan, 5/8 konpasa bi aldiko konpastzat har daiteke, aldi batean hiru kortxea dituena eta bestean bi kortxea (horregatik, *aldi desberdineko konpas* ere esaten zaie horrela analiza daitezkeen konpasei).
en additive metre; asymmetrical metre; irregular metre
es compás asimétrico; compás de amalgama; compás de partes desiguales; compás de ritmo combinado; compás mixto
fr mesure asymétrique; mesure irrégulière
☞ **biko konpas; hiruko konpas; konpas bakun; konpas konposatu; lauko konpas**

778
konpas *(4)*
1 sin. neurri *(4)*
Iraupen bereko aldi edo pultsazioen araberako denbora-zatiketa. Konpas-motak bereizten dira, batetik, aldi-kopuruaren arabera (bikoa, hirukoa, laukoa...); bestetik, aldi bakoitza zenbatetan banatzen den (bitan bada, bakuna; hirutan bada, konposatua).

en meter; metre; time
es compás; medida
fr mesure
☞ **aldi; erritmo; konbinazio-konpas; konpas bakun; konpas bitar; konpas hirutar; konpas konposatu; konpas lautar; konpas-adierazle**

2 Konpas edo neurri-unitatea. Konpas bakoitza aurrekotik eta ondorengotik banantzeko, pentagrama goitik behera zeharkatzen duen lerroa idazten da (*konpas-barra* edo *zatilerroa*).
en bar; measure
es compás
fr mesure

779

konpas bakun *(4)*
sin. zatiketa bitarreko konpas *(4)*
Aldi bakoitza bitan banaturik daukan konpas-mota. Konpas-adierazlearen goiko zenbakitzat 2, 3 edo 4 dutenak dira. Esaterako, bi-biko konpasa (2/2), bi-lauko konpasa (2/4), hiru-lauko konpasa (3/4) edo lau-lauko konpasa (4/4).
en simple meter; simple metre; simple time
es compás de subdivisión binaria; compás simple
fr mesure à temps binaires; mesure simple

Konpas bakunen adierazpidea



konpas bitar
➥ **biko konpas**

konpas hirutar
➥ **hiruko konpas**

konpas konbinatu
➥ **konbinazio-konpas**

780

konpas konposatu *(4)*
sin. zatiketa hirutarreko konpas *(4)*
Aldi bakoitza hirutan banaturik daukan konpas-mota. Konpas-adierazlearen goiko zenbakitzat 6, 9 edo 12 dutenak dira. Esaterako, sei-lauko konpasa (6/4), bederatzi-zortziko konpasa (9/8) edo hamabi-zortziko konpasa (12/8).
en compound meter; compound metre; compound time
es compás compuesto; compás de subdivisión ternaria
fr mesure à temps ternaires; mesure composée
☞ **konpas bakun**

Konpas konposatuen adierazpidea



konpas lautar
➥ **lauko konpas**

781

konpas-adierazle *(4)*
sin. neurri-adierazle *(4)*
Pentagraman bata bestearen gainean ezartzen diren zenbakiak, konposizioaren edo pasartearen konpasa edo neurria adierazten dutenak. Pentagramaren hasieran jar daiteke (klabearen eta armaduraren ondoren), edo konposizioaren barnean konpasa aldatzen den tokian, eskuarki barra bikoitzaren ondoren. Konpas bakunetan, goiko zenbakiak konpasaren aldi-kopurua adierazten du; behekoak, aldi bakoitzean sartzen den nota-balioa (1=𝅝, 2=𝅗𝅥, 4=♩, 8=♪, eta abar). Zenbait konpasen kasuan, zeinu bereziak erabil daitezke (𝄴=4/4; 𝄵=2/2). Konpas konposatuetan, goiko zenbakia 3ren multiploa da (6, 9, 12...), eta konpas osoan beheko zenbakiak adierazten dituenen moduko zenbat unitate sartzen diren adierazten du; horren erdiak, berriz, konpasean zenbat aldi dauden (2, 3, 4...).
en time signature
es quebrado indicador del compás
fr chiffres indicateurs de mesure; indication de mesure
☞ **konbinazio-konpas; konpas bakun; konpas konposatu**

782

konpas-aldaketa *(4)*
Pentagraman konpas-adierazle berria agertzea, aurretik barra bikoitza duela.
en change of time signature
es cambio de compás
fr changement de mesure
☞ **barra bikoitz; konpas-adierazle**

783

konpas-barra *(4)*
sin. zatilerro *(3)*
Konpas bakoitza aurreko eta ondorengotik banantzeko, pentagrama goitik behera zeharkatzen duen marra edo lerroa. Giltzaz edo kako zuzenez elkartutako pentagramen kasuan, zatilerroak pentagrama guztiak zeharkatzen ditu.
en barline
es barra de compás; línea divisoria
fr barre de mesure
☞ **giltza; kako zuzen**

784

konpositore *(4)*
sin. musikagile *(4)*
Musika-sortzailea, musika-konposizioak egiten dituen pertsona.
en composer
es compositor
fr compositeur

785

konposizio *(4)*
Musika-obrak sortzea; horretarako arte eta teknika.
en composition
es composición
fr composition

786

kontradenbora *(4)*
Soinu bat konpasaren aldi ahulean artikulatzea, aurretik isilunea duela, eta aldi indartsuan jarraitu gabe.
en off-beat
es contratiempo
fr contretemps
☞ **sinkopa**

787

kontrakantu *(4)*
sin. kontramelodia *(4)*
Funtsean melodiaz eta akonpainamenduaz osatua dagoen konposizio batean, laguntza edo akonpainamenduaren parte den melodia-izaerako atala, melodia nagusiarekin kontrastea egiten duena.
en countermelody
es contracanto; contramelodía
fr contre-chant; contrechant

788

kontrako mugimendu *(4)*
Ahotsetarako konposizio batean, bi ahotsak kontrako noranzkoan mugitzea (bata gorantz eta bestea beherantz).
en contrary motion
es movimiento contrario
fr mouvement contraire
☞ **mugimendu zeihar; mugimendu zuzen**

kontramelodia
➥ **kontrakantu**

Konpas bakunen taula



Konpas konposatuen taula



789

kontrapuntu *(4)*
Zenbait linea melodiko gainjarriz konbinatzea, ahots bakoitzak bere independentzia atxikiz eta konbinazioak osotasun bat eratuz; horretan oinarritutako konposizio-teknika.
en counterpoint
es contrapunto
fr contrepoint
☞ **fuga**

790

kontserbatorio *(4)*
Musika-, dantza- edota antzerki-eskolak ematen dituen erakundea.
en conservatory
es conservatorio
fr conservatoire

791

kontsonante *(4)*
Kontsonantzia sortzen duena (bitartea, akordea...).
en consonant
es consonante
fr consonant, -ante
☞ **kontsonantzia**

792

kontsonantzia *(4)*
Aldi bereko soinuen egonkortasuna edo kidetasuna; horrelako soinu-multzoa. Kontsonantetzat jotzen den bitartea bere horretan da egonkor eta tentsiorik gabea, eta ez du beste batera aldatzeko joerarik agertzen. Kontsonantzia kontzeptu erlatiboa eta kulturala dela esan daiteke, baina hein batean badu oinarri objektiboa ere: bitarte bat serie harmonikoan zenbat eta lehenago agertzen den, kontsonantetzat jotzeko joera handiagoa izan da, oro har. Sistema tonalean, kontsonantetzat jotzen dira zortziduna, bostuna eta lauduna, eta, neurri txikiagoan, hiruduna eta seidu-na. Gainerako bitarteak, berriz, disonantetzat jo ohi dira, zein bere neurrian. Akorde kontsonantetzat, berriz, bitarte kontsonantez osatuak direnak jo izan dira.
en consonance
es consonancia
fr consonance
☞ **disonantzia**

793

kortxea *(4)*
Beltzaren erdia balio duen nota-irudia (♪).
en eighth-note; quaver
es corchea
fr croche

794

kortxeaerdi *(4)*
Kortxearen erdia eta beltzaren laurdena balio duen nota-irudia (𝅘𝅥𝅯).
en semiquaver; sixteenth note
es semicorchea
fr double croche; double-croche

795

kortxeaerdiko isilune *(4)*
Kortxeaerdi baten balioa duen isilunea (𝄿).
en semiquaver rest; sixteenth rest
es silencio de semicorchea
fr quart de soupir
☞ **isilune**

796

kortxeako isilune *(4)*
Kortxea baten balio duen isilunea (𝄾).
en eighth rest; quaver rest
es silencio de corchea
fr demi-soupir
☞ **isilune**

kortxete
➥ **mako**

797

kromatiko *(4)*
Eskala kromatikoan edo horren erabileran oinarritua, batez ere tonalitateko eskala diatonikoan ez dauden nota bat edo batzuk erabiltzen dituena (melodia, harmonia...).
en chromatic
es cromático, -a
fr chromatique
☞ **diatoniko; eskala kromatiko; instrumentu kromatiko**

798

kromatismo *(4)*
Eskala kromatikoan oinarritzen den linea melodikoa erabiltzea, bereziki eskala diatonikoari ez dagozkion bitarte kromatikoak erabiliz; pasarte diatoniko batean tartekatzen den bitarte edo pasarte kromatikoa.
en chromaticism
es cromatismo
fr chromatisme

799

la *(4)*
Nota-izena, solmisazio-sistemako seigarrena, *sol* eta *si*ren artekoa.
en A
es la
fr la
☞ **solmisazio**

800

lagundu *(4)*
sin. akonpainamendua egin *(3)*; akonpainatu *(3)*
en accompany
es acompañar
fr accompagner

801

laguntza *(4)*
sin. akonpainamendu *(3)*
Ahots- edo instrumentu-konposizio baten oinarrizko parte batekin edo batzuekin harmonizatzen duen partea edo parteen multzoa; parte-multzo horren joaldia.
en accompaniment
es acompañamiento
fr accompagnement

802

larghetto *(4)*
Tempo geldoa, *largo* baino arinxeagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en larghetto
es larghetto
fr larghetto
☞ **tempo**

803

largo *(4)*
Tempo geldoa, *adagio* baino geldoagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en largo
es largo
fr largo
☞ **tempo**

lau notako akorde
➥ **koatriada**

804

laudun *(4)*
sin. laudun bitarte *(4)*
Eskala diatonikoaren ondoz ondoko lau notaren arteko bitartea. Bitartea bi tonu eta erdikoa bada, *laudun justua* da (do-fa).
en fourth
es cuarta; intervalo de cuarta
fr quarte
☞ **bitarte justu**

laudun bitarte

➥ **laudun**

805

laugarren lerroko do klabe *(4)*

Do nota (do_3) pentagramaren laugarren lerroan kokatzen duen klabe-mota. Besteak beste, fagot eta tronboiaren goi-erregistroa idazten da laugarren lerroko do klabean.

en tenor clef
es clave de do en cuarta línea
fr clé d'ut quatrième ligne; clef d'ut quatrième ligne

☞ **do klabe**



Laugarren lerroko do klabea (do_3)

806

laugarren lerroko fa klabe *(4)*

sin. fa klabe *(4)*

Fa nota (fa_2) pentagramaren laugarren lerroan kokatzen duen klabe-mota. Klabe arruntenetakoa da, sol klabearekin batera. Instrumentu hauen musika idazten da fa klabean: teklatu-instrumentuen ezkerreko eskua, kontrabaxua, baxuaren ahotsa...

en bass clef
es clave de fa; clave de fa en cuarta línea
fr clé de fa quatrième ligne; clef de fa quatrième ligne

☞ **fa klabe**



Laugarren lerroko fa klabea (fa_2)

807

lauko konpas *(4)*

sin. konpas lautar *(4)*

Lau aldi dituen konpas-mota. Konpas-adierazlearen goiko zenbakia *4* edo *12* da, konpas bakuna edo konposatua den. Esaterako, 4/4 edo 12/8.

en quadruple meter; quadruple time
es compás cuaternario
fr mesure à quatre temps; mesure quaternaire

☞ **konpas bakun; konpas konposatu**

808

laukotxo *(4)*

Lau notaz osatutako balio bereziko multzoa, balio bereko hiru notaren baliokidea dena. Esaterako, 6/8 konpas batean, kortxea-laukotxoak aldi oso baten balioa du, hau da, hiru kortxearen balioa. Noten gaineko 4 zenbakiaz adierazten da.

en quadruplet
es cuatrillo
fr quartolet



laukotxoa

809

legato *(4)*

Notak bata bestetik bereizi gabe jotzen diren artikulazio-mota; horrela jo behar direla adierazteko ikurra (espresio-ligatura da). Notak elkarren segidan jotzen dira, eta iraupen osoa ematen zaie. Legatoak ez du zertan artikulaziorik gabea izan; hari- eta haize-instrumentuetan, lehen notaren ondorengoak eskuarki ez dira artikulatzen (arku-kolpe, pultsazio edo mihi-kolpe bakarrean jo ohi dira), edo oso artikulazio arina dute. *Legato*rekin kontrajarritako artikulazioa *staccato* da.

en legato
es legato
fr legato
☞ **artikulazio; espresio-ligatura; staccato; tenuto**



Lehen lerroko do klabea (do_3)

810

lehen lerroko do klabe *(4)*
Do nota (do_3) pentagramaren lehen lerroan kokatzen duen klabe-mota. Sopranoaren partea idazteko erabiltzen da batzuetan, lerro gehigarri asko ez erabiltzeko aukera ematen baitu.
en soprano clef
es clave de do en primera línea
fr clé d'ut première ligne; clef d'ut première ligne
☞ **do klabe**

811

lehen lerroko sol klabe *(4)*
Sol nota (sol_3) pentagramaren lehen lerroan kokatzen den klabe-mota. XVII. eta XVIII. mendeetako musika frantsesean erabili zen, batik bat biolinaren partea idazteko.
en French clef; French violin clef
es clave de sol en primera línea
fr clé de sol première ligne; clef de sol première ligne
☞ **sol klabe**

812

lento *(4)*
Tempo geldoa, *largo* baino arinagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en lento
es lento
fr lento
☞ **tempo**

813

lerro *(4)*
Pentagrama osatzen duten bost lerro horizontaletako bakoitza.
en line
es línea
fr ligne
☞ **klabe; lerro gehigarri; pentagrama; tarte**

814

lerro gehigarri *(4)*
Nota bat pentagramatik kanpo dagoenean, nota kokatzeko erabiltzen den lerro laburra. Notaren altueraren arabera, behar hainbat lerro gehigarri erabiltzen dira. Pasarte batean lerro gehigarri asko behar direnean, eta, ondorioz, irakurketa zailtzen denean, *goiko zortzidunean* (*octava alta*) edo *beheko zortzidunean* (*octava bassa*) argibideak erabiltzen dira.
en ledger line; leger line
es línea adicional; línea suplementaria
fr ligne supplémentaire
☞ **beheko zortzidunean; goiko zortzidunean; lerro**



lerroarte
➥ **tarte**

815
ligatura *(4)*
sin. lotura *(4)*
Pentagraman nota batzuk elkartuz idazten den lerro kurbatua. Hainbat funtzio ditu: altuera bereko bi nota (edo gehiago) burutik burura lotuz, bi noten balioak batu egiten ditu (*balio-ligatura*); nota batzuen gainetik idatzita, denak era jarraituan (*legato*) jo behar direla adierazten du (*espresio-ligatura*) edo frasea osatzen dutela (*frase-ligatura*).
es ligadura
fr liaison
☞ **balio-ligatura; espresio-ligatura**

816
linea melodiko *(4)*
Melodia baten bitarteen segidak eta erritmoak agertzen duten forma.
en melodic line; melody line
es línea melódica
fr ligne mélodique
☞ **melodia**

lotura
➥ **ligatura**

817
maiztasun *(4)*
Akustikan, soinu-uhinaren ziklo bat denbora-unitatean errepikatzen den aldi-kopurua. Unitatea *hertz*a da. Maiztasuna handitu ahala, soinuaren altuera handiagoa da.
en frequency
es frecuencia
fr fréquence
☞ **altuera; soinu**

818
mako *(4)*
sin. kortxete *(3)*
Kortxea eta balio txikiagoko nota-irudietan, plikaren muturrari lotzen zaion lerro kurbatua ( ). Plikari mako bat atxikitzean, notari balio-erdia kentzen zaio (esaterako, kortxeak beltzaren erdia balio du). Balio bereko makodun nota batzuk ondoz ondo daudenean, mako adina marraz lotu daitezke.
en flag
es corchete
fr crochet
☞ **plika**

marka
➥ **argibide**

819
mediante *(4)*
Eskala diatonikoaren hirugarren gradua.
en mediant
es mediante
fr médiante
☞ **eskala diatoniko; gradu; tonika**

820
melodia *(4)*
Ondoz ondoko notek edo soinuek osatzen duten segida. Melodiaren ezaugarriak dira soinuen arteko altuera-aldaketak (bitarteak) eta soinuen iraupenak (hau da, erritmoa). Melodia musikaren alderdi "horizontala" da (alderdi "bertikala"den harmoniari kontrajarririk), eta, harmoniarekin eta erritmoarekin batera, musikaren hiru alderdi nagusietakoa da.
en melody
es melodía
fr mélodie
☞ **doinu**

821

metronomo *(4)*
Tempoa zehatz markatzeko erabiltzen den tresna mekaniko edo elektronikoa. Pultsazio erregularra ematen du, nahi den abiaduran. Mekanikoak erloju-mekanismo penduluduna du, eta penduluaren periodoa aldatzeko (nahi den tempoa markatzeko), goiko besoan dagoen pisua eskala bateko posizio jakinetan jarri behar da.
en metronome
es metrónomo
fr métronome

822

metronomo-argibide *(4)*
sin. metronomo-marka *(4)*
Konposizioaren tempo zehatza adierazteko, metronomoaren minutuko pultsazio-kopurua zehazten duen argibidea. Esaterako: ♩ = 120.
en metronome marking
es indicación metronómica
fr indication métronomique; marque métronomique
☞ **tempo; tempo-adierazle**

metronomo-marka
➥ **metronomo-argibide**

823

mezzoforte *(4)*
Musika-pasarte bat *forte* baino intentsitate txikixeagoz jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (*mf*).
en mezzo forte
es mezzoforte
fr mezzoforte
☞ **forte**

824

mezzopiano *(4)*
Musika-pasarte bat *piano* baino intentsitate handixeagoz jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (*mp*).
en mezzo piano
es mezzopiano
fr mezzopiano
☞ **piano**

825

mi *(4)*
Nota-izena, solmisazio-sistemako hirugarrena, *re* eta *fa*ren artekoa.
en E
es mi
fr mi
☞ **solmisazio**

826

mikrotonalismo *(4)*
Mikrotonuak erabiltzen dituen musika-sistema.
en microtonality
es microtonalidad; microtonalismo
fr microtonalisme; microtonalité
☞ **mikrotonu**

827

mikrotonu *(4)*
Tonuerdia baino txikiagoa den bitartea. Mendebaldekoak ez diren munduko hainbat musikatan erabiltzen da, eta zenbait musika garaikidetan.
en microtone
es microtono
fr micro-intervalle

828

modal *(4)*
Moduak erabiltzen dituen edo moduetan oinarrituta dagoena. Esaterako, musika modala, harmonia modala, jazz modala...
en modal
es modal
fr modal, -ale
☞ **modu**

829

modalitate *(4)*

Moduen erabileran oinarritutako musika-sistema.

en modality
es modalidad
fr modalisme; modalité
☞ **tonalitate**

830

moderato *(4)*

1 Tempoa adierazteko beste hitz bati erantsirik, delakoak iradokitzen duen abiadura-mailari indarra kentzeko erabiltzen den hitza, "ez oso"ren baliokidea (*allegro moderato*: ez *allegro* bezain arin; *andante moderato*: ez *andante* bezain lasai).

en moderato
es moderato
fr moderato

2 *Andante* eta *allegro*ren arteko tempoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.

en moderato
es moderato
fr moderato

831

modu *(4)*

1 Zortzidun baten barnean notak tonu eta tonuerdien segida desberdinen arabera antolaturik dauden segidetako bakoitza. Moduak garai, kultura eta musika-genero askotan erabili eta erabiltzen dira.

en mode
es modo
fr mode
☞ **antzinako modu; modu autentiko; modu greko; modu plagal**

2 Sistema tonalean, III. graduaren arabera sortzen diren eskala-multzoetako bakoitza. III. gradua maiorra edo minorra den, modu maiorra eta minorrak sortzen dira.

en mode
es modo
fr mode
☞ **gradu modal; gradu tonal**

832

modu autentiko *(4)*

Antzinako modu nagusietako bakoitza. Tradizioan, lau hauek dira: doriarra, frigiarra, lidiarra eta mixolidiarra.

en authentic mode
es modo auténtico
fr mode authente
☞ **antzinako modu; modu plagal**

833

modu doriar *(4)*

Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, re notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua (T-TE-T-T-T-TE-T). Eskala minor naturalari seigarren gradua tonuerdi jaitsita ere eratzen da.

en Dorian mode
es modo dórico
fr mode dorien
☞ **eskala minor natural**

834

modu eoliar *(4)*

Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, la notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua, musika tonaleko eskala minor naturalaren baliokidea dena (T-TE-T-T-TE-T-T).

en Aeolian mode
es modo eólico
fr mode éolien
☞ **eskala minor natural**

835

modu frigiar *(4)*
Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, mi notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua (TE-T-T-T-TE-T-T).
en Phrygian mode
es modo frigio
fr mode phrygien

836

modu greko *(4)*
Antzinako Greziako teorialariek musika-sistema aztertzean azaldu zituzten *harmonia* eta *tonos* direlakoen sistema izendatzeko, geroagoko teorialari batzuek erabili izan duten terminoa. Erabilera hori Erdi Aroan hasi zen, seguru aski Boezioren eskutik. Gaur egun ere aztergai eta eztabaidagai dira antzinako Greziako musika-sistemaren xehetasunak; indarrean den ikuspegian, *tonos* direlakoak tetrakordez osatuak bide ziren, eta beheranzkotzat deskribatzen dira. Horiek izendatzeko, Greziako zenbait eskualderen izenak ageri dira testuetan (doriar, frigiar, lidiar...). Hala ere, badirudi, soinuen arteko bitarteen banaketan baino, soinuaren altueran oinarritzen zela bereizketa.
en Greek mode
es modo griego
fr mode grec
☞ **antzinako modu; modu; tetrakorde**

837

modu joniar *(4)*
Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, do notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua, musika tonaleko eskala maior diatonikoaren baliokidea dena (T-T-TE-T-T-T-TE).
en Ionian mode
es modo jónico
fr mode ionien
☞ **eskala maior**

838

modu lidiar *(4)*
Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, fa notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua (T-T-T-TE-T-T-TE).
en Lydian mode
es modo lidio
fr mode lydien

839

modu lokriar *(4)*
Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, si notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua (TE-T-T-TE-T-T-T).
en Locrian mode
es modo locrio
fr mode locrien

840

modu maior *(4)*
Sistema tonalean, hiruduna maiorra izatea ezaugarri duen modua.
en major mode
es modo mayor
fr mode majeur

841

modu minor *(4)*
Sistema tonalean, hiruduna minorra izatea ezaugarri duen modua.
en minor mode
es modo menor
fr mode mineur

842

modu mixolidiar *(4)*
Antzinako moduetan eta, oro har, musika modalean, sol notan hasten den nota naturalen segidaren egitura duen modua (T-T-TE-T-T-TE-T).

en Mixolydian mode
es modo mixolidio
fr mode mixolydien

843

modu plagal *(4)*
Modu autentikoetatik eratorritako antzinako moduetako bakoitza, tonika dagokion autentikoarena baino laudun bat beherago duena. Modu plagalak dagokien modu autentikoaren izenari *hipo-* aurrizkia erantsiz izendatzen dira.
en plagal mode
es modo plagal
fr mode plagale
☞ **antzinako modu; modu autentiko**

844

modulazio *(4)*
Musika tonalean, konposizio baten barnean tonalitate batetik bestera igarotzeko prozedura.
en modulation
es modulación
fr modulation

845

moldaketa *(4)*
1 Musika-konposizio bat berridaztea jatorrizkoa ez bezalako instrumentaziorako edota ahotsetarako, edo bertsio murriztu edo sinplifikatua idaztea.
en arrangement
es arreglo
fr arrangement
☞ **egokitzapen**

2 Jazzean eta herri-musikan, kanta, pieza edo melodia bat instrumentu-edota ahots-talde baterako prestatzea. Oro har, abiapuntua melodia eta oinarrizko harmoniak izaten dira, eta moldatze-lanak, batez ere, instrumentazioa eta harmonizazio zehatza hartzen ditu.
en arrangement
es arreglo
fr arrangement

846

monodia *(4)*
Ahots edo linea melodiko bakarreko musika, laguntza edo akonpainamendurik gabea edo, XVII. mendetik aurrera, baxu jarraituarekin batera egiten dena.
en monody
es monodia
fr monodie

847

mordente *(4)*
Apaindura-mota, nota nagusiaren aurretik nota nagusia bera eta beheranzko biduna joz interpretatzen dena (𝆑).
en mordent
es mordente
fr mordant
☞ **trillo**



Mordentea eta interpretazioa

848

motibo *(4)*
Melodia-, erritmo- edota harmonia-ideia eskuarki laburra, nolabaiteko osotasuna duena, eta konposizioa garatzeko osagaitzat erabiltzen dena, bere horretan, eraldatuta zein material gehiagorekin konbinatuta.
en motif; motive
es motivo
fr motif

849

mugimendu *(4)*
Melodia edo ahots batean, nota batetik bestera gertatzen den altuera-aldaketa edo bitarte-mota; ahotsetarako konposizio batean, bi ahotsen noten artean gertatzen den bitarte-aldaketa. Melodia batean, mugimendua urraskakoa (edo konjuntua) eta disjuntua izan daiteke; ahotsen artean, zuzena, paraleloa, alderantzizkoa eta zeiharra.
en motion
es movimiento
fr mouvement

850

mugimendu disjuntu *(4)*
Melodia edo ahots batean, nota batetik ondokoa ez den gradu batera egiten den mugimendua.
en disjunct motion; leap; skip
es movimiento disjunto; salto
fr disjonction; mouvement disjoint
☞ **urraskako mugimendu**

mugimendu konjuntu
➥ **urraskako mugimendu**

851

mugimendu paralelo *(4)*
Ahotsetarako konposizio batean, bi ahotsen arteko bitartea ez aldatzea. Mugimendu zuzen mota bat da. Harmoniaren arau klasikoen arabera, mugimendu paralelo batzuk ez dira onargarriak edo gomendagarriak, bostun eta zortzidun paraleloak, hain zuzen ere.
en parallel motion
es movimiento paralelo
fr mouvement parallèle
☞ **bostun paraleloak; mugimendu zuzen; zortzidun paraleloak**

852

mugimendu zeihar *(4)*
Ahotsetarako konposizio batean, ahots bat ez aldatzea eta bestea gorantz edo beherantz mugitzea.
en oblique motion
es movimiento oblicuo
fr mouvement oblique
☞ **kontrako mugimendu; mugimendu zuzen**

853

mugimendu zuzen *(4)*
Ahotsetarako konposizio batean, bi ahotsak noranzko berean mugitzea (gorantz edo beherantz). Bi noten arteko bitartea aldatzen ez denean, *mugimendu paralelo* deritzo.
en direct motion; similar motion
es movimiento directo
fr mouvement direct
☞ **kontrako mugimendu; mugimendu paralelo; mugimendu zeihar**

854

musika *(4)*
1 Soinuak denboran konbinatzeko artea.
en music
es música
fr musique

2 Musika-artearen eta -jardueraren emaitza (esaterako, musika konposatu, musika entzun...).
en music
es música
fr musique

3 Herri, garai, konpositore, eskola eta abarren musika-lanen multzoa (esateterako, musika italiarra, Ravelen musika...).
en music
es música
fr musique

musikagile

➥ **konpositore**

855

musika-hizkuntza *(4)*

Musika-konposizioetan erabiltzen diren tekniken eta elementu melodiko, errítmiko, harmoniko eta formalen multzoa, konpositore, estilo edo garai baten ezaugarri izan daitekeena.

en musical language
es lenguaje musical
fr langage musical

856

musikaren teoria *(4)*

Musikaren izaera, osagaiak eta egitura aztertzen dituen jakintza-alorra. Oso aztergai-esparru zabala hartzen du: soinuaren propietateak, altuera, iraupena, errítmoa, abiadura, dinamika, intonazioa, melodia, eskalak, bitarteak, akordeak, harmonia, musika-formak...

en music theory
es teoría de la música
fr théorie musicale

☞ **musikologia**

857

musikari *(4)*

Ogibidez musikan diharduen pertsona; musika jotzen duen pertsona.

en musician
es músico, -a
fr musicien, -enne

858

musikologia *(4)*

Musikaren historiaren eta teoriaren zientzia. Musikologiaren aztergaia zabala da, eta musikaren alderdi asko hartzen ditu: musikaren teoria, musikaren historia, musika bere kultura-testuinguruan (etnomusikologia), instrumentuak, formak, estetika, akustika, fisiologia...

en musicology
es musicología
fr musicologie

☞ **etnomusikologia; musikaren teoria**

859

natural *(4)*

1 Alteraziorik ez duena (nota, eskala, akordea...).

en natural
es natural
fr naturel, -elle

2 Serie harmonikoaren araberakoa (bitartea, instrumentua...; esaterako, *tronpeta natural*).

en natural
es natural
fr naturel, -elle

860

neuma *(4)*

Erdi Aroko eliz kantuan, testuaren ondoan idazten ziren azentu- edo puntu-moduko zeinuetako bakoitza, ahotsaren gorabeherak adierazteko erabilia. Neumek ez dute nota-altuera eta errítmoa adierazten, kantuaren noranzkoa baizik.

en neume
es neuma
fr neume

☞ **kantu gregoriano; neuma-notazio**

861

neuma-notazio *(4)*

sin. notazio neumatiko *(4)*

Neumen bidezko notazio-sistema. Kantu lauaren eta batez ere gregorianoaren notazio-sistema nagusia da.

en neumatic notation
es notación neumática
fr notation neumatique

☞ **neuma**

neurri
➥ **konpas**

neurri-adierazle
➥ **konpas-adierazle**

862
nota *(4)*
1 Soinu bat adierazten duen silaba (do, re, mi...) edo letra (C, D, E...).
en note
es nota
fr note
☞ **notazio alfabetiko; solmisazio**

2 sin. nota-irudi *(4)*
Soinuaren edo notaren balioa adierazteko erabiltzen den irudi edo ikurra. Mendebaldeko gaur egungo notazio-sisteman, nota-irudiek bata bestearen balio bikoitza dute (biribilak bi zuri, zuriak bi beltz, eta abar). Pentagraman, nota-irudiak soinuaren altuerari dagokion posizio batean kokatzen dira (lerro edo tarte batean).
en note; note sign
es figura; figura de nota; nota
fr figure de note; note
☞ **balio**

863
nota arrotz *(4)*
Uneko harmoniarekiko disonantea den nota, eskuarki ondoren datorren akordean ebazten dena.
en embellishing tone; non-harmonic note; non-chord tone
es nota de adorno; nota extraña
fr note étrangère; note étrangère aux accords
☞ **apoiatura; atzeratze; aurreratze; auzo-nota; pasadizoko nota**

nota osagarri
➥ **auzo-nota**

nota-irudi
➥ **nota**

864
notazio *(4)*
sin. idazkera *(4)*
Musikaren soinuak eta haiek jotzeko modua idatziz adierazteko erabiltzen diren baliabideen multzoa (ikurrak, laburdurak, hitzak, testuak...). Notazioaren bidez, musikaren hainbat alderdi eta osagai grafikoki idazten dira: soinuen altuera eta iraupena, erritmo eta neurria, abiadura, dinamika (intentsitatea), artikulazioa, konposizioaren egitura... Notazio-sistemak garaiaren, estiloaren eta herriaren arabera aldatzen dira; gaur egun, nagusitu den sistema mendebaldeko ohiko notazioa da. Horren ezaugarri nagusiak dira soinuen altuera (bertikalean) eta iraupen erlatiboa (horizontalean) adieraztea, eta, horien osagarri, zenbait argibide edo marka erabiltzea (tempoa, dinamika, artikulazioa, espresioa...).
en notation
es notación
fr notation

865
notazio alfabetiko *(4)*
Notak izendatzeko alfabetoaren letrak darabiltzan notazioa. Esaterako, sistema anglosaxoian, la notatik hasita, honela izendatzen dira notak: A, B, C, D, E, F, G. Sistema alemanean, B letra si bemolari dagokio, eta H erabiltzen da si naturala adierazteko.
en alphabetical notation; letter notation
es notación alfabética
fr notation alphabétique
☞ **solmisazio**

866

notazio mentsural *(4)*
sin. notazio neurtu *(3)*
XIII. mendean sortutako notazio-sistema, noten balio proportzionalak lehenengoz erabili zituena soinuen iraupena adierazteko, eta gaur egungo sistemaren aitzindaria dena. Oinarrizko balioak (handitik txikira) *longa, semibrevis, brevis* eta *minima* ziren. Horien arteko erlazioa 3:1 zen (*longa* batek hiru *brevis* ditu).
en mensural notation
es notación mensurada; notación mensural
fr notation mensuraliste; notation mesurée

notazio neumatiko
➥ **neuma-notazio**

notazio neurtu
➥ **notazio mentsural**

ñabardura
➥ **ñabardura dinamiko**

867

ñabardura agogiko *(4)*
Pasarte bat jotzean egiten den abiadura- edo tempo-aldaketa.
en agogics
es matiz agógico
fr nuance agogique
☞ **tempo**

868

ñabardura dinamiko *(4)*
1 sin. ñabardura *(4)*
Soinu bat edo batzuk jotzean erabil daitezkeen intentsitate-mailetako bakoitza.
en dynamics
es dinámica; matiz; matiz dinámico
fr nuance; nuance d'intensité; nuance dynamique

2 sin. dinamika-argibide *(4)*
Pasarte baten soinu-intentsitatearen maila edo horren aldaketa adierazten duen argibidea. Oinarrizkoak *forte* (*f*) eta *piano* dira (*p*). Horien balioak areagotzeko *-issimo* atzizkidunak erabiltzen dira: esaterako, *fortissimo* (*ff*), pianissimo (*pp*) eta abar (*fff*, *ppp*...). Aldiz, "ez oso forte" eta "ez oso piano" adierazteko, *mezzo* adjektiboa erabiltzen da: *mezzoforte* (*mf*) eta *mezzopiano* (*mp*). Beste argibide batzuen xedea intentsitatearen aldaketa adieraztea da (*crescendo, diminuendo*...).
en dynamic mark
es indicación de matiz; indicación dinámica; matiz dinámico
fr indication de dynamique; nuance dynamique

oinarri
1 ➥ **oinarri-nota**
2 ➥ **oinarrizko soinu**

869

oinarri-akorde *(4)*
Oinarrizko antolaeran dagoen akordea, inbertsioa ez dena. Oinarri-akorde baten behe-nota akordearen oinarri-nota da; esaterako, do oinarri-akordea do-mi-sol da.
en chord in root position
es acorde fundamental
fr accord fondamental
☞ **inbertsio; oinarrizko antolaera**

870

oinarri-nota *(4)*
sin. oinarri *(3)*
Akorde bat eratzeko erabiltzen den abiapuntu-nota. Oinarri-nota ez da beti akorde-antolaera edo -posizio jakin baten behe-nota. Izan ere, akordea irauli edo inbertituta egon daiteke, eta behe-nota (edo baxua) hiruduna edo bostuna izan daiteke.

en fundamental; root
es fundamental; nota fundamental
fr fondamentale
☞ **akorde; inbertsio; oinarrizko antolaera**

871
oinarrizko antolaera *(4)*
sin. oinarrizko posizio *(4)*
Akorde baten antolaera-mota, behereneko nota oinarri-nota denean hartzen duena. Esaterako, do akordearen oinarrizko antolaera do-mi-sol da.
en fundamental position; root position
es posición de tónica; posición fundamental
fr position fondamentale
☞ **akorde; inbertsio; oinarri -nota**

oinarrizko posizio
➥ **oinarrizko antolaera**

872
oinarrizko soinu *(4)*
sin. oinarri *(4)*
Serie harmonikoaren lehen bibrazioa edo soinua.
en fundamental
es fundamental; sonido fundamental
fr fondamental; son fondamental
☞ **harmoniko; serie harmoniko**

873
opus *(4)*
Obrak izendatzean, obra-izenaren ondoren erabili ohi den hitza, ondoan delako obra konpositorearen produkzioan kokatzen duen zenbakia duena (op.). Delako zenbakiak ez du beti balio kronologiko fidagarririk, maiz argitaratzaileek jarria izaten baita.
en opus
es opus
fr opus

874
orkestra-partitura *(4)*
sin. partitura orokor *(4)*
Konposizio baten instrumentu eta ahots guztien parteak pentagrama banatan batera agertzen dituen partitura. Instrumentu-multzoen ohiko antolaera honelakoa da (goitik behera): zurezko haize-instrumentuak, metalezko haize-instrumentuak, perkusioa, pianoa, harpa, solistak, ahotsak eta hari-instrumentuak. Multzo bakoitzean, parteak erregistroaren arabera ordenatzen dira (goi-erregistroak goian).
en full score; orchestral score; score
es partitura de orquesta; partitura general
fr partition d'orchestre

875
orkestrazio *(4)*
Instrumentu-multzo baterako, bereziki orkestrarako, konposizioak egiteko edo moldatzeko artea eta teknika; bereziki, konposizioaren parteak orkestrako instrumentuen artean banatzea, konbinatzea eta orekatzea.
en orchestration; scoring
es orquestación
fr orchestration
☞ **instrumentazio**

876
ostinato *(4)*
Konposizio edo pasarte batean etengabe errepikatzen den motibo melodikoa, erritmikoa edo harmonikoa.
en ostinato
es ostinato
fr ostinato
☞ **baxu ostinato**

877

otsoaren bostun *(4)*
Tenperamentu batean, doia baino nabarmen handiagoa den bostuna (esaterako, tenperamentu mesotonikoan).
en wolf; wolf fifth
es quinta del lobo
fr quinte du loup
☞ **tenperamentu mesotoniko**

878

parte *(4)*
1 Zenbait instrumentu edo ahotsetarako obra batean, partitura orokorrean bakoitzari dagokion atala.
en part
es parte
fr partie

2 sin. ahots *(4)*
Polifonia-obra batean, kantari edo instrumentista bakoitzaren nota-segida. Esaterako, sopranoaren, tenorearen partea; lau ahotseko fuga...
en part; voice; voice part
es parte; voz
fr partie; voix

3 Talde batek interpretatzekoa den konposizio batean, instrumentu edo ahots bakarraren partea agertzen duen partitura.
en part; part book
es parte; particella
fr partie
☞ **partitura orokor**

879

particella *(4)*
Konposizio baten partitura laburtua, partitura orokorra baino pentagrama gutxiagokoa. Familia edo multzo bereko instrumentuen parteak pentagrama batean antolatzen ditu, instrumentuen parteak pentagrama banatan agertu beharrean.
en particella
es particella
fr particella
☞ **partitura orokor**

880

partitura *(4)*
Konposizio baten musika-notazioaren bidezko adierazpidea, konposizioa osatzen duten notak eta interpretatzeko argibideak biltzen dituena. Paperezko euskarrian egin ohi da, eta eskuizkribua izan daiteke, edo, eskuarki, inprimatua.
en score; sheet music
es partitura
fr partition

partitura orokor
➥ **orkestra-partitura**

881

partzial *(4)*
Soinu konplexu baten osagai harmoniko edo ez-harmonikoa.

! *harmoniko* / *partzial* bereizketa eztabaidagarria da. Zenbaiten ustez, *partzial* eta *harmoniko* termino baliokideak dira; beste batzuentzat, berriz, instrumentu errealen soinuek serie harmonikokoak ez diren osagaiak izaten dituzte, harmoniko "zehatzak" ez direnak hain zuzen ere, eta, hala ere, *partzial* badirenak.
en partial
es parcial
fr partiel
☞ **harmoniko**

882

pasadizoko nota *(4)*
Bi nota kontsonante melodikoki lotzeko erabiltzen den nota berez disonantea. Eskuarki, konpasaren parte ahulean gertatzen da (bestela denean, pasadizoko nota azentudun esaten zaio), eta bidun edo hirudunez bereizita dauden notak elkartzen ditu, urraskako mugimenduz.
en passing note; passing tone
es nota de paso
fr note de passage
☞ **nota arrotz**

883

pasarte *(4)*
Konposizio baten zatia, gutxi-asko luzea dena eta nolabaiteko osotasuna izan dezakeena.
en passage
es pasaje
fr passage

pedal
➥ **pedal-nota**

884

pedal-nota *(4)*
sin. pedal *(4);* pordoi *(4)*
Pasarte batean mantentzen den behenota, gainerako parteak aldatzen diren bitartean. Gehienetan, tonalitatearen dominantea edo tonika izaten da.
en organ point; pedal; pedal point
es bordón; nota pedal; pedal
fr bourdon; pédale

885

pentagrama *(4)*
Musika-notazioan, bost lerro horizontal paralelo eta distantziakidez osatutako multzoa. Lerroen arteko espazioari *tarte* deritzo. Notak lerroetan edo tarteetan koka daitezke pentagraman. Notaren altuera bertan duen kokapenaren bidez adierazten da. Klabeak zehazten du nota jakin bat zein lerrotan kokatzen den, eta horren bidez, pentagramaren lerro eta tarte bakoitza zein notari dagokion zehazten da. Nota bat pentagramatik kanpo dagoenean (goiko lerroaren gaineko espaziotik gora edo beheko lerroaren azpiko espaziotik behera dagoenean) lerro gehigarriak erabiltzen dira.
en staff; stave
es pauta; pentagrama
fr portée
☞ **klabe; lerro; lerro gehigarri; tarte**

886

pianissimo *(4)*
Musika-pasarte bat oso soinu-intentsitate txikiz, *piano* baino txikiagoz, jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (***pp***).
en pianissimo
es pianissimo
fr pianissimo
☞ **piano**

887

piano *(4)*
Musika-pasarte bat soinu-intentsitate txikiz jo behar dela adierazten duen ñabardura dinamikoa (***p***).
en piano
es piano
fr piano

888

pikardia-hirudun *(4)*
Modu minorreko konposizio edo pasarte baten amaierako tonika-akordean agertzen den hirudun maiorra. Errenazimentuko musikan eta Barrokoan erabili zen batik bat.
en Picardy third; tierce de Picardie
es tercera de picardía
fr tierce de Picardie; tierce picardie

889

pikatu *(4)*
Notak elkarren artetik bereiziz eta gutxi gorabehera haien balioaren erdia emanez jotzen diren artikulazio-mota. Nota-irudiaren gaineko edo azpiko puntu batez adierazten da.

! *Pikatu* eta *staccato*ren arteko bereizketa ez da argia, eta ez da hizkuntza, tradizio eta estilo guztietan egiten. Ikus *staccato* sarrerako oharra.

es picado
fr piqué
☞ **legato; staccato**

890

pizzicato *(4)*
Arkuz jotzen diren hari-instrumentuetan, hariak hatzez pultsatuz jotzea; hedaduraz, horrela jotzen den musika-pasartea.

en pizzicato
es pizzicato
fr pizzicato

891

plika *(4)*
Zuriaren eta balio txikiagoko noten buruek duten marra bertikala. Plika burutik gorakoa zein beherakoa izan daiteke.

en stem
es plica
fr hampe

892

polimetria *(4)*
Konposizio edo pasarte batean, konpas desberdina eta berezitua duten parte batzuk batera gertatzea eta gainjartzea, bien azentu metrikoak bat ez datozela.

en polymeter
es polimetría; polimetrismo
fr polymétrie
☞ **polirritmia**

893

polirritmia *(4)*
Konposizio edo pasarte batean, erritmo desberdina eta berezitua duten parte batzuk batera gertatzea eta gainjartzea.

en polyrhythm
es polirritmia
fr polyrythmie
☞ **polimetria**

894

politonalitate *(4)*
sin. tonuaniztasun *(4)*
Konposizio edo pasarte batean aldi berean bi tonalitate edo gehiago erabiltzea. Eskuarki, bi tonalitate izaten dira, gehienaz ere (*bitonalitate*). XX. mendeko musikan erabili izan da.

en polytonality
es politonalidad
fr politonalisme; polytonalité
☞ **bitonalitate**

poltsiko-partitura
➥ **sakelako partitura**

pordoi
➥ **pedal-nota**

895

portamento *(4)*
Nota batetik bestera tarteko soinu guztietatik azkar pasatzea. Ahotsaz, koska edo trasterik gabeko arku-instrumentuez, irristailu-tronboiaz, eta abarrez egin daiteke (hau da, bi notaren arteko altuera guztiak sor ditzaketen instrumentuetan). Nolanahi ere, batez ere ahotsari dagokiola erabili ohi da (instrumentuetan, *glissando* erabili ohi da).

en port de voix; portamento
es portamento
fr port de voix
☞ **glissando**

896

presto *(4)*
Tempo arina, *vivace* baino arinagoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en presto
es presto
fr presto
☞ **tempo**

897

progresio *(4)*
Motibo melodiko edo harmoniko bat goiko edo beheko gradu batean errepikatuz osatzen den segida.
en progression
es progresión
fr progression

progresio harmoniko
➥ **akorde-progresio**

898

pultsu *(4)*
Musika-erritmoaren oinarria den aldizkako gertakarien segida, denbora unitate berdinetan zatitzen duena. Delako gertakarien segida entzungarria izan daiteke (soinuak, kolpeak), edo entzuten denari eusten dion egitura abstraktutzat hautemana.
en beat; pulse
es pulso
fr battement; pulsation
☞ **erritmo**

899

puntu *(4)*
Nota edo isilune baten ondoren jartzen den ikurra, hark berez duen balioari erdia gehitzen diona. Esaterako: 𝅗𝅥=𝅗𝅥+𝅘𝅥𝅮.
en dot
es puntillo
fr point

900

puntu bikoitz
Nota edo isilune baten ondoren jartzen den ikurra, berez duen balioari horren hiru laurdenak gehitzen dizkiona. Esaterako: 𝅗𝅥=𝅗𝅥+𝅘𝅥𝅮+𝅘𝅥𝅯.
en double dot
es doble puntillo
fr double point

901

rallentando *(4)*
Tempoa pixkanaka geldotzeko argibidea (*rall., rallent.*).
en rallentando
es rallentando
fr rallentando
☞ **accelerando; ritardando**

902

re *(4)*
Nota-izena, solmisazio-sistemako bigarrena, *do* eta *mi*ren artekoa.
en D
es re
fr ré
☞ **solmisazio**

903

ritardando *(4)*
Tempoa pixkanaka geldotzeko argibidea (*rit., ritard.*).
en ritardando
es ritardando
fr ritardando
☞ **accelerando; rallentando**



Nota-irudi
puntudunen balioa

904

rubato *(4)*

Interpretazioan, tempoa eta noten balio erlatiboak askatasun pixka batez jotzean datzan espresio-baliabidea.

en rubato
es rubato
fr rubato

905

sakelako partitura *(4)*

sin. poltsiko-partitura *(3)*

Konposizio baten formatu txikiko partitura.

en pocket score
es partitura de bolsillo
fr partition de poche

906

segno *(4)*

sin. seinale *(4)*

Partituraren leku jakin batean ezartzen den ikurra, errepikatzen den pasarte baten hasiera edo bukaera adierazteko erreferentziatzat erabiltzen dena (𝄋). Hasiera adierazteko, D.S. (*dal segno*, "seinaletik berriz") jartzen da pasartearen amaieran; bukaera bada, *al segno* edo *sin al segno* ("seinaleraino") eta *fin'al segno* ("seinalean amaitu").

en segno
es segno; señal
fr segno; signe de renvoi

907

seidun *(4)*

sin. seidun bitarte (4)

Eskala diatonikoaren ondoz ondoko sei notaren arteko bitartea. Bitartea lau tonu eta erdikoa bada, *seidun maiorra* da (do-la), eta hiru tonu eta bi tonuerdikoa bada, *seidun minorra* (do-la♭).

en sixth
es intervalo de sexta; sexta
fr sixte

☞ **bitarte maior; bitarte minor**

908

seidun atxikiko akorde *(4)*

Triada bati seiduna erantsiz sortzen den akordea. Esaterako, do-mi-sol-la akordea.

en added sixth chord
es acorde de sexta añadida
fr accord de sixte ajouté

☞ **akorde seidun**

seidun bitarte

➥ **seidun**

909

seidun gehituko akorde *(4)*

en augmented sixth chord
es acorde de sexta aumentada
fr accord de sixte augmentée

seidun napolitar

➥ **akorde seidun napolitar**

910

seikotxo *(4)*

Sei notaz osatutako balio bereziko multzoa, balio bereko lau notaren baliokidea dena. Esaterako, 2/4 konpas batean, kortxeaerdi-seikotxoak aldi oso baten balioa du, hau da, lau kortxeaerdiren balioa. Noten gaineko 6 zenbakiaz adierazten da.

en sextuplet
es seisillo; sextillo
fr sextolet

seinale

➥ **segno**



seikotxoa

911

sentsible *(4)*

Eskala diatonikoko zazpigarren graduari ematen zaion izena, tonika baino tonuerdi bat beherago dagoenean.

en leading note; leading tone
es sensible
fr sensible

☞ **eskala diatoniko; subtonika; tonika**

912

serie *(4)*

Serialismoan, konpositoreak ezarritako ordena jakin baten arabera antolatutako eskala kromatikoko hamabi noten segida, notak errepikatu gabe osatu ohi dena eta konposizio baten oinarrizko materialtzat erabiltzen dena.

en row; set
es serie
fr série

☞ **dodekafonismo; serialismo**

913

serie harmoniko *(4)*

sin. harmonikoen serie *(4)*

Oinarrizko bibrazio baten eta dagozkion harmonikoen segida.

en harmonic series
es serie de armónicos
fr série d'harmoniques; série harmonique

☞ **harmoniko; oinarrizko soinu**

914

sforzando *(4)*

Nota nabarmenduz eta iraupen osoa emanez jo behar dela adierazten duen argibidea (*sf*).

en sforzando
es sforzando
fr sforzando

915

si *(4)*

Nota-izena, solmisazio-sistemako zazpigarrena, *la*ren ondorengoa.

en B
es si
fr si

☞ **solmisazio**

916

sinkopa *(4)*

Soinu bat konpasaren aldi ahulean artikulatzea eta aldi indartsuan isildu gabe irautea; delako soinua bera.

en syncopation; syncope
es síncopa
fr syncope

☞ **kontradenbora**

917

sistema *(4)*

Elkarrekin erlazionaturiko zenbait instrumenturen edo ahotsen pentagramen multzoa. Sistema bereko pentagramen hasierak kako zuzenez elkartzen dira.

en system
es sistema
fr système
☞ **kako zuzen**

sistema tenperatu

➥ **tenperamentu**

sistema tonal

➥ **tonalitate**

918

soinu *(4)*

Objektu baten bibrazioek ingurune elastiko batean (adibidez, airean) eragindako presio-uhina hedatzean datzan fenomenoa; delako uhinek giza belarrian eragiten duten sentsazioa. Soinuaren ezaugarri nagusiak altuera, intentsitatea, iraupena eta tinbrea dira.

en sound
es sonido
fr son
☞ **altuera; intentsitate; iraupen; tinbre**

soinu-altuera

➥ **altuera**

919

sol *(4)*

Nota-izena, solmisazio-sistemako bosgarrena, *fa* eta *la*ren artekoa.

en G
es sol
fr sol
☞ **solmisazio**

920

sol klabe *(4)*

1 Sol notaren (sol_3-ren) kokalekua zehazten duen klabea (𝄞). Zeinuaren kiribilaren erdiak adierazten du sol notaren kokalekua. Arruntena bigarren lerrokoa da, eta eskuarki *sol klabe* terminoa klabe hori adierazteko erabiltzen da, beste sol klabe bat dagoen arren (lehen lerrokoa edo biolinaren frantses klabea).

en G clef; G-clef
es clave de sol
fr clé de sol; clef de sol
☞ **klabe; lehen lerroko sol klabe**

2 sin. bigarren lerroko sol klabe *(4)*

Sol nota (sol_3) pentagramaren bigarren lerroan kokatzen duen klabe-mota. Klabe arruntenetakoa da, laugarren lerroko fa klabearekin batera. Instrumentu hauen musika idazten da sol klabean, besteak beste: biolina, teklatu-instrumentuen eskuineko eskua, tronpeta, oboea, flautak, klarineteak, saxofoiak, gitarra, soprano eta kontraltoaren ahotsak...

en treble clef; violin clef
es clave de sol; clave de sol en segunda línea
fr clé de sol; clé de sol deuxième ligne; clef de sol; clef de sol deuxième ligne
☞ **klabe**



Sol klabea (sol_3)

921

solfeatu *(4)*

Idatzitako musika notak izendatuz eta konpasa eramanez kantatu.

es solfear
fr solfier

922

solfeo *(4)*
Musikaren teoria, notazioa eta honen irakurketa lantzen dituen jakintza-alorra; horren irakaskuntza.
en solfeggio
es solfeo
fr solfège
☞ **solmisazio**

solista
➥ **bakarlari**

923

solmisazio *(4)*
Nota-izenak silaba bidez adierazteko eta kantatzeko sistema. Guido D'Arezzok asmatu bide zuen (XI. m.).
en solmization
es notación latina; notación silábica; solmisación
fr notation syllabique; solmisation
☞ **notazio alfabetiko**

924

solo *(4)*
Interpretatzaile bakar batek jotzen edo kantatzen duen obra edo pasartea. Talde batekin edo laguntza-instrumentu batekin batera interpretatzen den obra edo pasarte batean, soloa gainerako parteetatik nabarmentzen den instrumentista edo kantariaren partea da.
en solo
es solo
fr solo

sostenitu
➥ **diese**

sostenitu bikoitz
➥ **diese bikoitz**

925

staccato *(4)*
Notak elkarren artetik bereizita jotzen diren artikulazio-mota. Nota-irudiaren gaineko edo azpiko puntu batez adierazten da, edo, pasartearen hasieran, *staccato* hitzaz, *stacc.* laburduraz, edo *non legato* esaldiaz. Noten artean isilune laburrak egiten dira, bata bestetik ondo bereizteko. *Staccato*rekin kontrajarritako artikulazioa *legato* da.

! *Staccato* jotzen denean notari kendu behar zaion balioa dela eta (hau da, noten artean egiten den isilunearen balioa dela eta), joera desberdinak daude; batzuetan, notari balioaren erdia kentzen zaiola aipatzen da (*pikatu*ren antzera), eta, beste batzuetan, noten artean isilune laburrak baino ez direla egin behar.
en staccato
es staccato
fr détaché; staccato
☞ **artikulazio; legato; pikatu**

926

subdominante *(4)*
Eskala diatonikoaren laugarren gradua, dominantearen azpian dagoena.
en subdominant
es subdominante
fr sous-dominante
☞ **dominante; eskala diatoniko; gradu; tonika**

927

subtonika *(4)*
Eskala diatonikoko zazpigarren graduari ematen zaion izena, tonika baino tonu bat beherago dagoenean.
en subtonic
es subtónica
fr sous-tonique
☞ **eskala diatoniko; sentsible; tonika**

928

superdominante *(4)*
Eskala diatonikoaren seigarren gradua, dominantearen gainekoa.
en submediant; superdominant
es superdominante
fr sus-dominante
☞ **dominante; eskala diatoniko; gradu; tonika**

929

supertonika *(4)*
Eskala diatonikoaren bigarren gradua, tonikaren gainekoa.
en supertonic
es supertónica
fr supertonique
☞ **eskala diatoniko; gradu; tonika**

930

swing *(4)*
Jazzaren bereizgarria den erritmo-pultsazioa. Oro har, swing-aren ezaugarri aipatuenetakoa da kortxea-bikotearen lehen kortxea bigarrena baino luzexeagoa izatea, eta bigarrenak azentu txiki bat izatea. Hori egiteko modu zehatza tempoaren, estiloaren edo musikariaren beraren arabera aldatzen da.
en swing
es swing
fr swing

931

tablatura *(4)*
Erdi Aroko eta Errenazimentu-garaiko notazio-sistema, instrumentistari zenbaki, letra, barra eta abarren bidez instrumentuan zer egin behar duen adierazten diona (hatzak non jarri, zein hari jo...).
en tablature
es tablatura
fr tablature

932

tarte *(4)*
sin. lerroarte *(4)*
Pentagraman, bi lerroren arteko lekua. Lerroekin batera, notak kokatzeko erabiltzen dira.
en space
es espacio
fr interligne
☞ **lerro; pentagrama**

933

tempo *(4)*
Konposizioa interpretatzeko abiadura-maila. Musika-notazioan, tempoa eta horren ñabardura edo aldaketa tempo-adierazleen bidez jakinarazten da.
en tempo
es tempo
fr tempo
☞ **balio; iraupen; tempo-adierazle**

934

tempo-adierazle *(4)*
Konposizio edo pasarte baten tempoa, edo horren ñabardura zein aldaketa adierazten duen hitz edo esaldia. Oro har, tempoa italierazko hitzez adierazi ohi da (*lento, adagio, allegro, presto, vivace...*); tempo zehatza metronomoaren abiadurari dagokion zenbaki batez adieraz daiteke (esaterako, ♩ = 120). Oinarrizko tempo-adierazleen esanahia ñabartzeko argibideak ere erabiltzen dira (*ma non troppo, assai, con moto, moderato...*). Tempoa aldatzeko adierazpenak ere erabil daitezke, azkartzeko (*accelerando, stringendo...*), geldotzeko (*rallentando, ritardando...*), erregulartasuna hausteko (*ad libitum, rubato...*) zein hasierakora itzultzeko (*a tempo, tempo giusto...*).
en tempo indication; tempo mark
es indicación de tempo
fr indication de tempo
☞ **metronomo-argibide; tempo**

935

tenor *(4)*
Lau ahotseko konposizio batean, goitik hasita hirugarren den ahots edo partea.
en tenor
es tenor
fr ténor

936

tenperamentu *(4)*
1 Intonazio-sistemetan, akustikoki perfektua edo justua den bitarte baten balioa zertxobait aldatzea. Horrela aldatutako bitarteari *bitarte tenperatu* deritzo.
en temperament
es temperamento
fr tempérament
☞ **intonazio**

2 sin. sistema tenperatu *(4)*
Intonazio-sistema doiaren bitarteak aldaturik (bitarte tenperatuak) darabiltzan intonazio-sistema. Intonazio doian zein pitagorikoan, bat ez datozen "enarmonikoak" sortzen dira (si diesea eta do naturala ez dira soinu bera), eta horrek modulaziorako eta bereziki instrumentu polifonikoak egiteko arazoak dakartza berekin (teklatu-instrumentuak, esaterako).
Tenperamentuen bidez, arazo horiek konpondu nahi izan dira.
en temperament; tempered system
es sistema temperado; temperamento
fr tempérament
☞ **intonazio; tenperamentu berdin; tenperamentu desberdin; tenperamentu mesotoniko**

937

tenperamentu berdin *(4)*
Zortziduna 12 tonuerdi berdinetan banatzen duen tenperamentu-mota. Gaur egun nagusi den intonazio-sistema da.
en equal temperament
es temperamento igual
fr tempérament égal
☞ **intonazio**

938

tenperamentu desberdin *(4)*
Zortziduna berdinak ez diren 12 tonuerditan banatzen duen tenperamentu-mota. Hainbat tenperamentu desberdin proposatu izan dira (mesotonikoa, Kirnberger, Werckmeister, Valotti...).
en unequal temperament
es temperamento desigual
fr tempérament inégal
☞ **tenperamentu mesotoniko**

939

tenperamentu mesotoniko *(4)*
Helburutzat ahalik eta hirudun doi gehien lortzea duen tenperamentu-mota. Tenperamentu mesotoniko zabalduenean, hamaika bostun sistema pitagorikoan baino txikiagoak dira (koma sintonikoaren laurden bat), eta azkena, berriz, nabarmen handiagoa, eta entzuteko aski gogorra *(otsoaren bostuna)*. Egokia da oinarrizko tonalitate batzuetatik (do, fa, sol) ondokoetara bakarrik modulatu behar denean. XVI. mendean sortu zen eta XVIII. mendearen amaierara arte erabili zen mendebaldeko Europan (Ingalaterran, XIX. mendearen erdialdera arte).
en mean-tone temperament; meantone temperament
es temperamento mesotónico
fr tempérament mésotonique
☞ **otsoaren bostun**

940

tenperatu *(4)*
Tenperamentu baten araberakoa; batez ere, tenperamentu berdinaren araberakoa. Esaterako, bitarte tenperatua, bostun tenperatua, eskala tenperatua...

en tempered
es temperado, -a
fr tempéré, -ée
☞ **eskala tenperatu; tenperamentu; tenperamentu berdin**

941

tenuto *(4)*
sin. azpimarratu *(4)*
Notari dagokion iraupen osoa eman behar zaiola adierazteko erabiltzen den ikurra. Nota-irudiaren gaineko edo azpiko marra horizontala da.
en tenuto
es subrayado; tenuto
fr souligné; tenuto
☞ **artikulazio; legato; staccato**

942

tesitura *(4)*
Instrumentu, ahots edo konposizio baten hedaduran, ohiko edo batez besteko altuera-tartea. Instrumentuaren edo ahotsaren hedaduraren tarte 'erosoa' dela esan ohi da, muturreko erregistro baxu eta altuetatik bereizteko.
en tessitura
es tesitura
fr tessiture
☞ **erregistro; hedadura**

943

tetragrama *(4)*
Lau lerro paralelo eta distantziakidez osatutako multzoa, kantu lauaren idazkeran erabiltzen zena.
en four line staff
es tetragrama
fr tétragramme

944

tetrakorde *(4)*
Laudun justua osatzen duten lau notaren segida. Zenbait musika-sistemaren osagaiak dira (antzinako Grezia, Erdi Aroko teorialariak...). Antzinako Grezian, tetrakordeak beherantz deskribatu ziren, eta bi tonuz eta tonuerdi batez osatutako tetrakordeari diatoniko deitzen zitzaion. Tetrakorde diatonikoak tonuerdiaren posizioaren arabera bereizten dira (T-T-TE; T-TE-T; TE-T-T), eta bakoitzaren izendapena aldatu izan da sistemaren eta garaiaren arabera.
en tetrachord
es tetracordio; tetracordo
fr tétracorde
☞ **modu; modu greko**

945

tinbre *(4)*
Soinuaren berezko ezaugarria, maiztasun edo altueratik independentea dena eta sortu duen instrumentu edo ahotsaren bereizgarri dena. Oinarrizko soinuaren gainean eratzen diren harmonikoen intentsitate erlatiboen araberakoa da, hein handian.
en timbre; tone color
es timbre
fr timbre
☞ **altuera**

946

tonal *(4)*
Tonu edo tonalitateari dagokiona (esaterako, sistema tonal, gradu tonal...).
en tonal
es tonal
fr tonal, -ale

947

tonalitate *(4)*
1 sin. sistema tonal *(4)*
Tonika izeneko nota bat erdigunetzat hartuz egiten den musika-sistemaren antolaera hierarkikoa. Tonalitatearen ezaugarri nagusiak dira: a) funtzio tonalen hierarkizazioa: tonika, dominantea eta subdominantea (tonikak egonkortasuna adierazten du; domi-

nanteak, berriz, tentsioa); b) kadentziek garrantzi handia izatea musika-diskurtsoan; eta c) modu maior eta minorra.
en tonal system; tonality
es sistema tonal; tonalidad
fr système tonal; tonalité

2 sin. tonu *(4)*
Tonikaren eskala diatonikoaren soinuek eta graduen arteko erlazio hierarkikoek osatzen duten multzoa. Konposizio edo pasarte baten tonalitatea tonikaren eta moduaren bidez zehazten da (do maiorra, re minorra, eta abar).
en key; tonality
es tonalidad; tono
fr ton; tonalité

948
tonalitate erlatibo *(4)*
sin. tonu erlatibo *(4)*
Tonalitate maior edo minor batekiko, haren nota-multzo (edo armadura) bera duten tonalitate minorra edo maiorra (hurrenez hurren). Tonalitate maior baten erlatibo minorra hirudun minor bat beheragotik hasten da, hau da, VI. gradua da tonalitate erlatiboa. Esaterako, do maiorreko tonalitatearen erlatibo minorra la minorra da.
en relative key
es tonalidad relativa; tono relativo
fr ton relatif

949
tonalitate homonimo *(4)*
Tonika bera duten tonalitate maior eta minorretako bakoitza (esaterako, do maiorra eta do minorra).
en parallel key
es tonalidad homónima
fr tonalité homonyme

950
tonika *(4)*
Eskala diatonikoaren lehen gradua. Eskala baten oinarrizko nota da, eskalari izena ematen diona eta eskalaren gainerako soinuak antolatzen dituena.
en tonic
es tónica
fr tonique
☞ **gradu; tonalitate**

951
tonu *(4)*
1 Bidun maiorra osatzen duten bi notaren altueren arteko distantzia, bi tonuerdiz osatua. Eskala naturalaren ondoko bi notaren arteko distantzia da (mi-fa eta si-do noten artekoa izan ezik, hori tonuerdikoa baita).
en tone; whole step; whole tone
es tono
fr ton
☞ **bidun; tonuerdi**

2 ➥ **tonalitate**

tonu erlatibo
➥ **tonalitate erlatibo**



Tonu osoko eskalak

952
tonu osoko eskala *(4)*
sin. tonu osoko gama *(4)*; tonu-eskala *(4)*; tonu-gama *(4)*
Sei notako eskala, noten artean tonu osoak dituena (esaterako, do-re-mi-fa♯-sol♯-la♯).

en whole tone scale
es escala de tonos; escala de tonos enteros; escala por tonos; escala por tonos enteros
fr gamme par tones; gamme par tones entiers; gamme unitonique
☞ **eskala hexatono**

tonu osoko gama
➥ **tonu osoko eskala**

953
tonua galdu *(4)*
sin. desafinatu *(3)*; tonutik irten *(3)*
Instrumentista edo kantaria intonazio egokitik aldendu.

! Ingelesezko *play out of tune* eta *sing out of tune/pitch* terminoak instrumentuari eta kantariari dagozkio, hurrenez hurren.
en be out of tune; play out of tune; sing out of pitch; sing out of tune
es desafinar; desentonar; discordar; disonar
fr détonner

tonuaniztasun
➥ **politonalitate**

954
tonuerdi *(4)*
Tonuaren erdia balio duen bitartea, bidun minorraren baliokidea. Intonazio-sistemaren arabera, tonuerdien balioa aldatu egiten da. Tenperamentu berdinean, tonuerdi guztiak berdinak dira (zortziduna banatzen den hamabi tarte berdinetako bakoitza da tonuerdia).
en half step; semitone
es semitono
fr demi-ton
☞ **intonazio; tenperamentu berdin; tonu**

955
tonuerdi diatoniko *(4)*
Nota-izen desberdineko bi notaren arteko tonuerdia (do-re♭; do♯-re).
en diatonic semitone
es semitono diatónico
fr demi-ton diatonique
☞ **tonuerdi kromatiko**

956
tonuerdi kromatiko *(4)*
Nota-izen bereko bi notaren arteko tonuerdia (do-do♯, re♭-re).
en chromatic semitone
es semitono cromático
fr demi-ton chromatique
☞ **tonuerdi kromatiko**

tonu-eskala
➥ **tonu osoko eskala**

tonu-gama
➥ **tonu osoko eskala**

957
tonu-laurden *(4)*
Tonuerdiaren erdia balio duen mikrotonua.
en quarter tone
es cuarto de tono
fr quart de ton
☞ **mikrotonu**

tonutik irten
➥ **tonua galdu**

958
transkripzio *(4)*
1 Musika-obra edo -pasarte bat notazio-sistema batetik bestera aldatzea (esaterako, neuma-notaziotik edo tablaturatik gaur egungo sistema estandarrera).
en transcription
es transcripción
fr transcription

2 Musika-konposizio bat berridaztea konpositoreak jatorrizkoan zehaztutakoa ez bezalako instrumentaziorako edota ahotsetarako.
en transcription
es transcripción
fr transcription
☞ **moldaketa**

3 Zuzeneko musika-saioa edo grabatutakoa notazio-sistema batez idatziz adieraztea.
en transcription
es transcripción
fr transcription

959
transposatu *(4)*
Konposizio edo pasarte baten transposizioa egin.

! Transposizioa zehazteko, *goranzko laudun justu bat transposatu* moduko esaldiak erabil daitezke.
en transpose
es transportar
fr transposer

960
transposizio *(4)*
Konposizio edo pasarte baten soinuen altuerak bitarte berdin batez igotzea edo jaistea, soinuen altuera erlatiboak aldatu gabe. Idatziz zein irakurri ahala ("lehen begiradan") egin daiteke.
en transposition
es transporte; transposición
fr transposition
☞ **transposizio-instrumentu**

961
tremolo *(4)*
Nota bera zenbait aldiz azkar errepikatzea. Arku-instrumentuetan, arkua tarte laburrez gora eta behera mugituz egiten da; hari pultsatuko instrumentuetan, haria plektroz edo hatzez azkar joz; pianoan, tekla bera behin eta berriro sakatuz.
en tremolo
es trémolo
fr trémolo

962
triada *(4)*
sin. akorde triada *(4)*
Hiru notaz osatutako akordea, oinarrinotaz, horren hirudunaz eta bostunaz osatua. Harmonia tonalaren oinarrizko akorde-mota da. Lau dira: triada maiorra, triada minorra, triada gehitua eta triada gutxitua.
en 3-note chord; triad
es acorde tríada; tríada
fr accord triade; accorde de 3 notes; triade
☞ **akorde perfektu**

963
triada gehitu *(4)*
Oinarri-notaz, horren hirudun maiorraz eta bostun gehituaz osatutako akordea. Esaterako, do-mi-sol♯ triada gehitua.
en augmented triad
es tríada aumentada
fr triade augmentée
☞ **triada gutxitu; triada maior; triada minor**

964
triada gutxitu *(4)*
Oinarri-notaz, horren hirudun minorraz eta bostun gutxituaz osatutako akordea. Esaterako, do-mi♭-sol♭ triada gutxitua.
en diminished triad
es tríada disminuida
fr triade diminuée
☞ **triada gehitu; triada maior; triada minor**



Triada-motak



Modu maiorreko triadak



Modu minorreko triadak
(minor harmonikoaren araberakoak)

965

triada maior *(4)*

sin. akorde perfektu maior *(4)*

Oinarri-notaz, horren hirudun maiorraz eta bostun justuaz osatutako akordea. Esaterako, do-mi-sol triada maiorra.

en major triad
es acorde perfecto mayor; tríada mayor
fr accord parfait majeur; triade majeure

☞ **triada gehitu; triada gutxitu; triada minor**

966

triada minor *(4)*

sin. akorde perfektu minor *(4)*

Oinarri-notaz, horren hirudun minorraz eta bostun justuaz osatutako akordea. Esaterako, do-mi♭-sol triada minorra.

en minor triad
es acorde perfecto menor; tríada menor
fr accord parfait mineur; triade mineure

☞ **triada gehitu; triada gutxitu; triada maior**

967

trillo *(4)*

Apaindura-mota, nota nagusia eta horren goiko nota bata bestearen ondoren errepikatuz interpretatzen dena (*tr*). Interpretatzeko modu zehatz batzuk daude, baina, eskuarki, goiko notatik hasten da.

en shake; trill
es trino
fr trille

☞ **apaindura-nota**



Txioa eta interpretazio-aukera batzuk

968

tritonu *(4)*

Hiru tonu osok osatzen duten bitartea, hau da, laudun gehitua. Eskala diatonikoan, IV. eta VII. graduen artean gertatzen da (do *eskalan, fa-si da tritonua).* Erdi Arotik disonantziatzat hartua da (*diabolus in musica* esaten zitzaion). Musika tonalean, garrantzi handia du dominante-akorde zazpidunean agertzen delako (sol-si-re-fa), eta tonikara biderazteko joera handia duelako, tonuerdiko mugimendu banaren bidez (si-fa -> do-mi).

en tritone
es tritono
fr triton

969

unisono *(4)*
1 Altuera bereko bi soinu edo notaren arteko bitartea.
en unison
es unísono
fr unisson

2 Ahots edo instrumentu batzuek altuera bereko soinuak (nota berberak) jotzea; horrelako musika-pasartea.
en unison
es unísono
fr unisson

970

urraskako mugimendu *(4)*
sin. mugimendu konjuntu *(4)*
Melodia edo ahots batean, nota batetik ondoko gradu batera egiten den mugimendua.
en conjunct movement; step movement
es movimiento conjunto; movimiento por grados conjuntos
fr conjonction; mouvement conjoint
☞ **mugimendu disjuntu**

971

vibrato *(4)*
Instrumentuz edo ahotsez egiten den soinuaren altuera-aldaketa txiki eta lasterren segida, espresio-baliabide gisa erabiltzen dena.
en vibrato
es vibrato
fr vibrato

972

vivace *(4)*
Tempo arina, *allegro* eta *prestro*ren artekoa; hedaduraz, tempo horretan jotzen den konposizioa edo atala.
en vivace
es vivace
fr vivace
☞ **tempo**

walking bass
➥ **baxu ibiltari**

973

zatiketa *(4)*
Konpasaren aldia zati berdinetan banatzea. Konpas bakunen zatiketa bitarra da (aldi bakoitza bitan banatzen da); konpas konposatuena, berriz, hirutarra (aldia hirutan banatzen da). Zenbait konbinazio-konpas zatiketa desberdineko konpastzat analiza daitezke (esaterako, 5/8 konpasa bitartzat jo daiteke: aldi bata zatiketa hirutarrekoa, eta bestea bitarrekoa); horrelakoei *aldi desberdineko konpas* deitu ohi zaie).
en subdivision
es subdivisión
fr division
☞ **konbinazio-konpas; konpas bakun; konpas konposatu**

zatiketa bitarreko konpas
➥ **konpas bakun**

zatiketa hirutarreko konpas
➥ **konpas konposatu**

zatilerro
➥ **konpas-barra**

974

zazpidun *(4)*
sin. zazpidun bitarte *(4)*
Eskala diatonikoaren ondoz ondoko zazpi notaren arteko bitartea. Bitartea bost tonu eta erdikoa bada, *zazpidun*

maiorra da (do-si), eta lau tonu eta bi tonuerdikoa bada, *zazpidun minorra* (do-si♭).

en seventh
es intervalo de séptima; séptima
fr septième
☞ **bitarte maior; bitarte minor**

zazpidun bitarte
➥ **zazpidun**

975

zazpidun gutxituko akorde *(4)*
Triada gutxituari oinarri-notaren zazpidun gutxitua erantsiz eratzen den akordea. Esaterako, do-mi♭-sol♭-si𝄫 akordea.

en diminished 7th chord; diminished seventh chord
es acorde de séptima disminuida
fr accord de septième diminuée
☞ **akorde zazpidun; eskala oktatoniko; triada gutxitu**

976

zazpidun maiorreko akorde *(4)*
Oinarri-notaren zazpidun maiorra duen akorde maiorra. Esaterako, do-mi-sol-si.

en major seventh chord
es acorde de séptima mayor
fr accord de septième majeure
☞ **akorde zazpidun**

977

zazpikotxo *(4)*
Zazpi notaz osatutako balio bereziko multzoa, balio bereko lau edo sei notaren baliokidea dena. Esaterako, 2/4 konpas batean, kortxeaerdi-zazpikotxoak aldi oso baten balioa du, hau da, lau kortxeaerdiren balioa. Noten gaineko 7 zenbakiaz adierazten da.

en septuplet
es septillo
fr septolet



zazpikotxoa

978

zesura *(4)*
Bi fraseren arteko muga eta pausagunea, eskuarki pentagramaren gaineko koma batez (,) edo // ikurraz adierazten dena. Kantari eta haize-instrumentisten kasuan, arnasa hartzeko unearekin bat etorri ohi da.

en caesura
es cesura
fr césure
☞ **koma**

979

zifratze *(4)*
Musika-notazioan, informazioa zifra edo zenbaki bidez adieraztea. Notazioaren hainbat alderdi edo elementu adieraz daitezke zifratzearen bidez. Elementu batzuk zifra arabiarrez adierazten dira (baxu zifratuaren sisteman, bitarteak, hatz-jokoa...), eta beste batzuk, erromatarrez (eskalaren graduak, funtzio tonalak).

en figuring
es cifrado
fr chiffrage
☞ **baxu zifratu**

980

zortzidun *(4)*
sin. zortzidun bitarte (4)
Eskala diatonikoaren ondoz ondoko zortzi notaren arteko bitartea. Goiko notaren uhin-maiztasuna behekoaren bikoitza da. Zortziduna osatzen duten bi notek izen bera dute, eta zortzidun desberdineko izen bereko notak bereizteko zenbait sistema erabiltzen dira.

en octave
es intervalo de octava; octava
fr octave
☞ **bitarte**

zortzidun bitarte
➥ **zortzidun**

981

zortzidun paraleloak *(4)*
Ahotsen mugimenduan, ahotsen artean gertatzen diren ondoz ondoko bi zortzidun justuak. Mugimendu paraleloaren kasu bat da.

en consecutive octaves; parallel octaves
es octavas paralelas
fr octaves parallèles
☞ **bostun paraleloak; mugimendu paralelo**

982

zuri *(4)*
Biribilaren erdia (edo beltzaren bikoitza) balio duen nota-irudia (𝅗𝅥).

en half note; minim
es blanca
fr blanche

983

zuriko isilune *(4)*
Zuri baten balioa duen isilunea (**-**).

en half rest; minim rest
es silencio de blanca
fr demi-pause
☞ **isilune**

Euskarazko Aurkibidea

A

a capella, 555
a tempo, 556
abesbatza, 166
abesti, 431
accelerando, 557
acciaccatura, 558
adagietto, 559
adagio, 560
adar, 1
adar ingeles, 2
aerofono, 3
afinagailu, 4
afinatu, 276
afinatzaile, 5
afinazio, 129, 277, 761
afinazio doi, 762
afinazio pitagoriko, 763
agogika, 561
agur, 336
ahaire, 382
ahoa itxita, 562
ahokadura, 6
ahoko, 7
ahoko pieza, 7
ahoko soinu, 8
aho-soinu, 8
ahots, 9, 878
ahots baxu, 10
ahots berdinak, 11
ahots mistoak, 12
ahots zuri, 13
ahots-joskera, 563
ahots-korda, 14
ahots-mugimendu, 563
ahots-musika, 337
ahots-talde, 15
aitzinatze, 612
akonpainamendu, 801
akonpainamendua egin, 800
akonpainatu, 800
akorde, 564
akorde alteratu, 565
akorde arpegiatu, 566
akorde gehitu, 567
akorde gutxitu, 568
akorde inbertitu, 569
akorde irauli, 569
akorde koatriada, 775
akorde maior, 570
akorde minor, 571
akorde perfektu, 572
akorde perfektu maior, 965
akorde perfektu minor, 966
akorde seidun, 573
akorde seidun napolitar, 574
akorde sei-laudun, 575
akorde triada, 962
akorde zazpidun, 576
akorde zazpidun minor, 577
akordeoi, 16
akordeoi diatoniko, 17
akordeoi kromatiko, 18
akordeoilari, 251
akorde-progresio, 578
akorde-segida, 578
Alberti baxu, 579
alboka, 19
albokari, 20
alderantzikatze, 757
aldi, 580
aldi ahul, 581
aldi indartsu, 582
aldi klasiko, 439
alemanda, 338
allegretto, 583
allegro, 584
Alpeetako tronpa, 21
alteratu, 585
alterazio, 586

alterazio akzidental, 632
alterazio bakun, 587
alterazio bikoitz, 588
alterazio propio, 589
altu, 22, 156, 590
altuera, 591
anakrusi, 592
analisi, 593
andante, 594
andantino, 595
anplifikadore, 23
antifona, 339
antolaera, 596
antolaera ireki, 597
antolaera itxi, 598
antzerki-musika, 467
antzinako modu, 599
antzinako musika, 340
apaindura, 600, 601
apaindura-nota, 601
apoiatura, 602
apoiatura labur, 558
argibide, 603
aria, 341
arima, 24
arin-arin, 342
arku, 25
arku-instrumentu, 26
arkukada, 27
arku-kolpe, 27
armadura, 604
armadura-aldaketa, 605
arpegio, 606
arrada, 28
ars antiqua, 343
ars nova, 344
artikulazio, 607
artxilaute, 29
atabal, 30
atal, 345
atariko, 346
atonalismo, 608
atonalitate, 608, 609
atonaltasun, 609
atzekoz aurrerako, 610
atzeratze, 611
aurkezpen, 347
aurreratze, 612
aurresku, 348
ausazko musika, 464
auzo-nota, 613
azentu, 614
azentu dinamiko, 615
azentu erritmiko, 616
azentu metriko, 617
azentuatze, 618
azentuazio, 618
azentudun, 619
azentu-marka, 614
azpimarratu, 941
azterketa, 593

B

bagatela, 349
bakarlari, 620
baketa, 31
balada, 350
